



GAZTERIAREN EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO MEMORIA LABURRA, JAURLARITZAREN KONTSEILUAN AZTERTZEKO

AURREKARIAK

Gazteriaren Euskal Legearen proiektua egiteko prozedura Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2018ko ekainaren 29ko Aginduaren bidez hasi zen.

Dagozkion izapideak amaitu ondoren, Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 12ko bilkuran onartu zuen Gazteen Euskal Legearen Proiektua.

Hala ere, proiektua ezin izan zen Eusko Legebiltzarrera bidali, Legebiltzarra 2020ko otsailaren 11n desegin baitzen, *Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duen lehendakariaren otsailaren 10eko 2/2020 Dekretua* indarrean jarri ondoren (2020ko otsailaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 28. zk.).

Gobernu berria eratu ondoren, ikusi dugu Gazteen Euskal Lege Proiektua bat datorrela Jaurlaritzaren aurreikuspen politikoarekin, legegintzaldi honetarako Gobernu Programan jasota dagoenaren arabera. Izan ere, 91. konpromisoan («Gazteria-politika integrala garatzea»), Gazteen Legea onartzeko ekinbidea jasotzen da: «Gazteriaren Legea onestea; lege horrek gazte-ikuspegia txertatuko du politika publiko guztietan eta bere helburu nagusiak izango dira gazteen laneratzea, Euskadiren gizarte-kapitalerako ekarpenik onena delako».

Era berean, egokitzat eta beharrezkotzat jotzen da oraindik ere hura ordenamendu juridikoan ezartzea; izan ere, gazteriaren arloa Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa da, eta oraindik ez dauka lege-mailako arau baten babesik, aukera emango lukeena azken hamarkadetan garatutako gazte-politikak sendotzeko eta areagotzeko, gazte-ikuspegia politika publiko guztietan txertatuz.

Bestalde, egiaztatu da arauaren bideragarritasuna indarrean dagoela, eta halaber indarrean daudela, erabat, aurreko legegintzaldian egindako izapideak; izan ere, testuaren ezein elementuk ez du aldaketarik izan lege-aurreproiektua onartu ondoren sortutako araudiaren eraginez, eta, beraz, guztiz indarrean dagoela jotzen da.

Ildo horretan, aintzat hartu dira LGAKZ-LI 77/2017 txostenean ateratako ondorioak: "*Legezko iritzia, Gobernu Kontseiluak Euskal Kultura Ondarearen Lege-proiektuaren testuari berriro heltzearen gaineko bideragarritasun juridikoari buruz, gero Eusko Legebiltzarrera bidali ahal izateko, aurretik egindako prozedura-izapideak baliozkotzat jota*", Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak egina, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Aholkularitza Juridikoaren eskariz, jakiteko ea juridikoki bideragarria den Gobernu Kontseiluak Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen aurreproiektu bera berriz onartzea, aurreko legegintzaldiko baldintza berberetan, gero Legebiltzarrera bidaltzeko, aurretiazko izapiderik egin beharrik gabe eta baliozkotzat jota aurretik egindako prozedura-izapideak.

Horregatik, guztiagatik, berriz proposatzen dugu arau-testua bidaltzea, onar dadin, eta memoria honetan jasotzen ditugun egindako prozedura-izapide guztiak.



Verificación de la autenticidad de este documento mediante el localizador

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T2D4M-RTP1 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/Documentos> - 01010 VITORIA-GASTEIZ

PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURAN EGINDAKO IZAPIDEAK

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2018ko ekainaren 29ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriari buruzko Legearen proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Gazteriaren Zuzendaritza da lege-proiektu hori egiteko eta proiektuari dagokion prozedura bideratu eta izapidetzeko arduraduna, Aginduaren bigarren apartatuan egiten den izendapenaren arabera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan ezartzen denarekin bat, aurretiko kontsulta publikoa egin zen araudia egin aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Irekia-Gobernu Irekiaren Plataforman iragarkia jarrita, herritarrek iritzia eman zezaten 2018ko uztailaren 2tik 23ra bitartean. Halaber, Irekiaren sare sozialen eta Gazteakera gazte-atariaren bidez hedatu zen. Era berean, informaziorako esteka zuten mezuak bidali zitzaizkien Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari (EGK), 220 udal-teknikariri, hiru foru-aldundietako 26 teknikariri, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteentzako 82 informazio-zerbitzuri (eta bestelako zerbitzuei) eta 301 gizarte-eragileri (gazteei zerbitzu ematen dieten entitateei eta gazte- nahiz aisialdi-elkarteei).

2018ko uztailaren 2tik 23rako epean, ez zen kontrako botorik jaso, eta iruzkin hau jaso zen: «Duela hilabete batzuk, gazteen emantzipazioari buruzko proposamen bat egin nuen. Bada, ikusi dudanez, izapidetzen ari den legean gai hori jasotzen da. Zalantzarik gabe, gazteen garapenak herria garatzen lagunduko du. Europan, gazteak lehenago emantzipatzen dira, eta hazkuntza demografikoari, ekonomikoari eta, oro har, norberaren garapen pertsonalari bide ematen dio horrek. Eta, horrekin, gizartea garatzen da».

Jasotako iruzkina aztertu eta baloratu ondoren, kontsulta publikorako izapidearen emaitzari erreparatuta, testua egiten jarraitu zen, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren aurretiko onspena jaso zezan.

Hala, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez eman zitzaion aurretiko onspena legearen aurreproiektuari. 2018ko abenduaren 20an, Gobernu Idazkaritzari bidali zitzaion testua, «Tramitagune» aplikazio informatikoaren bidez, Eusko Legebiltzarrerara bidal zezan, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1. artikulua aplikatuta (7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legea hartuta aintzat).

Proiektua egiteko prozeduran, honako dokumentazio hau txertatu zaio espedienteari:

- Justifikazio-memoria.
- Memoria ekonomikoa.
- Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena.
- Haurrengan, nerabeengan eta familiengan izango duen eraginari buruzko txostena.
- Enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruzko txostena.

«Tramitagune» aplikazio informatikoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriari buruzko Legearen proiektuari buruzko txostena eskatu zitzaion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren lege-aholkularitzari.

2018ko abenduaren 28an, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoa sartu zen «Tramitagune» aplikazio informatikora.

Ondoren, «Tramitagune» aplikazio informatikora sartutako memoria osagarrian aztertu ziren txosten juridiko horretan jasotzen ziren gogoetak eta oharrak. Bada, Gazteriaren Zuzendaritzak idatzi zuen memoria hori, eta, bertan, txostenean jasotzen diren gogoetak eta oharrak onartzeko eta ez onartzeko arrazoiak ematen dira, gogoetak eta oharrak onartzearen ondorioz aurreproiektuaren testuari egindako aldaketen berri ematearekin batera. Horren ondorioz, aurreproiektuaren bigarren bertsioa egin da, eta entzuteko, parte hartzeko, beste administrazio batzuei kontsulta egiteko eta nahitaezko txostenak bideratzeko izapideak egin dira.

Jarraian, Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborroa EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseilura igorri zen, eta 2019ko maiatzaren 15era arteko epea finkatu zen interesdunei entzuteko izapidearen barnean alegazioak aurkezteko. Kontseilu horrek gazteengandik jasotako ekarpenak EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak berak emandako nahitaezko txostenean jasota daude.

Jendaurreko informazioaren izapidea gauzatzeko, 2019ko martxoaren 22an EHAAn zegokion iragarkia argitaratu zen; halaber, izapide horren barnean, zirriborroaren testua honako baliabide hauetan hedatu zen: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (www.euskadi.eu); Euskadiko Gazteen Atarian (www.gazteukera.euskadi.eus); Irekian; eta Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean.

Jendaurreko informazioa gauzatzeko eta interesdunei entzuteko epea –2019ko maiatzaren 15a– amaituta zegoela, Bilboko Udalaren alegazio-idazkia jaso zen. Geroago, 2019ko maiatzaren 22an, Gaztematika-Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearen ekarpenak jaso ziren.

Hori ez ezik, euskal gazteen artean ere parte hartzeko prozesu bat faboratu zen Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren inguruan; Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak antolatu zuen prozesu hori, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, unibertsitateko ikasleak izanik haren protagonistak, eta kanpoko laguntza teknikoa ere izan zuen. Parte hartzeko hiru saio egin ziren 2019ko apirilaren 8an Arabako Campusean, 2019ko apirilaren 9an Bizkaiko Campusean (Leioan), eta 2019ko apirilaren 10ean Gipuzkoako Campusean; parte hartu zuten 8 pertsonen ekarpenak idazki bidez jaso ziren.

Horrez gainera, Administrazioentzako partaidetza- eta kontsulta-izapide bat ere abiarazi zen; horretarako, jakinarazpen bana egin zitzaion hiru foru-aldundiei eta EUDELi, eta 2019ko maiatzaren 15era arteko epea finkatu zitzaion alegazioak aurkezteko. Bizkaiko Foru Aldundiak epe hori luzatzeko esanbidezko baimen eskatu zuen alde zuzenetik, eta horretarako baimena eman zitzaion.

Aldi berean, Hasiera Emateko Aginduan adierazitako nahitaezko txostenak eskatu ziren; halaber, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuei ere ekarpenak egiteko eskatu zitzaion «Tramitagune» erreminta informatikoaren bitartez.

Ondoren, lege-aurreproiektuaren hirugarren zirriborroa, erantzundako ekarpenak gehitzearen ondoriozkoa, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordera bidali zen, espedienteko gainerako dokumentazioarekin batera, eta haren txostena eskatu zen. Txosten hori egiteko aurreikusitako epean jaso ez zenez, txostena eskatu zitzaion Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari. Ondoren, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena jaso zen, 2019ko irailaren 9koa. Aztertu ondoren, aurrerago memoria honetan aipatzen diren oharrak aintzat hartu ziren, eta "Legegunean" sartzeaz gain, berehala helarazi zitzaion hori Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari.

Ondoren, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 15/19 Irizpena eman zuen 2019ko urriaren 4an. Ekarpenak aztertu ondoren, aurrerago adierazitakoaren arabera, aurreproiektuaren bosgarren zirriborroa egin zen, Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidaltzeko, espedienteko gainerako dokumentazioarekin batera.

2019ko azaroaren 13an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eman zuen txostena. Aurrerago zerrendatutako ekarpenak aztertuta eta kontuan hartuta, seigarren zirriborroa idatzi zen; hura Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidali zitzaion, irizpena eskatzeko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren Aginduari atxikita, zegozkion agiriekin batera.

Azkenik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 6/2020 Irizpena eman zuen Gazteriaren EAEko Legearen aurreproiektuaren gainean, 2020ko urtarrilaren 15ean. Aurrerago zehazten den bezala, oharrak aztertu, eta Gazteriaren EAEko Legearen aurreproiektuari dagokion behin betiko testua idatzi da; egindako aldaketen berri Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eman ondoren, Jaurlaritza-Batzordeari igorriko zaio.

ENTZUTEKO, PARTE HARTZEKO, BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI KONTSULTA EGITEKO ETA NAHITAEZKO TXOSTENAK BIDERATZEKO IZAPIDEAN JASOTAKO ALEGAZIO ETA EKARPENEN ANALISIA, BALORAZIOA ETA EMAITZA

Behin ezarrirako epea bukatuta, jasotako alegazio eta ekarpen guztiak aztertu eta erantzun egin dira; honako hauek dira:

- EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren txostena, 2019ko maiatzaren 15koa.
- 2019-006 Erakunde Txostena (Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza), 2019ko martxoaren 13koa.
- 6/2019 Txostena, apirilaren 5koa, Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordearen Osoko Bilkurakoa.
- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, 2019ko apirilaren 15koa.
- Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren 22/2019 txostena, 2019ko maiatzaren 6koa.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena (IL19-001), 2019ko maiatzaren 10koa.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, 2019ko maiatzaren 13koa.
- Arabako Foru Aldundiaren alegazioak eta ekarpenak, 2019ko maiatzaren 15ekoak.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioen txostena, 2019ko maiatzaren 30koa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazioak eta ekarpenak, 2019ko maiatzaren 14koak.
- Gaztematikaren alegazioak eta ekarpenak, 2019ko maiatzaren 22koak.
- EUDELen kontsiderazioak, bere Batzorde Betearazleak adostuak, 2019ko maiatzaren 6koak.
- Bilboko Udalaren ekarpenak, 2019ko maiatzaren 10ekoak.
- Eusko Jaurlaritzako sail hauen alegazioak eta ekarpenak:
 - Segurtasun Sailak (2019ko ekainaren 17an).
 - Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak (2019ko ekainaren 19an).
 - Osasun Sailak (2019ko ekainaren 21ean).
 - Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (2019ko ekainaren 24an).
 - Ogasun eta Ekonomia Sailak (2019ko uztailaren 3an).
 - Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak (2019ko uztailaren 4an).
- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen oharra (2019ko irailaren 9a).
- 15/19 Irizpena, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Gazteriaren EAEko Legearen aurreproiektuari buruzkoa (2019ko urriaren 4a).
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2019ko azaroaren 13an egindako txostena.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuari buruz 2020ko urtarrilaren 15ean emandako 6/2020 irizpena.

Gaztematikaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazioak eta ekarpenak ia berdin-berdinak direnez, batera erantzun zaie.

2019ko apirilaren 8an, 9an eta 10ean parte hartzeko egindako saioetan bildutako ekarpen eta iruzkinei dagokienez, parte-hartzaileei erantzun zaie zuzenean, erregelamendu-garapenetan, planetan edo bestelako plangintza- eta betearazpen-tresnetan kontuan hartu beharreko oso iruzkin eta ekarpen espezifikoak baitira gehienak.

EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren txostena, 2019ko maiatzaren 15ekoa

EGKren ekarpenak	Erantzuna
‘jóvenes’ hitza erabiltzen da kasu askotan eta, horietan, ‘personas jóvenes’ erabili beharko litzatekeela uste da.	Onartu egiten da.
... garrantzitsua da genero adierazpena kontzeptua Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenean azaltzea. Esate baterako, 5. artikuluko b) atalean: “(...) sexu orientazio, genero adierazpen (...)”.	Onartu egiten da.
Desgaitasuna; Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenean moldaketa hau egitea proposatzen da. Esaterako 5. artikuluko b) atalean: “(...) arraza, sexua, hizkuntza, aniztasun funtzional(...)”.	Onartu egiten da.
“desegituraturatuko familiak” kontzeptua erabili beharrean “premia bereziak dituzten familiak” jartzea proposatzen da.	Onartu egiten da.
Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenean hezkidetza kontzeptua azaltzea garrantzitsu ikusten da, hain zuzen ere 18. artikuluko b) ataleko 2. azpipuntuan.	Onartu egiten da.
<p>Eskubideen aitortpena. EGK-k lege honen lehenengo atalean gazteria kolektiboaren eskubideen aitortza egitea proposatzen du. Horretarako, Valentziako Gazteriaren Politiken 15/2017 Legearen 4. artikuluan xedatzen den moduan, Gazteriaren Euskal Legean ere honako hau jasotzea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Autonomia pertsolanerako eta erantzukidetasunerako eskubidea. – Hiritar aktiboaren jardun osorako eta parte-hartzeko eskubidea, aniztasuna eta berdintasuna oinarri izanda. – Kalitatezko enplegua izateko eskubidea. – Etxebizitza duin baterako sarbide eskubidea. – Gizarte Segurantzarako eskubidea. – Gazteei zuzendutako zerbitzu eta ekipamenduen gaineko eskubidea. – Informazio eta iritzi-askatasun eskubidea. – Aukera berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzeko eskubidea. – Aniztasun funtzionala duten pertsonen bizitzarekiko aukera berdintasuna bermatzeko eskubidea. – Eraso matxistarik gabeko bizi aske bat izateko eskubidea. – Genero identitate anitzen aitortza eta errespetua izateko eskubidea. – Osasun sexual eta ugalketa-osasuna izateko, bizitza osasuntsu bat edukitzeko eta norbere gorputzaren inguruan erabakitze eskubidea – Hizkuntza ofizialetan bere osotasunean ikasi eta adierazteko eskubidea. – Erljio, kontzientzia eta pentsamendu-askatasuna izateko eskubidea. – Kulturartekotasunaren bermerako eta aitortzarako eskubidea. – Mugikortasunerako eskubidea. – Bizikidetzaren egokia bermatzeko balio dezaken heinean, adin txikikoen justizia, askatasungabetze ezarako eta prebentzio eta birgizarteratzeko eskubidea. – Kirol eta ariketa fisikorako eskubidea. – Ingurumen jasangarri eta osasuntsu bat izateko eta ingurumen kutsatu batetik babestuta izateko eskubidea. – Internetarako eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako doako sarbide unibertsalerako eskubidea. – Garraio publikorako eta mugikortasun jasangarri baterako eskubidea. – Administrazio publikoan informazio sarbiderako eta gardentasunerako eskubidea. – Astialdi, zerbitzu eta ongizaterako eskubidea. – Gazteria politiketan partaidetza eta eragiteko eskubidea. 	Gazteen eskubideak, herritar diren aldetik, jada jasota daude lege sektorialetan.
<p>Gardentasuna EGK-k administrazio publikoaren jardunaren gardentasuna funtsezko giltzarria dela uste du. Hori dela-eta, 19. artikuluan “gazte-politikaren plangintza eta ebaluazioa administrazio” bakoitzean jorratzen duen atalean administrazio publikoaren neurri edo programen gardentasuna bermatzea gomendatzen da, besteak beste hauen emaitzak publiko eginez. Betiere, Babes Legedia errespetatuz, noski.</p>	Onartu egiten da. Hau eransten da: «emaitzak argitaratu egingo direla».

<p>Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposameneko 21. artikuluan gazteei zuzendutako jarduerak eta, zehazki, monitore tituluaren beharra jorratzen dira. EGK-k astialdiko jarduerak berebiziko garrantzia dutela ulertzen du, baina honela adierazita ekar dezakeen arriskuaz ohartarazi nahi du: gazteei zuzendutako jarduerak guztiak astialdi jarduerak gisa ulertzea. Hau saihesteko oso garrantzitsua da gazteei bideratutako jarduerak astialdiaz gain bestelako motatakoak izan daitezkeela aitortzea.</p>	<p>Hala dago jasota, jarduerak barne hartzen badira «baldin eta helburua (...) prestakuntza edo aisialdia bada», oro har, ez soilik aisialdi-jarduerak.</p>
<p>Ildo beretik, monitore titulua astialdiarekin zerikusia duten jardueretara mugatzea proposatzen da, hau da, bestelako ekintzak burutzeko ez dadila beharrezkoa izan.</p>	<p>Zati batean onartzen da, jaso eta onartu diren beste proposamen batzuekin bat etorriz. Arauz garatzeko uzten da: “...arduradun-talde bat izango dute”.</p>
<p>Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenean honakoa jasotzea proposatzen da: “Arauen koherentziari bide emanez, 3/2015 Etxebizitza Legeari erreparatu beharra dago. Legeak etxebizitza eskubide subjektibotzat aitortzen du eta, honek, gazteriari eskubide subjektiboa aitortzeaz gain bide berriak irekitzen dizkio. Horregatik, bide horretan, Administrazio publikoak eskubidea egikaritzeko tresna eta neurriak jarri beharko ditu.”</p>	<p>Legeria sektorialean jada jasota dago.</p>
<p>18. artikuluko a) ataleko 2. azpipuntuan Gizarte Segurantzaren kuotetarako dirulaguntzak, zerga-pizgarriak eta hobariak aipatzen dira kontratazioa bultzatzeko tresna bezala. EGKtik beste tresna batzuk daudela uste da. Adibidez, enpresak sensibilizatzea eta horiei ikusaraztea kalitatezko kontratazioaren hobariak. Gazteak lan baldintza duinetan kontratatzearen garrantzia eta gazteek enpresei eman diezaieketen balio gehigarria azpimarratu behar da. Enpresek gizartearekiko erantzukizun bat daukate, eta administrazioek enpresekin ere lan egin beharko lukete zentzu horretan.</p>	<p>Ez da legean bildu beharreko edukia. Halere, neurri egokitzat hartzen da eta, horregatik, dagokion programa zehatza diseinatzeko edo gauzatzeko eskumena duen organoari helaraziko zaio.</p>
<p>18. artikuluko j) ataleko 2. Azpipuntua, enpleguarekin duen lotura zuzena ikusita, enplegu atalean, hau da, 18. artikuluko a) atalean, azaltzea proposatzen du EGK-k. Behinbehinekotasunak eta prekarietateak eragin handia dute gazteen lan osasunean. Gainera, genero-ikuspegia txertatzea garrantzitsua dela uste da, osasun-politikek askotan ez baitituzte emakume langileek jasaten dituzten arazo espezifikoak jasotzen.</p>	<p>Onartu egiten da. j) letratik a) letrara aldatzen da eta hau eransten zaio j) letrari: «... emakume langile gazteek jasaten dituzten arazo espezifikoak nabarmenduta».</p>



18. artikuluko c) ataleko 1. azpipuntua birformulatzea gazteak eta etxebizitza aipatzen dituen artikuluko honek fokua gazteen egoera eta baldintzetan jar dezan. EGKtik administrazio publikoei neurri eta programa desberdinak sortzerakoan gazteen egoera abiapuntu eta oinarri izatea eskatzen zaie.

Hori horrela, "(...) merkatu libreak gazteei etxebizitza eskuratzeko eskaintzen dizkienak baino baldintza hobekiak (...)” esaldiaren ordez "(...) gazteen momentuko egoera eta baldintzak oinarri izanda hauei erantzungo dien alokairu-neurriak eskainiko ditu” esaldia proposatzen da.

Aipatutako artikuluko honen azken esaldian, gaztelaniazko ereduaren eraldaketa bat egitea proposatzen da, izan ere "procurándose condiciones de acceso a una vivienda" adierazpenaren ordez "asegurándose" erabiltzea egokiagoa dela uste da.

Azkenik, 18. artikuluko c) atalean, eduki aldetik, aurreproiektu-proposameneko zioetan oso garrantzitsutzat nabarmentzen diren gazteriaren enplegu eta etxebizitza gaiek pisu gehiago izatea proposatzen da. Horretarako:

- Alokairuaren burbuilaren garai honetan egoera gero eta larriagoa dela erakusten dute datuek. EGKtik komenigarria ikusten da esplizituki jabetzaren alternatiba landuko dela jasotzea. Bide honetan, Europako eredu desberdinetan jar daiteke fokua, gero EAeko ezaugarrietara nola egokitu daitezkeen aztertuz.

- Era berean, administrazio publikoen aldetik alokairuaren aldeko konpromiso argia eskatzen da, zehazki gazteen ezaugarri eta egoerara egokitu diren alokairu programen aldeko apustua. Duen garrantzia ikusita, aholkagarria da atal argi eta independentean adieraztea.

18. artikuluko a) ataleko 1. azpipuntuan kalitatezko enplegu bat sustatuko dela esaten da eta, gainera, lanaren egonkortasunaren garrantzia azpimarratzen da. Aldiz, artikuluko bereko b) atalean praktiketako programak eta horien hobariak babesten dira, hauek kalitatezko eta egonkorra den enplegu baten kontrakoak direla kontuan izan gabe. EGKtik proposatzen da ezohiko kontratazio formula hauekin lehen bait lehen bukatzea, eta haiek kentzeko bidean, edozein beka edo praktika diru publikoak laguntzekotan, laguntza honek bete beharreko egonkortasun klausulak barneratzea. Izan ere, beharrezkoa ikusten da gazteen lan aukera eta lan baldintza duinak sustatzea. Ezinbestekoa da kalitatezko enplegu baten alde egitea, eta administrazioek horretara dirua bideratzea, adibidez, kontratu mugagabeak sustatuz eta ez hainbeste praktikak eta bekak. Gainera, horrelako formulak enpresetako lanpostu bat estaltzeko ez direla erabiltzen ikuskatu beharko zen, horretarako tresna gehiago jarritz. Bereziki, ikasketen barruan derrigorrezkoak diren praktika aldiak ikuskatu behar dira.

Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu proposameneko gaztelaniazko bertsioan "remover" hitza erabiltzen da kontratazio arloko iruzurrei buruz hitz egiten denean, eta EGKtik egokiago ikusten da beste modu batean azaltzea, adibidez: "denunciando y acabando con el uso fraudulento de las prácticas que ahondan en la precariedad de la juventud".

Legearen garapenean ez da zehazten kontratuz kanpoko formulen iruzurrezko erabileraren kontrako kontrola egingo denik. Zentzu horretan legea orokorregia da. EGKtik zehaztasun gehiago eskatzen da prekarietate honi aurre egiteko neurrietan.

18. artikuluko a) ataleko 4. azpipuntuan gazteen ekintzailtza sustatzea aipatzen da, baina ez nola egingo den. EGKtik nolako ekintzailtza sustatuko den zehaztea egokia ikusten da. Hau da, enpleguari kalitate izenondoa jartzen zaion bezala, ekintzailtzari jartzea oso onuragarria izango zen. Izan ere, ekintzailtza kalitatezkoa izan behar da, ezin da gazteen prekarizazioa bultzatzeko aitzakia bat izan. Gazteen baldintza kualitatiboan eta haien lanaren kalitatearen hausnarketa bat egin behar da. Altan emate soilak ekintzailtzaren arrakasta gisa ulertzen dira askotan eta pentsamolde hori aldatu beharra dago. Ekintzailtza ez da desenpleguari aurre egiteko irtenbide magikoa. Gainera, arlo honetan, iruzurrezko egoerak ematen direla kontuan izan beharko zen eta, adibidez, autonomo faltsuen kasuei arreta gehiago jartzea beharrezkoa dela uste da.

18. artikuluan «Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak» daude jasota; izan ere, 17. artikuluko hau jasotzen du: «EAeko administrazio publikoek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduera gidatuko duten esku-hartze ildoak eta gidalerroak, izaera orokorrekoak eta administrazio bakoitzaren eskumen-esparrua errespetatuko dutenak». Lehentasunak –eta horiek gauzatzeko erremintak eta neurriak– erakunde bakoitzak sortu eta gauzatu beharreko legegintzaldi-planen arabera izango dira.

Gazteriaren formakuntza lan eskubideetan. Gazteak eta kontsumoa, 18. artikuluko l) atalean, gazteek kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak ezagutu ditzaten prestakuntza sustatuko dela esaten da. Hori bezain inportantea da gazteek haien lan eskubideak ondo ezagutzea prekarietateari aurre egiteko eta iruzurrezko egoerak salatzen diren tresnak izateko.

- Ekonomia solidarioaren sustapena. Gazteriaren artean ekonomia solidarioaren sustapena eman beharko zen.
- Belaunaldi arteko erreleboaren sustapena. Jakina denez, bai administrazio publikoan zein enpresa pribatuan, zahartze prozesu bat ematen ari da. Lan munduan belaunaldien arteko ordezkapena modu egoki batean sustatu beharra dago.
- Gazteria enplegu publikoan duen garrantzia. Enplegu publikoa egonkortu beharra dago eta, gainera, gazteei enplegu publikoaren ateak ireki behar zaizkie EPEak deituz. Kontuan izan beharko da EPEetatik sortzen diren lan poltsetan gazteak egoteko aukera asko daudela, izan ere, lan esperientzia gutxi izaten dute eta ondorioz, behin-behineko kontratuekin eta egoera ezegonkor batean egoteko arriskua daukate.
- Genero-ikuspegia txertatu. Lan merkatuan emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa existitzen da eta diskriminazio hori gazterian ematen da ere bai. Errealitate hori ez da islatuta geratzen Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenean eta EGKren ustez garrantzitsua izango zen enpleguaren atalean genero-ikuspegia txertatzea eta diskriminazio horrekin bukatzeko konpromisoa hartzea.
- Gazteen aniztasunari arreta jarri. Gazteria anitza da eta aniztasun hori islatuta geratu beharko zen. Gazte atzerriarrak gizarteratzeko ibilbideak (kontratazio estandarren bidez), aniztasun funtzionala duten gazteen kontratazioaren sustapena, etab.

18. artikuluko b) ataleko 2. azpipuntuan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa aipatzean faltan bota da eraso LGTBI+ fobikoei ere erreferentzia zuzena egitea. Izan ere, gaur egungo gizarteak eta, zehazki, gazteek presente duten lanketa bat da, problematika erreala baita. Hori dela-eta, EGKtik esaldia modu honetara osatzea proposatzen da: “bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren zein eraso LGTBI+fobikoen aurkako prebentzioa ere”. Prebentzio aipatuta, protokoloen aipamena gehitzea, hauen erabilera egingo dela eta zein modutan egingo den zehaztea egoki ikusten da.

18. artikuluko b) ataleko 2. azpipuntuan hezkuntzako balioak garatzen dira. Atal honetan hainbat gai aipatzen dira eta batzuetan sakontzea beharrezko ikusi da. Esaterako, aniztasuna eta inklusioa modu oso orokorrean aipatzen dira. Ikuspegia osatzeko zehaztasun gehiago eskatzen da: Nola sustatuko den, zein esparrutan, nortzuen artean, nola bermatuko den, etab. Marko orokor honetan atal hauen pintzelkada edo aipamen bat eskaintzea oso aberasgarria ikusten du EGK-k, aterki baten pean nola hartuko diren azalduko luke-eta.

17. eta 18. orrialdeko i) puntuari erreferentzia eginez, honako proposamen hauek daude lan honen hobekuntza bultzatzeari begira:

- Momentuko egoera ulertzen lagunduko duen diagnostia egiteko konpromisoa bildu beharko luke, ostean proposamenak egiteko.
- Astialdi eredu honetara heldu ezin diren pertsonen ikusgarritasuna ere bermatu eta aipatu beharko litzateke. Izan ere errekurso falta duten pertsonak daude eta hauei aukera bermatzeko proposamenak faltan bota dira. Ildo honetan, irisgarritasuna edo sarbidea malgutzea proposatzen da eta hau islatua geratzea. Honela aukera berdintasuna bermatuko litzateke.
- EGKtik pertsona gazteei ahotsa ematearen garrantzia azpimarratzea proposatzen da. Honela, gazteek prozesu guztian —proposamena, eskaintza, etab. — izango dute ahotsa.

<p>Ildo beretik, 18. artikuluko b) ataleko 1. azpipuntuan “Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ikaskuntza eta erabilera bermatuko” direla aipatzean, egokia litzateke euskara sustatuko dela gehitzea, zehazki azal dadin.</p>	<p>Euskararen sustapena beste artikulua batzuetan jasotzen da dagoeneko [5.n) eta 32.3. artikuluetan].</p>
<p>Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposameneko 5. artikuluan printzipio orokorrak jorratzen dira, eta k) atalean, zehazki, baloreen sustapena. Erreferentzia egiten zaion alorrak osatzeko, faltan botatako elementu hauek gehitzea proposatzen da:</p> <p>Puntu oso orokorra izanda, sustapen hori aurrera eramateko moduan zehaztasun gehiago agertzea, neurri zehatzak ezartzea: nola egingo den, praktikan nola islatuko den, non islatuko den, nola bermatuko den, etab. Era berean, genero-ikuspegia eta aniztasuna hitzak espresuki aipatzea eskatzen da, EGKtik zeharkako balore bezala ulertzen baitira.</p> <p>Sare lana aipatzea eta hau nola sustatuko den agertzea. Ildo horretatik, zeinen arteko elkarlana sustatuko den sakontzea gomendatzen da.</p> <p>5. artikuluko n) atalean ikasketak ehuneko ehunean euskaraz egiteko eskubidearen aipamena gehitzea gomendatzen da. Era honetara formulatuta zehaztasun maila handiagoa ematen zaio eta argiago geratzen da eskubidea osotasunean emango dela. Hau da, administrazioaren aldetik konpromisoa benetakoa dela.</p>	<p>Aurreproiektu-proposamenaren 5. artikulua printzipio orokorrei buruzkoa da: beste artikulua batzuetan zehazten dira edo, bestela, erregelamendu-garapenetan edo erakunde-planetan.</p> <p>Kasu baterako, «genero-ikuspegia» behar bezala jasota dago, Emakunderen txostenean adierazten den bezala.</p>
<p>Era berean, 21. artikuluko 4. puntuaren harira honako hau proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adin zehaztapen bateratua izatea eskatzen da. Izan ere, legean zehar hainbat modutara ulertzen da parte-hartze hau: aspektu batzuetan 12-30 urte jartzen du; besteetan berriz 18-30. - Atal bakoitzean berdina eta modu argian azaltzeak ulergarriago egingo du, kasuan-kasuan zergatia azalduta. 	<p>3. artikuluan jada zehaztuta daude adin-tarteak, gazteria-politikaren alorreko esku-hartze motaren arabera.</p>
<p>Boluntariotza)</p> <p>Ebaluatzeko moduetan, legean sakontasun handiagoa bildu behar dela ikusten da, gai hau aipatzeaz gain, zein modutan eta mailatan eman daitekeen islatuz. Aitortza edo aitortpen bat emateari begira, irizpide eta bermeak lege honek biltzea oso interesgarria litzateke, boluntariotza beraren balioeste bat emango litzatekeelako, egiten den jardunetik haragoko dimentsioa hartuko luke-eta.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jardunaren balioespenaz gain ikusarazteko lana egitea biltzea ere proposatzen da, hau bermatze aldera. Horrekin batera, proiektzio horretarako diseinatuko diren neurriak azaltzea eskatzen da. - Boluntariotzan espekulazioa saihesteko sinatzen diren kontratuen jarraipena eta kontrola egitea beharrezkoa ikusten da. Legean honen gaineko aipamena gehitzeaz gain hori aurrera eramango lukeen organismoa zein izango zen eta zein funtzio izango zituen zehaztea proposatzen da. - Hezkuntza formalean boluntariotzak hartzen duen tokiaren eta presentziaren aipamena txertatzea proposatzen da, zeharkako eran eragin eta nahi den balioestea lortzeko. - Konpetentzien akreditazio sistema bat agertzea interesgarria litzateke boluntariotzaren munduan lanean dabiltzan artean bermatu dadin, lan honek curriculumean nolabaiteko aipamena edo isla izateari begira eta boluntariotza sustatu eta hauspotzeari lagunduko liokeela ikusi delako. - Orain arte boluntariotza bigarren plano batean egon da askotan. Horregatik, EGKtik lege hau baliatzea eskatzen da arrisku honi aurre egiteko eta jarduna behar den bezala islatzeko: ideia biltzea, onurak azpimarratzea, alde batera ez uzteko neurriak hartzea eta behar diren erremintak aktibatzea, onspen eta aitortzatik haratago, lan egiten jarraitzeko. Zentzu honetan, faltan bota da beste parte-hartze ereduaren aipamena eta hauen balioeste edo aitortza, esaterako eragile sozialen kasua. Legea biribilagoa izateko hori gehitzea proposatzen da. 	<p>Gizarte-eragileen inplikazioa jada jasota dago printzipio orokor gisa; zehazki, 4. artikulua a) letran biltzen da.</p> <p>Ezein legeren xede ez diren neurriak zehaztea.</p>

<p>Parte-hartzea) 30. artikuluan administrazioek partaidetza eta gazteen parte-hartzea sustatuko dutela adierazten da. Guzti hau parekidetasunetik egin beharreko ekinbide bat dela jakinik, prozesu honetan gazteriaren aniztasuna (sexuala, erlijiosoa...) eta beronekiko errespetua ere kontuan izango dela gehitzea komenigarria ikusten da.</p> <p>34. artikuluan gizarte ekimena eta gazteei bideratutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak aipatzean, EGKtik berau egiteko prozeduretan ere gazteriaren egungo aniztasuna eta parekidetasuna kontuan izango direla zehaztea gomendatzen da.</p>	<p>Aniztasuna jada bilduta dago, zeharka, bai printzipio orokorretan bai Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoetan.</p>
<p>31. artikuluan parte-hartzerako funtzionamendua zehaztean, EGKtik beharrezkoa ikusten da iritzietatik haratago, espazio horietan aniztasuna eta parekidetasuna bermatuko duten neurrien aipamena egitea. Gazteen parte-hartzerako egitura edo gune orok ahaleginak egin beharko ditu elkarteetan dauden zein ez dauden gazteen artean parte-hartze aktiboa bultzatzeko. Gazte guztiengana iristeko norabide horretan teknologia berrien erabileraren garrantzia berresten da EGKtik.</p> <p>32. artikuluan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraz aritzean, euskarri berri hauek martxan jartzeko asmoez gain, baliabide berri hauek erabili eta sortzearen garrantzia gizarteratzeko asmoa ere barnebildu beharko litzateke proposamenean.</p>	<p>Ezein legeren xede ez diren neurriak zehaztea.</p>
<p>Bakea eta bizikidetzeta) 5. artikuluan zehaztutako printzipio orokorretan, k) atalean honakoak gehitzea eta/edo garatzea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lege proposamenak gazteek balio demokratikoak gara ditzaten elkarbizitza, askatasuna, berdintasuna, tolerantzia, elkartasuna, jasangarritasuna eta bakea eta giza eskubideen defentsa sustatuko dituela jasotzen du. Horiez gain, EGK-k beste batzuk ere jasota egon beharko luketela babesten du, besteak beste, esfortzua eta erantzunkidetasuna. - Ildo beretik, aurreproiektu-proposamenean giza eskubideen errespetua bermatzeko eta ziurtatzeko neurri gehiago garatzea eta daudenak sakontzea gomendatzen da. Hauen errespetua bermatzearen beharrezkotasuna jasotzeaz gain helburu hau nola garatuko litzatekeen jaso beharko litzateke. - Bestalde, lege proposamenak jasotako balioen artean ere termino batzuk zehaztearen garrantzia azpimarratzea egokia litzateke. Hala, berdintasunaz gain, legeak diskriminazio eza espresuki jasotzea garrantzitsua da. Bakearen sustapenari buruz, bake positibo terminoa jasotzeak indarkeria eza baino gehiago barne hartzen duen balioa jasoko luke. Honela, bizikidetzeta ere sustatzen lagunduko duen beste balio bat garatzeko erabilgarria izango da. - Balio hauek sustatzeko programak eta ekintzak bultzatuko direla jasotzen du aurreproiektu-proposamenak, baina garapen konkretuagoa jasotzea egokia litzateke helburu hori bermatzeko. Balio hauek zeharkakoak izanik zein alorretan garatuko diren zehaztea egokia litzateke, baita adin-tarte konkrituren bati programa edo ekintza berezirik bideratuko zaion ala hauek orokorrak izango diren legeak arautzen duen adin-tarterako. <p>Artikulu bereko p) atalean, bizikidetzarekin lotuta, gazte atzerritarren integrazioa ere aipatzen da. EGKtik oso garrantzitsua ikusten da atal hau, horregatik nondik norako gehiago zehaztea proposatzen da: sustatu egingo den, ziurtatu, babestu; zein izango den prozedura, nola egingo den, etab. Hau aurrera eramateko erabiliko diren neurriak ere zehaztea positiboa litzateke, gazteen artean sustatuko den bizikidetzaren balioa errealitatean nola garatu nahi den jasotzeko.</p> <p>Azkenik, artikulu berean ez bada ere, 19. artikuluko q) atalean gizarteratzea aipatzen da. Bertan, legeak gazte guztien gizarteratzea edo laneratzea errazteko eta bizikidetzeta bultzatzeko neurriak zehaztean dituen horiek nolakoak izango diren edo zein garapen sustatuko zehaztea proposatzen da.</p>	<p>Ezein legeren xede ez diren printzipioak eta neurriak zehaztea edo aplikatzea.</p>

<p>Berdintasuna) Zioen azalpenean, legea egungo gazteek dituzten bizi-proiektuekin eta hauen aniztasunarekin bat etor dadin, esaldi batzuk eta hauetan erabilitako terminologia moldatzea proposatzen da. Izan ere, gazteen bizi-proiektuak anitzak dira eta hainbat familia- eta bikote-proiektu mota daude. Hori dela-eta, ondorengo paragrafoetako bi esaldiak kentzea proposatzen da: - 9. paragrafoan: “(...) kasu batzuetan, elkarbizitza egonkor bat hautatu ahal izaten zuten, afektibitate harremana zuten pertsonekin”. - 11. paragrafoan: “(...) bikoteak osatu eta sendotzeko adina”.</p>	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>Sexu-adierazlea: Adierazle hau ondorengoetan txertatzea proposatzen da: - 7. artikuluko b) atalean, Gazteriaren Adierazle Estatistikoetan.</p>	<p>Gazteriaren Adierazle Estatistikoaren erreferentzia hori kendu egiten da aurreproiektutik, araudi sektorialean jada bilduta baitaude.</p>
<p>Sexu-adierazlea: Adierazle hau ondorengoetan txertatzea proposatzen da: - 7. artikuluko i) atalean, Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorrean. - 8. artikuluko g) atalean, Gazteen egoerari buruzko azterlan eta ikerketetan. - 25. artikuluko 4. atalean, Haur-eta gazte- taldeentzako egonaldietarako aterpetxe eta instalazioetako erregistro liburuan. - 26. artikuluko 3. ataleko d) azpipuntuan, Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileen identifikazio datuak jasotzeko erregistroan. 10 eta 14. artikuluetan aipatzen diren profesionalen atalean, hauek formakuntza egokia jasoko dutela bermatua egotea proposatzen da. 31. artikuluan honakoa gehitzea proposatzen da: “Eta horretarako, beharrezko ekintza positiboak garatuko dira”.</p>	<p>Erregelamendu-garapenaren xede da.</p>
<p>Sistemak eta erakundeak) 17. artikuluan zehazten den Gazteria arloko Euskal Estrategia osatzeko zenbait ekarpen proposatzen dira: - 2. atalean gazteek estrategia honen prestaketa lanetan parte hartuko dutela aipatzen da. EGKtik parte-hartze hori nolakoa izango zen garatzea eta zehaztea eskatzen da, bereziki ezinbestekoa den administrazio eta gazteen arteko elkarlan hori nola sustatuko den.</p>	<p>Gazteen partaidetza jada jasota dago aurreproiektuaren III. tituluan.</p>
<p>- Atal berean euskarazko bertsioan “Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak txostena egingo” duela aipatzen da. Aldiz, gaztelaniazko bertsioan txosten hori egiten dela jakinaraziko zaiola esaten da. Garrantzizkoa ikusten da bi aukeretatik aurrera eramango dena zein izango den erabakitzea eta EGKrekin adostea.</p>	<p>Bi bertsioak bat datoz: - Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak txostena egingo du... - «La Estrategia vasca en materia de juventud ... será informada ... por el Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua».</p>
<p>- Azkenik, estrategia aipatzen da baina ez honen iraupena edo berau gaurkotzeko epeak zein diren. EGKtik honen gaineko zehaztasun gehiago finkatzea proposatzen da.</p>	<p>19 eta 20. artikuluetan jada zehaztuta dago.</p>
<p>Era berean aurreproiektu proposameneko 18. artikuluan Gazteria arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak agertzen dira. Orokorrean, garrantzitsuak diren gai guztiak agertzen dira baina, faltan bota da gai guztien edo gehien arteko oreka bat egotea neurriei dagokionez, hau da, zenbait gaiei garrantzia edo erantzun maila altuagoa ematen zaie beste batzuei baino. Adibide gisa dugu, garrantzia gehiago eman zaiola emakume eta gizonen arteko berdintasunari, gazteria eta sexu- eta genero-aniztasunari baino. Hortaz gain, faltan bota da gazteak eta garraioari erreferentzia egitea, batez ere, gazteak asko erabiltzen dutelako garraio publikoa eta honen gaineko aipamenei bat egitea ezinbestekoa ikusten delako.</p>	<p>Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak orientabideak baino ez dira eta ez dute ez lehentasunik ez zehaztapenik finkatzen, eginkizun hori erakunde bakoitzari baitagokio legegintzaldi bakoitzean.</p>

<p>Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposameneko 19. artikuluan administrazioek izango duten gardentasuna islatzea proposatzea, baita horretarako hartuko diren neurriak zehaztea eta hauen ostean ematen diren emaitzak eta datuak argitaratzea ere. Izan ere, neurrien emaitzak jakin gabe ezin da balorazio egokia egin. Honek, gainera, ordu arte egindakotik emaitza onak ematen dituen mantentzeko eta zer hobetu duena edo gaizki irten dena berrizten edo aldatzen lagunduko du.</p>	<p>Onartu egiten da. Hau eranstean da: «emaitzak argitaratu egingo direla».</p>
<p>Dokumentuan zehar jorratutako bigarren berritasuna administrazioen eta eragileen arteko zeharkakotasuna lantzeko sortuko diren organoak dira. Lehen aipatu den bezala, EGK-k urteak darama aldarrikapen hau egiten beraz, oso positiboki baloratu da gobernu barneko zein administrazioen arteko lana aurrera eramateko organoen sorrera. Baita EGK-k hauetan izango duen presentzia ere, nahiz eta ez duen bozkarik izango. Benetako zeharkakotasuna izateko EGKtik organo hauek zenbatero bilduko diren finkatzea proposatzen da, baita zer nolako funtzionamendua izango duten ere. Ekarpene modura, urteko egutegi bat egitea proposatzen da, bileren maiztasuna finkatuko duena.</p>	<p>Funtzionamendu-erregelamenduan ezarriko dira haren antolamendua eta funtzionamendu-araubidea; funtzionamendu-erregelamendua, izan ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren eraginpean egongo da araututa ez dauden alderdiei dagokienez.</p>
<p>Bestalde, 31. artikuluko 1. eta 2. ataletan erabilitako terminologiak zalantzak sortu ditu, esaterako “procurará” edo “ahaleginduko da” hitzek. Gazteen espazioak forma berezia eta konkretua izan ohi dutenez, aipatutakoak “garantizar” eta “bermatu” hitzengatik ordezkatzeko proposatzen da. Izan ere, EGKtik, ezinbestekoa ikusten da emakume eta gizon gazteak erabakitze espazioetan egotea eta ez baliatzea bakarrik egindako ikerketetan.</p>	<p>Kasu guztietan ezin dira bermatu hainbat eragileren eraginpean dauden alderdiak, kontuan izanik eragile gehienak besterenak izan ohi direla.</p>
<p>Azkenik eta bereziki Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko papera zein den buruan izanda, EGKren definizio bateratua islatzea eskatzen da. Legean zehar zenbait definizio daude-eta. Hau horrela izanda EGK kontsultarako organo bezala ikusi behar dela aldarrikatu nahi da. Izan ere, Gobernuaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren arteko harremana ezinbestekoa da gazteen etorkizuna egokia dela bermatzeko.</p>	<p>Aurreproiektuan biltzen den EGKren definizioak, izan ere, Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzko maiatzaren 27ko 6/1986 Legean bildutakoak dira.</p>

Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, 2019ko apirilaren 15ekoa

Emakunderen ekarpenak	Erantzuna
<p>Arauan jasotzen diren berdintasuna sustatzeko neurrien eta prozeduren artean, honako hauek daude:</p> <p>Gazteriaren arloko EAEko administrazio publikoen jarduketak arautu eta bideratu behar dituen printzipio orokor gisa gehitzea «gazteen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta rolak eta estereotipoak desagerraraztea».</p> <p>Hori horrela, uste dugu komeni dela printzipioa aldatzea, 4/2005 Legean xedatutakoari jarraikiz, honela gera dadin:</p> <p>e) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. <i>Sexuaren araberako diskriminazio mota guztiak</i> desagerraraztea sustatuko da, <i>emakumeen aurkako indarkeria matxista barne</i>. Horrez gain, adinaren arabera gizartean dauden genero-estereotipoak eta rolak desagerraraztea bultzatuko da, bai eta gazteen artean, edozein egoera pertsonal edo sozial dela eta, desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak sorrarazten edo bultzatzen dituzten rol sozialak ere.</p>	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>Hauek sartuko dira Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoen artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EAEko administrazioek bermatuko dute genero-ikuspegia txertatzen dela gazte-politikan, 4/2005 Legearen printzipio orokorren arabera. - Sexu- eta genero-aniztasuna: EAEko administrazio publikoek sustatuko dute gazteei zuzendutako jarduketetan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea, bat etorritz 4/2005 Legearen 3. artikuluko 3. zenbakian idatzitakoarekin (aniztasuna eta desberdintasuna aipatzen dira). - Gazteria, autonomia eta erantzunkidetasuna: EAEko administrazio publikoek bultzatuko dute pertsona guztiak, sexua gorabehera, eguneroko bizitzak berekin dakartzan zereginetan (hala nola etxeko lanetan eta norberaren nahiz besteren zaintzan) parte hartzea eta erantzukizuna hartzea. 	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>18.1 artikuluan xedatuta dago lehentasuna emango zaiela aldiari aldiari diagnostikatzen diren eskari eta premiei ondoen erantzuten dieten esku-hartze ildoei, besteak beste.</p> <p>Horri dagokionez, uste dugu Gazteriaren arloko Euskal Estrategiak lehentasunetatik kanpo utzi beharko litzakeela hiru esku-hartze ildo horiek; izan ere, genero-ikuspegia gainerako esku-hartze ildoetan sartzeko printzipioa galtzeko arriskua egongo litzateke horren emaitzaren ondorioz.</p>	<p>Kontuan hartuko da Euskadiko administrazio publiko bakoitzak gazteriaren arloko bere plangintza egiterakoan, legegintzaldi bakoitzari dagokion aldirako, 19. artikuluan xedatuta dagoen bezala.</p>
<p>Gazteen partaidetzarako egituren osieran, gizonen eta emakumeen presentzia parekidea izango da.</p>	<p>Halaxe dago jasota, izan ere, 31. artikuluko 3. zenbakian.</p>
<p>Zioen azalpenari erreparatuta, uste dugu komeni dela zenbait lerrokada aldatzea, gure iritzian, ez datozelako bat gaur egungo gazteen bizitza-filosofiarekin eta familia- eta bikote-ereduekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 9. paragrafoaren azken zatia ezabatzea: «(...) eta, kasu batzuetan, elkarbizitza egonkor bat hautatu ahal izaten zuten, afektibitate-harremana zuten pertsonarekin». - 10. paragrafoa ezabatzea: «(...) eta bikoteak (...) sendotzeko (...)». (...). 	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>Genero-berdintasanak eta genero-ikuspegiak Legearen artikuluko guztietan duten garrantzia ikusirik, uste dugu, Gazteriaren arloko Euskal Estrategia EAEko gainerako erakunde publikoekin elkarlanean prestatu eta ebaluatzeko, komeni dela berdintasunaren arloko ezagutzak dituzten adituak izatea, bermatuta egon dadin genero-ikuspegia txertatuta dagoela Legearen esparruan gauzatzen diren gazteriaren arloko EAEko administrazio publikoen jardueretan, eta, beraz, jarduerotan emakume eta gizon gazteen beharrak, interesak, nahiak eta aukerak kontuan hartu direla.</p>	<p>Kontuan hartuko da Gazteriaren arloko Euskal Estrategia egiterakoan eta ebaluatzerakoan.</p>
<p>Gomendioa Gazteriaren Euskal Sistemari zuzenduta dago (10. artikuluan arautzen da). Uste dugu beharrezkoa dela berdintasunaren arloko ezagutzak dituzten langile adituak izatea, haien zereginak bultzatzeko, eta haien erantzukizun publikoko eta parte-hartze sozialeko egiturek zein jarduketek berma dezaten gazte-politika garatu eta betetzen dela, horietan guztietan genero-ikuspegi guztiak txertatuta.</p>	<p>Gazteriaren Euskal Sistemak ez du berezko langilerik.</p>

<p>Ildo beretik, gomendatzen dugu berdintasunaren arloko ezagutzak sartzea gazte-politiketako profesionalen profilean (arauaren 14. artikulua arautzen du).</p>	<p>Aintzat hartuko da erregelamendu-garapenean.</p>
<p>Arauaren 19. eta 20. artikuluekin lotuta –«gazte-politikaren plangintza eta ebaluazioa administrazio bakoitzean» eta «urteko programazioa eta ebaluazioa», hurrenez hurren–, euskal botere publikoek gardentasuna eta kontu-ematea bermatu behar dizkiete herritarrei, diru publikoaren bitartez gazteriaren arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari ematen zaion laguntzari dagokionez. Hori horrela, uste dugu komeni dela soilik genero- eta gazteria-ikuspegia duten jarduketei zuzenduta dagoen aurrekontu bat izatearen inguruan hausnartzea.</p>	<p>Gazteriaren Erakunde arteko Batzordeari edo dagokion koordinazio-organoari proposatuko zaio.</p>
<p>Gazteen prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, gustatuko litzaiguke nabarmentzea adingabeekin hezkuntza ez-formaleko prozesuetan esku hartuko duten pertsonen prestakuntzan berdintasuna eta hezkidetzaren helburuak txertatzera zuzenduta dagoen neurri honek eraldatzeko duen ahalmena. Hala, gazteen prestakuntzaren arloan titulazioak lortzera zuzendutako espezialitateak eta ikastaroak ematen dituzten eskolak aitortzeko erregelamenduz erabakitzen diren baldintzen artean, beharrezkoa izango litzateke etxeko lanen eta pertsonen zaintzaren esparruarekin lotutako eguneroko bizitzaren ikaskuntzari buruzko eduki espezifikoak sartzea, bai eta harreman pertsonalen funtzionamenduaren inguruko ezagutzarekin lotutakoak nahiz gatazkak ebazteko indarkeriazkoak ez diren metodoen eta sexu-berdintasunaren errespetuan oinarritutako bizikidetzaren ereduaren ikaskuntzarekin lotutakoak ere.</p>	<p>Aintzat hartuko da erregelamendu-garapenean.</p>
<p>Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskoletako giza baliabideei buruzko eskakizunei dagokienez, irakasleek eta zuzendaritzak berdintasunaren eta hezkidetzaren arloko gutxienezko trebakuntza izan behar dutela xedatzea komeni den aztertu behar da, bai eta jazarpenaren eta sexu-abusuaren prebentzioaren arlokoa izan behar duten ere, 4/2005 Legearen 31. eta 32. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri eman ditzaten edukiak. Gainera, gogorarazi beharra dago, ahal den heinean, irakasle dibertsifikatuak izan beharko liratekeela, genero-estereotipoak gainditzen dituzten erreferente maskulinoak edo femeninoak dituztenak. Era berean, irakaskuntzan emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatua izateak 4/2005 Legearen 31.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzen du.</p>	<p>Aintzat hartuko da erregelamendu-garapenean.</p>
<p>Igorri den generoaren arabera eraginari buruzko txosten honetan jasotzen diren jarduketa eta neurri batzuk ezarri eta garatzeko, lantalde espezifikoak era litezke EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordearen barruan. Edonola ere, neurri horiek diseinatzerakoan, baliagarria izango da Saileko Berdintasun Unitateko adituen aholkuak izatea.</p>	<p>Aintzat hartuko da dagokion garaian.</p>
<p>Gazteen jarduerekin lotutako arau-hauste oso astunei dagokienez (49.2 artikulua), proposatzen da indarkeria mota zehaztea, eta «indarkeria matxista» jartzea.</p>	<p>Onartu egiten da; hala, aldatu eta zehazten da: ...edozein motatako indarkeria –baita indarkeria matxista ere–.</p>

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (2019ko maiatzaren 13koa)

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena	Erantzuna
<p>Egokia izango litzateke, gure aburuz, bermatzea Gazteriaren Euskal Legearen eraginez gazteek herri administrazioetatik jasotzen duten informazio guztia Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo dela eta berme hori lege proiektuan aitortzea.</p> <p>Horretarako, honelako testu bat txertatzea proposatzen dugu:</p> <p><i>“ Lege honen ondorioz euskal herri administrazioetatik jasotzen duten informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo da eskuragarri. Era berean, herri administrazioekin dituzten harremanetan, gazteek euskara eta gaztelania ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko eta arreta hautatutako hizkuntza berean jasotzeko eskubidea bermatuko da”.</i></p>	<p>Gazteen eskubideak, herritar diren aldetik, jada aitortuta daude dagozkien lege sektorialetan.</p>
<p>Honetaz aparte, eta 2018-2022 Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera normalizatzeko Irizpide Orokorrak eta Plan Nagusiaren 50 helburuan jendaurreko lanpostuei buruz jasotzen dena kontuan izanik, Gazteriaren Euskal Lege Proiektuaren 24.3.b) eta c) atalak horrela moldatzea proposatzen dugu:</p> <p><i>“b) jendeari arreta egiteko ordutegia: asteen 20 ordutik beherakoa ez, eta gutxienez lau egun. Herritarrek euskaraz artatuak izango direla ziurtatu beharko da.</i></p> <p><i>c) Burutuko dituzten arreta-funtzioak modu egokian garatzeko moduko langile elebidunak eta baliabide materialak izatea”</i></p>	<p>Aintzat hartuko da erregelamendu-garapenean eta hizkuntza normalizatzeko planak egiterakoan.</p>
<p>Helburu hori jarraituz, gainera, 26 artikulua honela berridaztea proposatzen dugu:</p> <p><i>“1.- Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolek betekizun hauek bete beharko dituzte aitorpen ofizialerako:</i></p> <p><i>a) Euskal Autonomia Erkidegoan bitarteko materialak eta giza baliabideak edukitzea, hala zeregin administratiboak nola jarduera pedagogikoak garatzeko; eduki ere bai, eman beharreko prestakuntza ikastaro edo -moduluak egoki gauzatzeko nahikoak eta horiek euskaraz emateko ezinbestekoak diren baliabideak.</i></p> <p><i>b) Zuzendariak unibertsitate titulua edo baliokidea izatea, eta haur eta gazteen aisialdirako heziketa jardueretako zuzendariaren titulu edo diploma ofiziala, hala nola bere titulazioari dagokion euskara maila, titulazioak edota salbuespenak egiaztatuta.</i></p> <p><i>2.- Aitorpen ofizialaren bidez, eskolak eskaini ahalko ditu haur eta gazteen aisialdirako heziketa jardueretako begirale eta zuzendari titulua lortzeko ikastaroak edo moduluak, besteak beste, erregelamenduz ezarritako betekizunak bete ondoren. Betekizun horien artean begiraleak, gutxienez, euskaraz B2 maila egiaztatuta edota salbuetsia izatekoa egongo da.”</i></p>	<p>Aintzat hartuko da erregelamendu-garapenean.</p>
<p>Hori kontuan hartuta, Lege proiektuaren 32 artikuluan informazioaren eta komunikazio teknologien erabilera aipatzen denean, gomendatzen dugu aldaketa batzuk egitea, hona hemen:</p> <p><i>“1.- EAEko administrazio publikoek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, euskaraz bereziki, sustatuko dute gazteen partaidetza eta informazioa errazteko, eta, horretarako, aukera hauek emango dituzten webguneak sortuko dituzte:</i></p> <p><i>a) Administrazio-izapideak egin ahal izatea eta halakoak ahalik eta gehien erraztea, euskarazko bertsioen kalitatea bermatuz beti ere.</i></p> <p><i>b) Administrazioaren gardentasuna hobetzea, gazteriaren arloan sortzen den izaera publikoko informazio oro Gazteentzako Informazio-sarean sartuta, euskaraz gutxienez.</i></p> <p><i>c) Sare telematikoen bidez administrazioen arteko euskarazko harremana bultzatzea, herritarren onurarako.</i></p> <p><i>d) Elkartearen sarea herritarren artean ezagutzera ematea.</i></p> <p><i>2.- Baliabide teknologikoen erabilera orokortzen den neurrian, administrazio publikoek herritarrentzako sare informatikoak garatuko dituzte, gazteek aukera izan dezaten, gazte-gaietan, zerbitzuetako arduradunekin elkarreragileko, eztabaidetan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko edozein delarik .erabiltzen duen hizkuntza ofiziala eta bereziki euskararen erabilera sustatuz. Edonola ere, datu pertsonalak babesteari buruzko indarreko legeria betetzea bermatuko da”.</i></p>	<p>Onartu egiten da. Beste zenbaki batean biltzen da:</p> <p>3.- Euskal administrazio publikoek bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerako pertsona gazteen aldetik euskararen erabilera sustatuko dute.</p>

<p>Gure ustetan, egokia litzateke, halaber, Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioaren egikizunen artean aipatzen den eta legearen 7. artikuluan, b) atalean, esaten dena osatzea; testua horrela geratuko litzateke:</p> <p><i>“b) EUSTATEk ezarritakoarekin edo planifikatutakoarekin bat etorrira, Gazteriaren Adierazle Estatistikoen Sistema planifikatzea, diseinatzea, lantzea eta mantentzea erregelamendu bidez zehaztuko den moduan, gazteei buruzko ezagutza egunean izate aldera eta gazte-politikaren plangintzaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren koherentzia- eta egokitasun-mailak ezagutze aldera; pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen estatistikak ere sartu behar dira, euskararen egoeraren arabera adierazleekin batera”.</i></p>	<p>Kontuan izanik letra horrek, halaber, zalantza juridikoak sortzen dituela, b) letra ezabatzea eta hurrengoak berrantolatzea erabaki da.</p>
<p>Lege Proiektuaren IV tituluaren erakundeen arteko koordinazioaz aritzen denean, ez da kontuan hartzen euskararen ikuspuntua EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa arautzerakoan, ezta organo horren funtzionamenduz aritzen denean, beraz gomendatzen dugu atal berri bat (38.8):</p> <p><i>“8. Kide horien artean elebidunak aukeratzea bultzatuko da. Eta elebkarrentzako, hala gertatuko balitz, baliabideak jarriko dira, nork hautatutako hizkuntza egin ahal izan dezan”.</i></p>	<p>Administrazio bakoitzaren eskumena da hori, bakoitzak bere izendapen-mekanismoak ditu.</p>
<p>IV. tituluarekin amaitzeko, II. kapituluan aipatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Gazteriaren Sailarteko Batzordekideek bertoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dute. Gainera, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko efikazia eta efizientzia irizpideak jarraitzeko:</p> <p><i>“Batzordekideak izendatzerakoan, kontuan hartuko da horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, gutxienez, B2 maila izango dutela. Batzordekideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, euskararen normalizazioa helburu.”</i></p>	<p>Organoen osaera gai bakoitzean eskudunak diren pertsonen zehazten dute.</p>
<p>42. artikuluan jaso beharko litzateke ikuskatze-eginkizunetan diharduten langileek gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, C1 maila izango dutela eta, ikuskatze-lana amaituta, emaitzak jasotzen diren aktak gutxienez euskaraz egin beharko direla.</p>	<p>Administrazio bakoitzak langileak izendatzeko mekanismo propioak ditu, Funtzio Publikoaren ildoei jarraikiz.</p>
<p>Era berean, 43 artikulua ere moldatu beharra dago, gure iritziz, aditzera emateko EAEko Administrazioan gazteriaren arloko eskumena duen saileko zuzendariari goi-ikuskaritzak garatutako jardunak eta idatzitako txostenak eta irizpenak ele bietan jakinaraziko zaizkiola.</p>	<p>Bermatuta dago, jada, bi hizkuntzen erabilera, gazteriaren arlorako izendatutako langileek horretarako egokia den hizkuntza-eskakizuna baitute.</p>
<p>44. artikulua, berriz, Ikuskatze-jarduera arrunta arautzen duena, horrela geratzea proposatzen dugu:</p> <p><i>“1.- Ikuskatze-jarduerak eginkizun nagusi hauen arabera gauzatuko dira, zeinak erregelamendu bidez garatuko baitira:</i></p> <p><i>a) Lege hau eta beronen garapen-arauak betetzen direla zaintzea eta egiaztatzea.</i></p> <p><i>b) Arau-hauste izan daitezkeen eta partikularren erreklamazio edo salaketen xede izan diren gertakariak egiaztatzea.</i></p> <p><i>c) Lege honetan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren kautelazko neurriak proposatzea.</i></p> <p><i>d) Dagozkion zehapen-prozedurak hasteko proposamena egitea.</i></p> <p><i>e) Edozein laguntza publiko jaso duten gazte-jardueren garapenaren kontrola bermatzea.</i></p> <p><i>f) Gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak errespetatzen direla zaintzea, hizkuntzarena barne.</i></p>	<p>Jada bermatuta dago, derrigorrean bete behar baita.</p>



<p>g) Jarduerak, zerbitzuak edo ekipamenduak aitortze-arauetara egokitzen direla egiaztatzea.</p> <p>h) Ebaluazioa eta lan pedagogikoa egitea, zerbitzua hobetze aldera.</p> <p>i) Gazteen euskarazko partaidetza ere sustatzen dela zaintzea.</p> <p>2.- Gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen arduradunek eta haien ordezkariak eta enplegatuek ikuskatze-lana errazteko betebeharrak dute. Horretarako, bulego, obra eta instalazioetan sartzen utziko diete ikuskatzaileei, eta dokumentu, liburu eta erregistroetara irispidea izaten ere bai; oro har, gertakariak hobeto ezagutzeko eta ikusapena burutzeko bide guztiak irekiko dizkiete. Horrez gain, ikuskatze-bisiten liburuek, <u>ele bietan</u>, izan beharko dute, behar bezala bideratuta, non ikuskatze-lanen emaitzak idatziko baitira.</p>	<p>Jada araututa dago hizkuntza normalizatzeko araudi sektorialean.</p>
<p>3.- Ikuskatzaileek, beren burua identifikatu ondoren eta aurretiazko jakinarazpenik egin beharrik gabe, lege honetako aginduen mendeko jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak aztertu ahal izango dituzte. Horrez gainera, edozein motatako egiaztapenak egin ahalko dituzte, eta erabiltzaileekin edo haien legezko ordezkariekin elkarrizketak izan <u>hizkuntza ofizialetako edozeinetan</u>. Hitz batean, esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren jardun guztiak burutu ahal izango dituzte.</p> <p>4.- Ikuskatzaileek edozein informazio eskuratzeko edo interesdunak dagokion bulego publikoan agertzeko eskari arrazoitua egin ahal izango dute, zitazioan zehazten den xedearan arabera. Zitazioa egiteko, beren-beregi egingo den akta edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein jakinarazpen modu erabili ahal izango da. <u>Eskari eta dokumentu hauek ele bietan edo euskaraz egon beharko dira</u>”.</p>	<p>Aintzat hartuko da erregelamendu-garapenean.</p>

6/2019 Txostena, apirilaren 5koa, Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordearen Osoko Bilkurakoa

Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordearen ekarpenak	Erantzuna
<p>Gazteen ekipamenduei eta zerbitzuei buruz egiten diren aipamen ugarietan ez da adierazten ekipamendu eta zerbitzu horiek kanpoan kontratatzea aurreikusten ote den, baina kanpoan kontrata daitezke, ekipamendu eta zerbitzu horien «titulartasun publikoa nahiz pribatua» aipatzen baita (ikusi 11. artikulua 2. apartatua).</p> <p>Izaera duala edukitzea garrantzitsua da; izan ere, aurreproiektuan ez dira zehazten jardueraren ezaugarri diren erantzukizun publikoa eta gizarte-partaidetza kasu batzuetan ekipamenduen eta zerbitzuen titulartasun pribatuarekin lotuko dituzten tresnak edo loturak.</p> <p>Hortaz, txosten horri dagokionez, gure ustez egokia da aurreproiektuan ezartzea zer bide erabiliko den ekipamendu eta zerbitzu horiek eskuragarri jartzeko; izan ere, egokiena izango da sektore publikoko kontratuei buruzko araudiari, eta bereziki Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari lotzea. Lege horren bitartez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egin da Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL). Lege horretan argi eta garbi adierazten dira bere erregulazioaren barnean sartuta dauden eta kanpoan geratzen diren negozioak, eta horri lotu beharko gatzazkio administrazio eskudunak aipatutako ekipamenduen eta zerbitzuen hornitzaileekin eta mailegatzzaileekin, hurrenez hurren, lotuko dituen harreman juridikoa ezartzeko.</p> <p>34. artikulua, gizarte-ekimenari buruzkoa.</p> <p>Horri dagokionez, eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren Aholkularitza Juridikoak egindako txosteneko aipamenekin bat etorritik, esan behar dugu ez dela aipatzen lankidetzaren modu horiek gauzatzeko erabiliko den modu juridikoa, negozio juridikoa. Hainbat modu izan daitezke eta SPKLren onespina izango dute; izan ere, Lege horren berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak ahalbidetzen du gizarte-premiak asebetetzera bideratutako zerbitzu publikoak betetzeko kontratuz kanpoko tresnei buruzko Autonomia Erkidegoetako legeria. Dena den, legeria izan behar du, ez, ordea, beheagoko lerruneko araudia (argi dago ezin dela baldintzetarako aipatzen den erregelamendu-garapenera eraman).</p> <p>Baina kontuan izan behar da ekipamenduak eskuratzeko eta jarduerak eskaintzea hornidurei eta zerbitzuei buruzko kontratuen berezko xedeak direla, hurrenez hurren; horregatik, ahal bada, formula hori aukeratu beharko litzateke, eta horrela jasota utzi beharko litzateke Legean.</p> <p>Gogoeta-ildo horri jarraikiz, «akordio» horiek kontratu publikoak izango dira, eta izaera hori dutenez, sektore publikoko kontratuen legearen eraginpean egon beharko dute (arestian aipatutako SPKLren eraginpean, alegia). Beharbada egokiagoa izango litzateke «kontratuak» esatea «akordioak» esan ordez, eta ez litzateke beharrezkoa izango dagokion legeriara jotzea.</p> <p>Komenigarria da zuhurrak izatea akordio (kontratu) horiek ezartzeko aplikatu behar diren baldintzen eta betekizunen erregelamendu-ezarpenari dagokionez. Izan ere, erregelamenduaren bidez gara daitezkeen betekizunak bete behar diren premia zehatzak ezartzeko betekizunak eta Erregistroan inskribatzeko betekizunak soilik dira. Zuzena da «sektore publikoko kontratuen legeriak araututakoaren arabera» ezarriko direla, baina ez soilik kalitate- eta efikazia-irizpideei dagokienez, baizik eta legeria bere osotasunean errespetatu beharko dute, eta ez dute legeria hori garatuko duen erregelamendu-xedapenik egingo.</p> <p>Hori horrela izanik, badirudi zaila dela dagokion administrazio publikoak «dagokion akordioa ezarri aurretik» onartzea zerbitzuak eta ekipamenduak. Askotan kontratua formalizatu aurreko unean, eta kontratuaren esleipenaren ondorio logiko gisa onar litzake, eta horrela adierazi beharko litzateke. Helburu horretarako, kontratu bakoitzak beharrezkoak diren aginduak eduki beharko ditu bere eskaintza aurkezteko aukera duen zerbitzuak eta ekipamenduak onartu ahal izateko eta Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorrean inskribatu ahal izateko betekizunak betetzeko, eta harekin batera Gazteriarren Euskal Sistemaren partaide izateko.</p> <p>Azkenik, «gizarte-ekimenari» dagokionez, ulertzen da SPKLren azken xedapenetatik hamalagarrenean proposatzen den bezala definituko dela. Lege horrek Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekreturen bitartez onartu dena– aldatzen du. Komenigarria izango litzateke horren inguruko zehaztapen bat egitea; izan ere, horrela bakarrik uler daitezke sektore publikoko kontratuen legeriako subjektu lizitzaile edo kontratista gisa.</p>	<p>Onartu egiten da.</p> <p>Administrazio publikoak azpikontratutako kudeaketaren kasuan, sektore publikoko kontratuei buruzko araudian xedatutakoari jarraituko zaio, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari.</p>

2019-006 Antolaketa Txostena (Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza), 2019ko martxoaren 14koa

HHABHZren ekarpenak	Erantzuna
<p>Xedatutakoa aztertu ondoren, eta kontuan izanik Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 86.3 artikulua adierazitakoaren arabera, batzorde sektorialak sortu ahaliko direla eta horien eginkizuna izango dela bakoitzari dagokion eremuan udal-eskumenei eragiten politika sektorialeiei buruz eztabaida egitea eta iritzia partekatzea, eta proposamenak aurkeztea Politika Publikoen Euskal Kontseiluko osoko bilkurari haren eskumeneko gaietarako buruz, HHABHZk proposatzen du Politika Publikoen Euskal Kontseiluan Batzorde Sektorial bat sortzea, Euskadiko Gazteriaren arloko Erakunde arteko Koordinazioaren Organo baten ordez.</p>	<p>Politika Publikoen Euskal Kontseiluan Batzorde Sektorial bat egoteak ezin hobeki jardun dezake Euskadiko Gazteriaren arloko Erakunde arteko Koordinazioaren Organo gisa. Nolanahi ere, halako organo baten sorkuntza ez da lege honen eskumenekoa.</p>
<p>HHABHZk, xedatutako aztertu ondoren uste du Batzordeari esleituriko eginkizunak, «Eusko Jaurlaritzaren gazte-politika integralaren garapena bultzatzea, legegintzaldiko gazte-planean jasota dauden ekintzen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa egitea eta elkarlanerako eta koordinaziorako formulak ezartzea gazte-politika integralarekin zerikusia duten sailen artean», gazteriaren alorrean eskuduna den Sailaren berezko eginkizunak direla.</p> <p>«Kide anitzeko organo aholku-emaileak ebaluatzea eta hobetzea, Politika Publikoen Euskal Kontseiluan integratzeko» proiektuaren Talde Teknikoak kidea anitzeko organoen ebaluaziora buruz ateratako ondorioak kontuan izanik, HHABHZk proposatzen du ez sortzea hertsiki barnekoak diren kide anitzeko organorik. «Barneko» koordinazioak lankidetzan eta ezagutzaren kudeaketa partekatuan oinarrituta egon behar du; gainera, kudeaketa horrek eragingarri eta eraginkorragoa izan behar du eta ez du egon behar, hain neurri handian, askotariko betebeharren eraginpean, hala nola hirugarrenen parte-hartzerik ez duen eta kanpo-gobernantzaren –nola beste erakunde batzuekiko maila anitzeko gobernantzaren hala herritarrekin eta elkarrekin parte hartzeko gobernantzaren– esparruan lan egiten ez duen kide anitzeko organo baten kudeaketaren publikitate aktiboaren eraginpean. Halaber, kudeaketa publiko aurreratua aplikatzea ere proposatzen du, gazteei eragiten dieten gai guztietan –hala nola osasun publikoan, trafikoan, jolasean, etxebizitzan, enpleguan, garapenerako lankidetzan eta abarrean– eskudunak diren organoekin aliantzak sortzean oinarritutako funtzio publikoa, hain zuzen; izan ere, horiek arinago kudeatzen dira eta eraginkorragoak dira Batzorde bat baino.</p>	<p>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordeari esleituriko eginkizunak, oro har, gazteriaren alorrean eskuduna den sailaren berezko eginkizunak dira, baina gazteriaren alorrean eskuduna den sailaren eta gazteria-politika integralarekin lotutako sailtako bakoitzaren arteko alde biko lankidetzan eta koordinazio hutsaz haratago doa horien ezarpena, batez ere, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen –1999an sortutakoaren– funtzionamenduaren esperientziari jarraikiz. Zera lortu nahi da, proposamen eta ekimenak sail bakoitzarekin bana-bana alderatzeaz haraindi, sailen arteko harremanak, sinergiak eta zuzeneko alderaketa faboratzea. Horrenbestez, aurreproiektuan bertan jasotzen den bezala, eginkizunetako bat da elkarlanerako eta koordinaziorako formulak ezartzea ez soilik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gazte-politika integralarekin zerikusia duten sailekin, baizik eta bereziki, sail horien «artean».</p>

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren 22/2019 txostena, maiatzaren 6koa

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren ekarpenak	Erantzuna
<p>EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordea sortzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea ezabatzen da.</p> <p>Testuan ez bada ere zehazten, zera erantsi beharko litzateke, gazteriaren alorrean eskuduna den sailari atxikitzen bazaio ere, ez duela parte hartzen Administrazioaren egitura hierarkikoan eta, horrenbestez, batzorde horretako kide izateak ez duela ordainsaria jasotzeko eskubiderik ematen.</p>	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>Sailarteko Batzordeari esleituriko eginkizunei dagokienez, eta, zehazki, sustapen- eta koordinazio-eginkizunei gagozkiola, sailaren aholkularitza juridikoak txosten juridikoan egindako iruzkinekin –zehazki, 12., 38., eta 39. artikuluari eta lehen xedapen gehigarriari buruzkoekin– bat gatzela adierazi nahi dugu.</p>	<p>Sailaren txosten juridikoan egindako iruzkinei behar bezala erantzun zaie, «Memoria osagarria, sailak Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuari buruz egindako txosten juridikoaren ondoriozkoa» dokumentuan – espedientearen parte denean– bilduta dagoen bezalaxe.</p>

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena (IL19-001), 2019ko maiatzaren 10ekoa

Datuak babesteari buruzko ekarpenak	Erantzuna
<p>Gure ustez, igorritako testuaren 21.3 b) artikulua aldatu egin behar da, adingabeen datuen tratamenduari aplikatzekoa zaion araubide juridikora egokitze aldera; izan ere, adingabeen datuen araubide juridikoa baimenean oinarrituta dago [14 urtetik beherakoak: guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonaren baimena].</p> <p>Gomendagarria izango litzateke, halaber, artikulua horren idazketa hobea egotea, benetan duen zentzua argiago azaldu dezan: jardueraren –eta honenbestez, haurren eta gazteen datuen tratamenduari– arduradunak alde aurretik izan dezan adingabeen edo horien legezko ordezkarien aurretiko baimena edo baimen informatua, adingabearen datu pertsonalak lortu nahi diren helburu zehatzetarako tratatzeko. Izan ere, tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen denean, arduradunak gai izan behar du frogatzeko interesdunak oniritzia eman ziola bere datu pertsonalak tratatzeari (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 7.1 artikulua).</p> <p>Edozelan ere, nabarmentzekoa da oniritziaren balioduna izan dadin, honetan oinarrituta egon behar duela: «Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena» (DBEOren 4.11 artikulua).</p> <p>Azkenik, komenigarria da gogoraraztea interesdunaren datu pertsonalak tratatzeko direla jakinarazterakoan hizkera argi eta erraza baliatu behar dela, bereziki, haurrak badira, eta DBEOren 13. eta 14. artikuluetan adierazitako informazio guztia izateko eskubidea dutela.</p>	<p>21.3 b) artikulua irismena ez dagokio bakarrik adingabeen datuen tratamenduari –adostasunean oinarritutakoari–; zentzu zabalagoan, jarduera antolatuetan parte hartzea ere hartzen du barnean, aplikatzekoak diren araudi sektorialeko jarraikiz betiere. Nolanahi ere, adierazitako zehaztapenak, egokitze joz gero, erregelamendu-garapenetan bildu behar dira.</p>
<p>[Sexu-delinkuenteen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa] ... baldintza hori, nolahi ere, eskatu egin behar da lege honetan aurreikusitako edozein jardueratarako sarbidea izateko eta lege honetan aurreikusitako edozein jardura egiteko, baldin eta jardura horrek adingabeekin maiz harremanetan egotea badakar berekin.</p>	<p>Jada jasota dago sektorialki.</p>
<p>... printzipio orokor gisa, gazteen eskubideen babesa eta, zehazkiago, gazteen datu pertsonalen babesa Legearen 5. artikuluan sartzeko aukera kontuan har daiteke, esangura konstituzional handia dutela kontuan izanik.</p>	<p>Gazteek herritar gisa dituzten eskubideen babesa jada jasota dago lege sektorialetan.</p>
<p>Hirugarren Xedapen Gehigarria, 2. zenbakia: Legean bertan bildutako datu pertsonalen tratamendua babestea bada aurreikuspen horren xedea, ez dugu beharrezkotzat jotzen. Aitzitik, datu pertsonalen bestelako tratamendua babestea bada aurreikuspen horrekin lortu nahi den xedea, Legean bertan bilduta egon behar du lukete tratamendu berri horiek, lege honek ezin baitu bildu datu pertsonalen komunikaziorako gaikuntza huts bat. Txostenaren hasieran aipaturiko doktrina konstituzionalaren arabera, legeak baino ez du finkatu behar, zehaztasunez, arauaren bitartez lortu nahi diren helburuak erdiesteko zer tratamendu behar diren, eta betiere, proportzionaltasun-baldintzak bete behar ditu.</p>	<p>Onartu egiten da. Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 2. zenbakia kentzen da.</p>

Arabako Foru Aldundiaren alegazioak eta ekarpenak, 2019ko maiatzaren 15ekoak.

AFaren alegazio eta ekarpenak	Erantzuna
<p>7. artikulua e) letrako 2. zenbakia. (...), proposatutako idazketa («2.- Nazioarteko jarduerak eta programak eta plaza-trukean dautzan programak, gazteen ostatuarekin, turismoarekin eta aterpetxeekin zerikusia duten jarduerak eta gazteen arteko trukeak, hala lurralde historikoen artean nola Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten direnak –berezi, beste autonomia-erkidego batzuen artean eta nazioartean–. Gainera, erraztasunak emango ditu gazteek gai horiei buruzko informaziora, kontsultara eta aholkularitzara irispidea izan dezaten») kentzea eta horren ordez honako idazketa hau txertatzea proposatzen da: «Nazioarteko jarduerak eta programak eta beste autonomia-erkidego batzuekin gauzatutakoak, baita gazteen aterpetxeekin, gazteentzako turismoarekin edota gazteen arteko trukeekin zerikusia duten jarduerak ere, eta informaziora, kontsultara eta aholkularitzara irispidea izan dezaten».</p>	<p>7. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eginkizunak biltzen dira, eta ez dira esklusiboak, bere lurralde-esparruko foru-aldundiekin batera gertatzen baitira.</p>
<p>8. artikuluan («Foru-administrazioen eginkizunak»), aurreko alegazioaren ildo beretik, eta eskumen-banaketan argitasuna ekartze aldera, beste letra bat eranstea proposatzen dugu, b) letra bat, eta gainerako letrak berrantolatzea. Hala, Foru Aldundiek gaur egun gauzatzen duten jardueraren alde egiten da: Horrela, proposaturiko idazketa berria hau izango litzateke: «b) Gazteen aterpetxeekin, gazteentzako turismoarekin edota gazteen arteko trukeekin (beste lurralde edo autonomia-erkidego batzuekin gauzatutakoak edo nazioartekoak) zerikusia duten jarduerak, eta informaziora, kontsultara eta aholkularitzara irispidea izan dezaten».</p>	<p>8. artikuluan foru-administrazioen eginkizunak biltzen dira, proiektuaren Xedapen iragankorrean bildutako indarreko araudiari jarraikiz.</p>
<p>BIGARREN ATALA –Gazte-sustapeneko Tresnak eta Neurriak–: egokia da agerian uztea atal hau legegintza-teknikaren printzipio orokorren ikuspegiari oinarrituta aztertu dela. Aukerak: - Maila bereko edo beheagoko arauak indargabetzea, arau horien edukia erabat erregulatuta. - Kontzeptu horiek eguneratzea eta argitzea, arau sektorial horien eduki substantziala indarrean mantenduta, maila bereko beste arau batzuekin erabat indargabetzen diren arte. Igorritako idazketa-proposamena bi konponbide horien nahasketa bat da. Legegegintza-unitatearen (legearen eta dekretuen arteko lotura logikoa eta hierarkikoa, igorpen gurutzaturik gabe), malgutasunaren (garapenak) eta argitasunaren printzipioak. Lege honen testuingurua, antza, ez da jarduera sektorialen alderdi espezifikoak eta aldagarriak arautzeko esparru egokia; horren ordez, dekretu, agindu eta erregelamenduen bidez egin beharko litzateke. Atal honetako artikulua idatzita dauden moduan, ez da araudi sektoriala indargabetzen; horren ordez, partzialki aipatzen da. Hori nahasgarria izan daiteke herritarrentzat, ez baitago argi jarduera zer araudik erregulatzen duen benetan (adibide gisa, komeni da 24. artikulua aipatzea; artikulua horrek gazte-informazio eta -dokumentazioaren zerbitzuak arautzen ditu, baina ez du ezer ere aipatzen gazteentzako informazio-puntuak; uztailaren 20ko 211/1993 Dekretuak, ordea, bi figura horiek erregulatzen ditu).</p>	<p>Onartu egiten da. Arau sektorialen eduki substantziala indarrean mantentzea erabakienez gero, 24. artikuluan gazteentzako informazio-puntuak jaso dira.</p>
<p>21. artikulua («Gazteei zuzendutako jarduerak») 2., 3., 4. eta 5. zenbakiak kentzea proposatzen da eta, 1. zenbakian ezarritako edukiarekin uztea artikulua («Gazteei zuzendutako jarduerak lege honetako [...]»).</p>	<p>Partzialki onartzen da.</p>

<p>23. artikulurako («Gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduen aitortzea») honako idazketa hau proposatzen da:</p> <p>«1.- Titulartasun publikoko zein pribatuko zerbitzu edo ekipamendu batek gazteentzako zerbitzu edo ekipamendu gisa aitortua izan nahi badu Gazteriaren Euskal Sisteman sartze aldera, eskaera aurkeztu beharko dio organo eskudunari, eta, gainera, indarrean dagoen araudi sektorialaren arabera aplikagarriak zaizkion lizentziak, baimenak, komunikazioak edo jakinarazpenak eskuratu beharko ditu aldez aurretik.</p> <p>2.- Gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak diseinatzean, aintzat hartuko da gizonak eta emakumeek premia desberdinak dituztela, eta, hala badagokio, diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak desagerrarazten lagunduko da».</p>	<p>Onartu egiten da. Proposatu den testu berria txertatu da, edukia soiltzen baitu.</p>
<p>24. artikulua («Gazte Informazio eta Dokumentazioaren zerbitzuak») erabat kentzea proposatzen dugu, eta puntu horretatik aurrera, Legearen artikulua berriz zerbakitzea.</p>	<p>Nahiz eta Gazte Informazio eta Dokumentazioaren zerbitzuak euren eginkizunak berriz definitzen ari diren, eta teknologia berrien erabilerara egokitzen ari badira ere, horrek ez du justifikatzen Gazteriaren Euskal Legetik kentzea.</p>
<p>25. artikularen («Haur- eta gazte- taldeentzako egonaldietarako aterpetxe eta instalazioak») 2., 3., 4. eta 5. zenbakiak kentzea proposatzen da; honetara geratuko litzateke artikulua: «Gazte-aterpetxetzat hartuko da gune edo dependentzia finko bat, urtaroka edo etengabe ostaturako erabiltzen dena, haur- eta gazte-taldeek bertan gutxienez gau bat eta inoiz ez jarraian hilabete baino gehiago igarotzeko bertan, aisialdi zein kultur jarduerak burutzeko, edo aisialdi, laguntza edo eskolako prestakuntza osatzeko jardueretarako erabiliz. Kasu jakin batzuetan, beste pertsona eta talde batzuek ere erabil ditzakete iragaitzaz, egonaldiak egiteko edo jardueraren bat egiteko»; horrenbestez, iradokizun horrekin ez litzateke beharrezkoa izango artikulua zerbakietan banatzea.</p>	<p>Partzialki onartzen da.</p>
<p>Proposatzen da 26. artikularen («Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak») eduki bakarra horien definizioa izatea: «Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak izango dira aisialdiaren esparruko titulazio ofiziala lortzeko prestakuntza-ikastaro ofizialak garatzeko aitortpena duten erakundeak. Aitortpen ofizialerako, horretarako emandako araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte»; honenbestez, artikulua horren 1., 2. eta 3. zenbakiak kentzea iradokitzen dugu.</p>	<p>Partzialki onartzen da.</p>

<p>29. artikuluari («Txartelak egitea») dagokionez, izena aldatzea eta «Identifikazio-sistemak» deitzea egokitzat jotzen da; gainera, 1., 2. eta 4. zenbakiak honetara idaztea proposatzen da: «1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteriaren arloko eskumena duen sailak, gazteen artean abantaila jakin batzuk sustatze aldera –ondasunetarako, programetarako eta zerbitzuetarako irispidearekin zerikusia dutenak–, nazioarteko edo lurraldeaz gaindiko identifikazio fisiko edo birtualerako mekanismoak garatuko ditu; besteak beste, kultura-, kirol-, olgeta-, kontsumo- eta garraio-zerbitzuak gazteen eskura ipintzeko. Txartel horiek ez dute ezertan eragotziko beste erakunde edo entitate batzuek beren lurralde-eremuetan beste txartel batzuk egitea.</p> <p>2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteriaren arloko eskumena duen sailak baimentzen dituen pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuek garatuko dituzte gazteentzako nazioarteko edo lurraldeaz gaindiko identifikazio mekanismoak.</p> <p>(...)</p> <p>4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa izango da, administrazio horretan gazteriaren arloko eskumena duen sailaren bidez, baliozko solaskide bakarra nazioarteko edo lurraldeaz gaindiko identifikazio fisiko edo birtualerako mekanismoen bidez edo antzeko ondorioak dituzten beste tresna batzuen bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan eta handik kanpo gazteentzako abantailak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuekin aritzeko, eta berak ezarri ahal izango ditu egokiak diren formula juridikoak horien kudeaketa eta sustapena optimizatzeko».</p>	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>47.6 artikuluan, «gazte-txartelei dagokienez» egindako ez-betetzeak arau-hauste arin gisa erregulatzen dira; honako idazketa hau proposatzen da horretarako:</p> <p>«6.- Gazteentzako identifikazio fisiko edo birtualerako mekanismoei dagokienez:</p> <p>a) Pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuek ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin hartutako konpromisoak.</p> <p>b) Entitate aitortuek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutako gazteentzako identifikazio fisiko edo birtualerako mekanismo ematea, halakoak egiteari buruzko araudiari men egin gabe.</p> <p>c) Gazteentzako ondasun, programa eta zerbitzuetara irispidea izateko identifikazio fisiko edo birtualerako mekanismoak edo abantaila horiek sustatzeko beste edozein tresna iruzur eginez erabiltzea».</p>	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>48.2.b artikuluari («Arau-hauste astunak») dagokionez, derrigorrean adierazi behar da «kanpoko» (gaztelaniaz, «aire libre») terminoa ez dagoela definituta Legearen zirriborroan, ezta araudi sektorialean ere. Hori dela-eta, egokiagotzat jotzen dugu «aisialdiko» jarduerak aipatzea, Legean bertan araututa baitaude. Horregatik, bada, testu hau proposatzen dugu:</p> <p>«b) Aisialdiko jarduerak –Lege honetan araututakoak– burutzea, administrazio eskudunari eskatzen den informazioa jarduera hasi aurretik komunikatu gabe edo, beharrezkoa izanik, dagokion aitortzea eskuratu gabe».</p>	<p>Onartu egiten da.</p>

Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazio eta ekarpenen txostena, 2019ko maiatzaren 30ekoa

BFaren alegazio eta ekarpenak	Erantzuna
<p>Legearen zirriborroa bi legetan banakatzeko egokitasuna: Gazteriaren Euskal Legea eta beste lege bat, jarduera, zerbitzu eta ekipamendu sozial eta hezkuntzakoei buruzkoa.</p>	<p>Ez da onartzen.</p> <p>Gazte-politika Euskadin oraindik arautzeke dagoen eskumen eskusiboa denez gero, badirudi egokiagoa dela, oraingoz, dena batera arautzea. Horri dagokionez, orain arte Euskadin izan dugun esperientzia bildu eta sistematizatu egiten da; hala, hasiera batean ezein zerbitzu edo ekipamendu berririk gabe sustatzen da politika hori gauzatzeko prozesua, etorkizunari begira.</p> <p>Horri gagozkiola, gogorarazi beharrekoa da gaur egungo araudi-laburpen osoa «sakabanatuta dagoela eta ez duela egitura sistematiko egokirik. Horregatik, lege honen bidez, legeria hori guztia antolatuko da» (Zioen azalpena). Horrenbestez, gazteriaren lehenengo lege batek izango lukeen helburu horren kontra joango litzateke bi lege sortzea.</p> <p>Aurrerago, eta behin lehengo legea onetsita dagoela, esparruen arabera eguneratzeko aukera egongo litzateke, sor litezkeen premiei jarraikiz, betiere egokitzat joz gero, beste sektore batzuetan egin ohi den bezala.</p>
<p>Zioen azalpeneko helburuak: Autonomia eta emantzipazioa erraztea. Zerbitzuetan eta ekipamenduetan koordinatuta lan egingo dela bermatzea. Sarbidean aukeraberdintasuna bermatzea.</p> <p>Artikuluetan, badirudi araudi-ahalegina gizarte- eta hezkuntza-esparrura eta aisialdi-esparrura bideratzen eta/edo ia eskusiboki horietara mugatzen dela.</p>	<p>Proposaturiko aurreproiektuaren artikuluetan, orobat, hiru esparru horiek biltzen dira: Gazteriaren arloko zeharkako politika sustatzeko tresnak eta neurriak, emantzipazioaren aldekoak (15. eta 20. artikulua); espeziifikoki gazteei zuzendutako jarduerak eta ekipamenduak (21. eta 29. artikulua); eta gazteen partaidetza sustatzeko neurriak (III. titulu osoa).</p>
<p>5. orrialdeko hirugarren paragrafoan Gazteriaren Euskal Sistema sortzea aipatzen da. Ulertzen dugu Gazteriaren Euskal Sistema sortzeari dagokionez egokia izango litzatekeela Katalogoak jaso beharko litzatekeen zerbitzu zehatzak finkatzea, eta geroago, horien inpaktu ekonomikoa, administratiboa eta soziala baloratu ondoren, zehaztea zein izango litzatekeen horiek antolatzeko formularik egokiena. Kontuan izan behar dugu sistemak, oro har, eskubide subjektibo jakin batzuen aitortpena dakartela eurekin, baita eskubide horiek betetzera bideratutako zerbitzu batzuen finkapena ere. Halako kasua da, esate baterako, hezkuntza-sistema, sistema soziosanitarioa, enplegu-sistema, etab.</p> <p>Gazte-politiken kasuan, zera planteatzen da, kondizio jakin batzuk sortzea faboratu behar dutela politika publikoek, emantzipazioa lortzea eta berezko bizi-proiektuak garatzea erraztuko duten kondizioak, hain zuzen. Sustapenerako gazte-politiken bitartez egin daiteke hori, diskriminazio positiboan babestuta, baita eskubide subjektiboak gauzatzean oinarritutako laguntza-izaerako politiken bitartez ere. Ordenazio-formularik hoberena finkatzeak zehazki jakin gabe zer zerbitzuk osatzen duten zerbitzuen katalogoa, asko oztopatzen du Gazteriaren Euskal Sistema sortzeko aukerarik onena aukeratzea.</p>	<p>13. artikulua berak Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa definitzen du: EAEko administrazio publikoek egiten dituzten jardunak identifikatzeko balio duen tresna; hots, identifikazio-tresna bat da, eta ez du zertan ekarri berekin ezein eskubide subjektibo bermatzen duen ezein prestazio-betebehar.</p>

<p>Gaur egungo gizarteak bizi duen aldaketa bizkor eta etengabea kontuan izanik (hein handi batean, IKTen ezarpenaren eta erabilera masiboaren ondorioz, bereziki, gazteei dagokienez), gerta liteke zerbitzuak katalogo batean zehaztuta izateak eragitea denbora-tarte txiki batean zerbitzu horiek jada ez izatea gai kolektibo horren benetako eta garaian garaiko premiei erantzuteko.</p>	<p>Ados gaude. Katalogoak ez du prestaziorik arautzen, baizik eta izaera informatiboa du eta, honenbestez, eguneratu egin daiteke proposamenaren zentzuan.</p>
<p>Ez gaude ados Legea 12-30 urteko pertsonen zuzenduta egotearekin, lege-proiektuaren eraginpeko adin-tarteei buruzko nahasmendua sortzen baitu. 2. artikuluan c) letran 12-30 urteko tartea ezartzen da erreferentziazko adin gisa. Proposatzen dugu gaur egun EAEko erakunde guztiek adostu eta aitortutako adin-tartea arautzea: 16-29 urte, biak barne.</p>	<p>2. artikuluan c) letran aipatu egiten dira 3. artikuluan bildutako zehaztapenak; 3. artikuluan, hala, zehazten da gazteria sustatzeko neurriak eta tresnak 12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta daudela, biak barne. Gazteriaren arloko zeharkako politika bultzatzeko adin-tartea 18 eta 30 urte bitartekoa da.</p> <p>Hortik aurrera, programa edo jarduketa bakoitzak bere tarte propioak zehaztu beharko ditu; izan ere, ikerketa batzuek beste adin-tarte batzuk barne hartzen dituzte, hala nola proposatutakoa, hots, 16 eta 29 urte bitartekoa.</p>
<p>Adinaren arazoarekin jarraituz, 3. artikuluan 3., 4. eta 5. zenbakiak nahasgarriak dira, gazteriaren kontzeptua zedarrizterakoan.</p> <p>Esaterako, 3. zenbakian adierazten da erreferentziazko adin-tartea 18 eta 30 urteko bitartekoa izango dela gazteriaren arloko zeharkako politika bultzatzeari dagokionez. Ez da kontuan hartzen esparru horretan 15-29 urteko adin-tartea hartzen dela barnean gaur egunean, nola Eusko Jaurlaritzak sustaturiko estrategietan hala Foru Aldundiek eta udalek sustatutakoetan. Gainera, 15-29 urteko tartea da erreferentziazkoa Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerlanetarako, baita Europako gazteria-adierazleen sistemarako baliatutakoa ere.</p> <p>Adin-tarte hori ezartzeak esan nahiko luke erakunde-plan guztietan bildutako estrategia eta ekintza denak berregokitu egin beharko liritekeela, Europako esparruan informazioa kudeatzeko arazoak eragiteaz gain.</p>	<p>Euskal administrazio publikoek gauzaturiko estrategiek, oro har, honako hauek hartzen dituzte barne: batetik, gazteriaren alorreko zeharkako politikaren sustapena, politika hori 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoela eta bereziki enplegua eta etxebizitza eskuratzea errazteko jarduketak eta prestakuntza-arloa biltzen dituela; eta bestetik, gazteria sustatzeko programa, zerbitzu eta ekipamenduak, 12 urtetik gorako gazteei zuzenduak.</p> <p>Ikerlanen eta adierazleen arazoa beste gai bat da, eta oso bestelako adin-tarteak izaten dituzte eskuarki, ikerlan bakoitzaren interesen eta helburuen arabera.</p>
<p>Analizatzen jarraitzen badugu, ikusten dugu artikulua horren laugarren zenbakian 12-30 urte finkatzen dela erreferentziazko adin-tarte gisa, 2. artikuluan definituriko gazteriaren sustapenari dagokionez; hori dela-eta, ematen du gazteria sustatzeko neurriak eta tresnak ez direla zeharkako politikaren parte eta gazteriaren alorreko estrategia orokor batetik bereizitako esparru bateko ekintza gisa aurkezten direla.</p>	<p>Gazte-politikaren kontzeptuan bi hauek hartzen dira barne: batetik, gazteriaren alorreko zeharkako politika, gazteen autonomia eta emantzipazioa faboratzen dituen (bereziki bi alorretan: enplegua eta etxebizitza eskuratzea; eta prestakuntza); bestetik, gazteriaren sustapena, sektorialki gauzatzen dena, zehazki haurrei eta gazteei zuzendutako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskainita. Horrenbestez, gazteriaren alorreko zeharkako politika bereizi egiten da gazteriaren sustapenaren eta beste esparru eta sektore batzuen arteko koordinaziotik eta sinergia-bilaketatik.</p>



<p>Artikulu horren 5. zenbakia irakurtzen jarraitzen badugu, testua izugarri nahasgarria dela ikusten dugu: Legea adingabe guztiei aplikatuko zaiela ipintzen du, hau da, 0-17 urteko pertsoneri, aisialdiaren erabilerari eta haur-sustapenaren eremuari dagokienez.</p>	<p>Ez da nahasgarritzat jo behar; egia esan, aisialdiaren erabileraren eta haur-sustapenaren eremuaren zehaztapen bat baino ez da, orain arte egin den bezalaxe, adibidez, ekainaren 25eko 170/1985 Dekretua aplikatuz; neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen erregimena arautzen da dekretu horren bidez.</p>
<p>2. artikuluan –«Definizioak» izenekoan– «haur-sustapena» eta «aisialdia» kontzeptuak ere definitu egin beharko lirateke.</p>	<p>2. artikulua a) letraren bigarren zenbakian «gazteriaren sustapena» enuntziatua «haurren eta gazteen sustapena» enuntziatuarengatik aldatzen da. Bestalde, «aisialdia» jada biztanleriaren sektore guztietarako orokorrean definituta dagoen kontzeptu soziologikoa da.</p>
<p>Onartu egin behar da zirriborro berriak ahalegin handiagoa egin duela foru-administrazioei dagozkien eginkizunak zehazteko. Hala eta guztiz ere, ez dugu uste kontuan izan direnik BFAk gaur egun egiten dituen jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eskura daude horiek, eskatuz gero.</p>	<p>Foru-aldundiek egiten dituzten jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak kontuan hartu direla deritzogu, Lurralde Historikoen Legearen arabera araututakoaren arabera. Zehaztasuna falta da.</p>
<p>6., 7., 8. eta 9. artikuluek ere zalantzak sortzen dituzte, baita desadostasunak ere Foru Aldundiek izango duten rol txiki-txikiari dagokionez. Bestalde, artikulu horiek luzeegiak dira eta gure ustez, gomendagarria izango litzateke artikulu gehiagotan banakatzea, arauak emateko teknika onaren arabera (zuzeneko ekintza aparteko artikulu batean jaso daiteke).</p>	<p>Foru Aldundien rola Lurralde Historikoen Legeak araututakoaren arabera dela deritzogu. Zehaztasuna falta da.</p>

Bereziki gatazkatsua da, gure ustez, 7. artikulua e) letra (1.-5. puntuak), eskumenei dagokionez. Horien barnean, BFAk izan dituen eginkizunetan eragin handiena izan dutenetako batzuk 2. eta 5. zenbakian bildutakoak dira; izan ere, bat dato 8. artikulua eta haren h) letraren idazpuruarekin.

Foru Aldundiek egin izan dituzten eskumenetako batzuk gauzatzean «zuzeneko ekintzarako» eskumena izango badu Eusko Jaurlaritzak, begien bistakoa da Foru Aldundiek modu normalizatuan gauzatu izan dituzten eginkizunen eskumena galduko dutela. Idazketa horren arabera, gazteentzako plaza-trukearekin, gazteen ostatuarekin eta aterpetxeekin zerikusia duten jarduerak edota gazteentzako programak antolatze edo diruz laguntzeko eskumena ukatu egiten zaie Foru Aldundiei horien eskumenak euren lurralde historikoaren eremua gainditzen badu. Halaxe egiaztatzen da 8. artikuluan, foru-administrazioei buruzkoan: «... **kasuan kasuko lurralde-eremuaren barruan**». 8. artikulua h) letra: «Diru-laguntzak ematea berariaz lurralde historikoko gazteentzat diren jardunak **lurralde-eremuan** garatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuei».

Horrenbestez, Legea ez da mugatzen gaur egungo eginkizun-banaketa laburtzera, jasota dagoen bezala; horren orde, BFAk duela urte batzuek geroztik antolatzen dituen jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak zedarritzen ditu eta, horregatik, lurralde-mugaketa horiek birpentsatzea proposatzen dugu.

Lege honekin ulertzen bada 7. artikulua e) letran bildutako zuzeneko ekintzako eginkizunak «interes orokorrekoak» direla eta «tratamendu bateratua» eman behar zaiela, lurralde historikoen lurralde-eremua gainditzen dutelako, seinatu behar da lurralde historikoak aspalditik garatzen dituztela eginkizun horiek erabateko normaltasunez eta emaitza arrakastatsuekin.

Begien bistakoa da Legea oso berandu iritsiko dela eta errealitate instituzional jakin bat topatuko duela; izan ere, Legeak kontuan izan beharko litzuke gaur egun jada gauzatzen ari diren zenbait eginkizun, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazi zuen bezala.

7. artikulua e) letrak zentralizatu egiten ditu betidanik Lurralde Historikoek gauzatu izan dituzten jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak.

Foru Aldundiek betearazteko eskumenak baino ez badituzte ere, eskumen horiek nabarmen murrizten ditu Legearen idazketa berriak, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak beretzat hartzen duen zuzeneko ekintzari dagokionez.

Izan ere, paradoxikoa da: zirkulazio askearen, kokatzeko askatasunaren eta zerbitzuak emateko askatasunean inspiratuta dago Europar Batasunaren zuzenbidea eta, hori gorabehera, Legearen 7. artikulua Eusko Jaurlaritzarentzat monopolizatzen ditu orain arte BFAk Bizkaiko gazteentzat gauzatu izan dituen jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak betearazteko eskumenak.

Eskumen hori bere buruari esleitzeko, lurralde-mugaketaren irizpidea baliatzen du, hain zuzen ere, gazteen mugikortasuna inoiz baino handiagoa den garai batean. Ulertzen dugu eskumen-banaketarako lurralde-irizpidea zaharkituta dagoela, errealitatek urruntzen baita; horregatik, kendu egin beharko litzatekeela deritzogu, izugarri murriztailea delako.

Lurralde Historikoek betearazteko duten eskumenak barne har ditzake eta barne hartu behar ditu, baita ere, gazteriaren arloko sustapen-eginkizunak, gazteen garapen pertsonala Lurralde Historikoaz haraindi ailega dadin.

Horrez gainera, ezin dugu ahaztu gazte-politikaren eskumena zeharkako eskumena dela eta Foru Aldundiei dagokiela hura betearaztea, baina aldi berean, Foru Aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta udalerrien beste eskumen batzuekin batera gertatzen dela eta Legearen zirriborroak berak hori aitortzen duela.

Foru Aldundiek haur- eta gazte-politikari buruz duten eskumen-esparrua Lurralde Historikoen Legean zedarrituta dago jada, eta Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuak zorrotz betetzen duela hori («lurralde-eremuaren barruan»).

Bestalde, Gazteriaren Euskal Legearen egungo aurreproiektuan foru-administrazioen eginkizunei buruzko artikulua idazketa berri bat egin da eta, honenbestez, ez dagokio eduki horietan egungo aurreproiektuarekin bat ez datorren lege-aurreproiektu bati buruz Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egindako adierazpenak aipatzea.

Argitu behar da Eusko Jaurlaritzak «zuzeneko ekintza» gauzatzeko duen eskumenak ez duela ezabatzen Foru Aldundiek aitortuta dituzten eskumenetako ezein, ezta Foru Aldundiek euren eskumenei jarraikiz egin izan dituzten edo etorkizunean egin ditzaketan jarduera, zerbitzu edo ekipamenduetako ezein murriztu ere.

<p>Esate baterako, Foru Aldiek duela hainbat urtez geroztik hona gauzatu izan duten UDALEKUAK programa, egungo idazketarekin, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa izango litzateke eskusiboa.</p> <p>Europar Batasunaren Erasmus+ programaren barnean bildutako eta finantzatutako truke-programetan esku hartu izan du BFAk; izan ere, toki- eta eskualde-administrazioek halakoak bultzatzeko eta finantzatzeko lerroak barne hartzen dira programa horiek. Proposatutako idazketa aztertu ondoren, badirudi udalek ez luketela halako programetarako sarbiderik izango eta Europako jarraibideekin kontraesankortzat jo dezakegu hori.</p>	<p>Edozelan ere, kasuistika aztertu beharko litzateke, sailaren txosten juridikoa aztertu ondoren, Lurralde Historikoen Legea aplikatuz.</p>
<p>Bestalde, arazoak identifikatzen dira udalentsat gordetzen den eskumen-esparruaren inguruan, Udal Legea aplikatuz. Agidanez, proposaturiko idazketarekin, Foru Aldundien eskumen bakarra gazteentzako programak –foru-arloek sustatuak– koordinatzea izango litzateke.</p> <p>Bizkaian 112 udalerrri daude, gehienek 1.500 biztanle baino gutxiago dituzte eta, horrenbestez, ez dituzte ez behar adina langile ez behar adina diru esleituta dituzten lanak euren gain hartzeko. Horregatik, kontuan izan behar da duela zenbait legegintzaldiz geroztik Aldundi honek ekintza koordinatuko esparru batean egiten duela lan, eta mota guztietako gazte-politika eta -programatan errazago sartzea ahalbidetzen duen esparru batean, hain zuzen ere, udalerrriaren neurria alde batera utzita. Planteaturiko lege-idazketaren arabera, alderdi hori arriskuan egon liteke benetan.</p> <p>Aukera bat izan liteke bai Foru Aldundiek bai Udalek beharrezkotzat jotako politikak garatzeko aukera izatea, duten sustapen-gaitasunari jarraikiz.</p>	<p>Foru Aldundien rola –lege-aurreproiektuan bildutakoa– Lurralde Historikoen Legeak araututakoaren arabera dela deritzogu. Edozelan ere, kasuistika aztertu beharko litzateke, sailaren txosten juridikoa aztertu ondoren, Lurralde Historikoen Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea aplikatuz.</p>
<p>Foru Aldundiei hondar-eskumen bat ematen zaio eta ez dakigu oso ondo eskumen hori zertan datzan zehazki, Legearen 7. artikularen e) letrako 1., 2. eta 3. zenbakiek eta artikulua haren g), h), i), k) eta l) letrak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari ematen dizkion eskumenen zehaztasuna kontuan izanik.</p>	<p>Foru Aldundien rola –lege-aurreproiektuan bildutakoa– Lurralde Historikoen Legeak araututakoaren arabera dela deritzogu. Zehaztasuna falta da.</p>
<p>Sistema. Proposamenak ez ditu zehazten ez ekipamendu, programa eta zerbitzuak ez prestazio motak eta horiek eman behar dituzten langileen baldintzak, eta azpiegituren kondizioak ere ez ditu finkatzen; izan ere, horren guztiaren erregelamendu-garapena geroagorako uzten da, eta mugatu gabeko gune bat sortzen du horrek, eraginpeko administrazio publikoentzat segurtasun-falta juridiko eta ekonomikoa eragiten du horrek.</p> <p>Halaber, gazteentzako ekipamendu, programa eta zerbitzu espezifikoak aipatzen dira, eta funtsean, aisialdiaren esparrura mugatuta daudela ondorioztatzen da, gutxi batzuk baino ez direla geratzen aisialdi-esparru horretatik kanpo. Ikusi egin beharko litzateke lege-esparruan nola arautu eta/edo txertatuko liratekeen, eskusiboki gazteentzat ez diren baina zuzenean edo zeharka gazteei eragiten dieten ekipamendu, programa eta zerbitzuei aplikatzekoak zaizkien bermeak.</p> <p>Kontuan izanik gazte-politikak zeharkakoak eta diziplina anitzekoak direla, uste dugu Legeak lagungarria izan behar duela gazteria-alorrean koordinazio- eta sustapen-eskumenak dituzten organoak egokiro ahaldunduta egon daitezen eta behar adina erreminta izan ditzaten halako programa, proiektu eta zerbitzuak koordinatzeko, sustatzeko eta orientatzeko lan hori egiteko gai izate aldera eta gazteen bizi-kalitatearen hobekuntzan eta emantzipazioan eragin berezia izate aldera.</p>	<p>Egungo Gazteriaren Euskal Legearen egungo aurreproiektuak, aurrekoak ez bezala, zehaztu egiten ditu ekipamenduak, eta bere garaian Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordean onartu zen erakundearteko proposamenean oinarrituta dago zehaztutako hori. Halaber, programak eta zerbitzuak ere zehazten dira, egungo errealitatean funtsatuta.</p> <p>Prestazio motak eta horiek eman behar dituzten langileen baldintzak eta azpiegituren kondizioak, hain zuzen ere, dagokion erregelamendu-garapenerako – Erakundearteko Koordinazio Organon adostu behar denerako– uzten dira. Kontuan izan behar da lehenengo Gazteriaren Euskal Legea dela, beste hainbat esparrutako legeekin gertatzen ez den bezala, eta horrek zehaztutako-prozesu progresibo bat ekarriko du berekin, lehenengo Gazteriaren Euskal Legearen onespenerarekin hasiko den prozesu bat, hain zuzen ere, beste sektore batzuetan egin izan den bezala.</p>

<p>21. artikulua. Lehenengo zenbakiak legearen aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu gazteentzako jardueren barnean familia- eta eskola-izaera ez dutenak. Gure aburuz, komenigarria litzateke zehazkiago argitzea zer gertatuko den ikasketa-bidaiekin, kontuan izanik halakoetan irakasleak joan ohi direla ikasleekin eta beti ez direla eskola-egunetan egiten; izan ere, Gabonetako, Aste Santuko edo udako oportunitateak antolatzen dira ikasketa-bidaiak. Gauza bera gertatzen da truke-programekin. Nahikoa izango litzateke zehaztea mota horretako programak eskola-esparruaren barneko hartuko direla baldin eta ikastetxeek antolatzen badituzte, 21. artikulua aplikazio-esparrutik kanpo uzte aldera.</p> <p>Bestela, gerta liteke ikasleentzako irakasleentzako gaitasun sobera handia duten irakasleek ez betetzea 21. artikuluko bigarren zenbakian eskatutako betebeharrak: haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako zuzendariaren titulu ofiziala eta haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begiralearen titulu ofiziala edukitzea.</p>	<p>Onartu egin da:</p> <p>21. artikuluko lehenengo zenbakia aldatu egiten da: «(...) ez badu familia-izaerarik eta ez badu ikastetxe batek antolatzen».</p>
<p>Gauza bera gertatzen da 21. artikuluko laugarren zenbakiarekin.</p>	<p>Onartu egin da:</p> <p>21. artikuluko 4. zenbakia aldatu egiten da: «Gainera, 18 urtetik beherako 6 adingabe baino gehiagok parte hartzen badute jardueretan, baldin eta helburua modu antolatuan prestakuntza edo aisialdia bada, ez badira familia-izaerakoak eta ez badituzte ikastetxe batek antolatzen (...)».</p>
<p>28. artikulua. Gazteen prestakuntzaren arloko diplomak egitea.</p> <p>Lurralde Historikoen gazteen prestakuntzan duten betearazteko eskumenari uko egin gabe, 7. artikuluko e) letraren 3. zenbakian eta k) letran bildutakoa kontuan izanik (Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzako zerbitzuak zehazten dira zati horietan, eta «Gazteen prestakuntza eta gazteekin lotutako arloetan lan egiten duten pertsonen prestakuntza, eta lurraldeaz gaindiko diplomak egitea» aipatzen da hirugarren zenbakian), eta jakinda aisialdirako hezitzailearen eta aisialdiko jardueretako zuzendariaren tituluak direla lurraldeaz gaindiko tituluen artean lege-proiektuan zehazki aipatzen diren bakarrak, ez dugu ulertzen zer dela-eta agintzen zaizkien, 8. artikulua d) letran eta 26. artikulua hirugarren zenbakiko a) eta b) letratan, Foru Aldundiei aitortzeko, ikuskeraren eta kontrolaren administrazio-lanak, aisialdirako eskolei dagokienez eta ikastaro horiek gauzatzeari gagozkiola. Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzaren barnean hartzen badira, gure aburuz, Eusko Jaurlaritzak hartu beharko luke bere gain horrek guztiak dakarren guztiaren ardura.</p>	<p>Edozelan ere, kasuistika aztertu beharko litzateke, sailaren txosten juridikoa aztertu ondoren, Lurralde Historikoen Legea aplikatuz. Alabaina, bat dator 419/1994 Dekretuak araututakoarekin; azaroaren 2ko dekretu horrek, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdiko jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen du.</p>

<p>Aisialdirako hezitzailearen eta aisialdiko jardueretako zuzendariaren tituluei dagokienez, gure ustez ez du inolako zentzurik titulazio bikoitza mantentzea helburu bererako, gazteak bi erregulazio eta ibilbide desberdin egin beharra baitakar horrek; kontuan izanik enplegu-egiturek –gure kasuan, LANBIDEK– emandako profesionaltasun-ziurtagirik aitorten eta erregulazio komuna dutela Europako esparruan, Lanbide Heziketaren prestakuntza-ibilbideekin –eta, honenbestez, irakaskuntza arautuarekin– lotuta daudela, enplegu-sistematan izaera ofiziala dutela eta, halaber, esperientzia-aitorpenerako hautazko sistema bat garatzen dutela, titulu horien aldeko apustua egin behar dela uste dugu.</p> <p>Aitzitik, Espainiako estatuko autonomia-erkidegoetako gazteria-institutu eta -zuzendaritzek emandako diplomek –lege-aurreproiektuan bildutakoek– ez dute erregulazio komunik, ez daude aitortuta Europako esparruan, ez dute ahalbidetzen irakaskuntza arautuarekiko lotura, eta lanbide-jardunerako gaikuntzak Espainiako estatuaren barnean baino ez du baliozkotasuna; horrek desparekotasunak sortzen ditu autonomia-erkidegoetan, arautzen dituzten araudiaren arabera; aitzitik, Lanbidek emandako profesionaltasun-ziurtagirik bermea ematen die gazteentzako tituluei.</p> <p>Kontuan izan behar dugu prestakuntzak helburu zehatz bat duela: gazteari ezagutzak eta gaitasunak transmititzea eta gaikuntza ematea, lan-merkatuan balioa duten lanbideei –baita boluntariotzari ere– eta lanpostuei erantzuteko gai izan dadin; halaber, ez dugu ahaztu behar ezagutza eta gaitasun horiek lan-merkatuan baliozkotasuna eduki behar dutela, hezkuntza ez-formal edo informalearen –esperientziaren– bidez hartzeko modukoak izan behar dutela, eta etengabeko ikaskuntzarako programen barnean prestakuntza-ibilbide bat osatzea ahalbidetu behar dutela; horregatik guztiagatik, ez zaigu ez egokia ez koherentea iruditzen Europar Batasuneko estatu kide guztiek adostutakoari jarraikiz ezaugarri horiek betetzen ez dituzten titulazioetara bideratzea gazteak.</p> <p>Gure ustez, ez da batere zentzuzkoa helburu bererako bi sistema asimetriko mantentzea autonomia-erkidego berean, hori oso garestia baita kostuei, langileei, finantzaketari, logistikari eta abarri dagokienez.</p> <p>Hasiera eta bukaera izango duen eta Lege honen mende egongo ez den prozesu bat diseinatzea proposatzen dugu, erakunde prestatzaileentzat, profesionaltasun-ziurtagiriak egokitzeko, eta betiere egokitzapen hori sektorearekin eta eraginpeko administrazioekin adostutako epe baten barnean gauzatzea errazteko baliabideak bideratuta.</p>	<p>Gazte-politikak prestakuntza ez-formalaren esparruko boluntariotza-eskumena biltzen du: besteak beste, haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begiralearen diploma. Bereizi egin behar dira, batetik, gaitasun hori, eta bestetik, lanbide-heziketaren eta enplegurako prestakuntzaren gaitasunak eta profesionaltasun-ziurtagiriak, azken horiek ez baitira gazte-politikaren eskumenekoak. Hala eta guztiz ere, eta Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuan araututako prestakuntza ez-formala eta profesionaltasun-ziurtagiriak bateragarri egite aldera, protokolo bat sinatu zen Lanbiderekin. Hori guztia Gazteriaren Lurraldearteko Batzordearen 2012ko ekainaren 21eko akordioan oinarrituta dago, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, honen bidez hezurmamitu zen: Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzekoa. Horrenbestez, Agindu horren bidez ahalbidetzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan aitortutako haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko ikastetxeek –eskaintzen dituzten prestakuntza-moduluak aurreko paragrafoan adierazitako lanbide-ziurtagirien edukira egokitu ondoren– dagokien prestakuntza-eginkizuna gauzatzen jarraitu ahal izatea haur eta gazteen aisialdirako hezkuntzaren esparruko boluntarioen filosofiatik abiatuta, baina Europako esparru berrietara egokituago eta gainerako autonomia-erkidegoek araututako aisialdiko prestakuntzarekin pareagarria izanik.</p>
<p>Erakundearteko koordinazioa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea onetsi zenez geroztik, Politika Publikoen Euskal Kontseilua da, hain zuzen, hiru erakunde-mailentzako topagunea, eraginpean hartzen dituzten arau, programa, proiektu, plan edo politika publiko sektorialeiei buruz hitz egiteko; beraz, Kontseilu horren esparruan gauzatu beharko lirarteke erakundearteko –Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalerrien arteko– lankidetzak-erlazioak.</p>	<p>Aukera hori gauzatzeko, Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren erabakiari itxaron beharko zaio, HHABHZk horri buruz emandako erantzunaren arabera.</p>

<p>38.3 artikulua f) letrak ezartzen duenez, Erakundearteko Koordinazio Organoaren eginkizunetako bat Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoari buruzko nahitaezko txostena ematea da. Horrek berekin ekar lezake Foru Aldundi batu zerbitzu publiko jakin batzuk inposatzea, nahiz eta bestelako neurri batzuen bitartez behar bezala betetzen diren, antolakuntza-modua dela-eta. Zehazki, «Aterpetxe» deritzenei buruz ari gara; Arabaren kasuan ez bezala, ekimen pribatuarekin lankidetzan estaltzen da zerbitzu hori Bizkaian. Proposatzen dugu 38. artikulua 3. zenbakiko f) letraren euskarazko bertsioa bere horretan uztea eta gaztelaniazkoan, «del nivel de la administración pública» jarri ordez «de la administración pública» ipintzea.</p> <p>Ondorioz, aurreikusi egin beharko litzateke Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa Foru Aldundien bitartez estaltzeko aukera, Foru Aldundi bakoitzak egokitzat jotako moduan, bere burua antolatzeko ahalari jarraikiz, eta esleituta dituen eskumenak hobeki gauzatzeko aldera.</p>	<p>Beste erantzun batzuen ildo berean, nabarmendu egin behar da Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa dela, hain zuzen, EAeko administrazio publikoek egiten dituzten jardunak identifikatzeko balio duen tresna; hots, identifikazio-tresna bat da, eta ez du zertan ekarri berekin ezin prestazio-betebehar.</p>
<p>Bestalde, eta 38. artikulua jarriz, adierazi behar dugu ez gaudela ados artikulu horren laugarren zenbakian –Erakundearteko Koordinazio Organoetako kideei buruzkoan– bildutako betekizuna –organo horietako kidea izateko, arduradun gorenak edo diputatuak izatea edo, gutxienez, zuzendari-kategoria edukitzea– Foru Aldundiei bakarrik aplikatzearekin eta kategoria edo erantzukizun goren hori izateko betekizuna hori ez eskatzea ez Eusko Jaurlaritzako ordezkariari ez EUDELeko ordezkariari.</p> <p>Horrenbestez, Foru Aldundietako ordezkariarentzat ere malgutasuna eskatzen dugu, geure burua antolatzeko dugun eskumenari jarraikiz.</p>	<p>Partzialki onartzen da. Kategoria bera eskatzen zaie Foru Aldundietako ordezkariari eta Eusko Jaurlaritzakoei eta EUDELekoei.</p> <p>Bestalde, Foru Aldundiek euren burua antolatzeko duten eskumena jada aitortuta dago; erakunde bakoitzak izendatzen du, izan ere, gazteria-alorrean zuzeneko eskumena duen administrazio-organoan ardura handiena izango duen pertsona, edo hark eskuordetzen duen pertsona.</p>
<p>Bestalde, 13 pertsona agian gehiegi direla iruditzen zaigu, bilerak eraginkorrak eta baliagarriak izan daitezkeen. Ondorioz, organo hori sortzea beharrezkotzat joz gero, proposatzen dugu izaera politikoko koordinazio-organo bat ezartzea, jarduketa-esparru estrategikoa finka dezan; organo horrek, halaber, eraginkorrak eta baliagarriak izango lirakekeen beste organo batzuen laguntza jaso lezakete, beste organo horiek ez dutela zertan inolako mugarik izan kideek izan beharreko kategoriarik gagozkiola.</p>	<p>Indargabetzen den Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-esperientziari jarraikiz, organo horretako kideen kopurua 12ra jaisten da, behar bezain eraginkor eta baliagarritzat jotzen baita kopuru hori.</p> <p>Bestalde, erakundearteko koordinaziorako beste bide organiko eta funtzional batzuk sortzeko aukera ere kontuan hartzen da: mahaia, batzorde teknikoak, batzorde sektorialak, lan-taldeak, eta abar.</p>
<p>43. artikulua (Goi-ikuskaritza): goi-ikuskaritza zaintza-eskumena da eta ez dakar berekin Foru Aldundien esparruan eragina duen kontrol orokorra gauzatu beharrik. Egiaztatzeko edo fiskalizatzeko helburua du. Goi-ikuskaritza salbuespeneko da eta Administrazio Publikoen jarduketan multzoa hartu behar du barnean.</p> <p>Goi-ikuskaritzak ez ditu inolaz ere ordezkatu behar finkatuta dauden kontrol-mekanismo orokorrak. Konstituzio Auzitegiak berak seinalatzen duen bezala, goi-ikuskaritzaren eginkizunak araudi-betearazpenaren fiskalizazioari eta fiskalizazio horren ondoriozkoei dagozkie; beste modu batean esanda, kontrol hertsiki juridikoa da.</p> <p>Honenbestez, dago goi-ikuskaritzak araudia behar bezala betetzen ari ez dela adierazi behar du, besterik ez, eta organo eskudunei dagokie nabarmendutako zuzenketa egitea. Auzitegi Gorenaren 6/1982 Epaia hau ematen du aditzera: «gobernu-organo eskudunari anomaliaren berri emateko eskumena» dakar berekin goi-ikuskaritzak, «geroago organo horrek erremedia dezan atzemandako ez-betetzea, berezko eskuduntzen bitartez», eta ezarritako prozeduren bidez gauzatu behar da hori.</p> <p>Ondorioz, goi-ikuskaritzak ez du inolaz ere ekarri behar beste administrazioen jardueraren gaineko zaintzarik, ezta legearen bidez beste erakunde batzuei aitortutako eskumenen mugaketarik ere.</p> <p>Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak jada eman izan ditu horren gaineko epaiak, hala nola 192/2011 Irizpena eta horren aurreko 39/2003 eta 134/2010 Irizpenak.</p>	<p>Sailaren txosten juridikoa aztertu ondoren, goi-ikuskaritza indarreko araudiarekin bat datorrela irizten da.</p>



<p>Zehapen-araubidea. Ikuskapen- eta zehapen-eginkizunak behar bezain zehaztuta ez daudela uste dugu. Zerbitzuen zorroa eta ekipamendu, programa eta proiektuen katalogoa geroagoko dekretu baten bidez garatzea proposatzen da Legean. Horiak Legean zehaztu gabe egoteak eta horien erregulazioa etorkizuneko beste garai batera –erregelamendu-garapena egiten denera arte– atzeratzeak segurtasun juridikoarekin lotutako arazoak dakartza, zehapen-ahalmena gauzatzeari dagokionez.</p> <p>(...) Horrek esan nahi du legegileak lege-kategoriako araua eman beharko duela zehapen-ahalmena esleitzeko eta arau-hausteak eta horiekin loturiko zehapenak deskribatzeko (legezkotasun-printzipioa). Legeak gai izan behar du behar besteko ziurtasunez aurrerako zer arau-hauste egin daitezkeen eta arau-hauste horientatik zer zehazpen jarri behar diren, tipikotasun-printzipioa bete dadin.</p> <p>(...) Ondorioz, eskatzen da Legeak gehiago zehaztu dezan arau-hauste bakoitza, segurtasun juridikoaren printzipioaren mesedetan.</p> <p>(...) Horri dagokionez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak behin baino gehiagotan eman ditu epaiak; kasu baterako, ikus 156/2008 Irizpena eta sailaren txosten juridikoa.</p>	<p>Alderdi horri jada eman zaio erantzuna, sailaren txosten juridikoa aztertu ondoren, txosten horren ondorengo memoria osagarrian xehetasunez adierazita dagoen bezala, eta aurreproiektu-proposamenean aldaketak txertatu eta gero.</p>
<p>Bestalde, Legeak Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Udalei esleitzen dizkie zaintza- eta zehapen-eskumenak, baina ez dago arau bidez zehaztuta zaintzaren helburua zein den.</p>	<p>Alderdi horri jada eman zaio erantzuna, sailaren txosten juridikoa aztertu ondoren, txosten horren ondorengo memoria osagarrian xehetasunez adierazita dagoen bezala, eta aurreproiektu-proposamenean aldaketak txertatu eta gero.</p>
<p>Gainera, zaintza-lana egiteko giza baliabideei dagokienez, ez da adierazten zer baliabideren bitartez gauzatu beharko den eginkizun hori.</p> <p>Gaur egun, Bizkaiko Lurralde Historikoan, Lanpostu-zerrendan (LPZ) ez dago jasota gazteria-gaietako ikuskariaren lanpostua. Horretarako aurreikuspen ekonomikorik ere ez dago.</p> <p>Legearen sail-memoria ekonomikoak aitortzen du ez dela aurreikusi eta baieztatzen du ez duela berehalako gasturik ekarriko. Arazo horrekin ados ez gaudela esaten dugu; izan ere, memoria ekonomikoan aipatutako dekretuetako batzuek araudia egiaztatze eta/edo ikuskatzeko eginkizun batzuk ematen zizkieten Foru Aldundiei baina, halere, araudi horretan ez zen aurreikusten zehapenei eta arau-hausteei buruzko erregimenik egungo lege-zirriborroan bildutako sistemako betebeharrekin.</p>	<p>Hain zuzen ere, Foru Aldundiek jada badute esleituta ikuskapen-eginkizuna gazteentzako informazio-bulegoen, gazteentzako aterpetxeen, haur eta gazteen aisialdirako eskolen eta aisialdi-jardueren alorrean, esparru horiek arautzeko dagozkien dekretuei jarraikiz. Edonola ere, gehiago zehaztu beharko litzateke.</p>
<p>Aurreko paragrafoan adierazitakoa Udaletara estrapola daiteke.</p>	<p>Hemen ere gehiago zehaztu beharko litzateke.</p>

Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazioak eta ekarpenak, 2019ko maiatzaren 14koak

GFaren alegazio eta ekarpenak	Erantzuna
<p>Luzaroan itxaron dugu Gazteriaren Lege bat izateko (izan ere, laugarren izapidetze-saialdia da hau), baina Legea justifikatzeko Zioen Azalpenean anbizioa falta dela iruditu zaigu, bereiziki, eskubideak –ahal dela, haurren, nerabeen eta gazteen eskubide subjektiboak– segurtatzeko balio izateari dagokionez, eta baita haur, nerabe eta gazte guztientzako zerbitzuak bermatzeko oinarriak lurralde eta udalerrri guztietan sortzeari gagozkiola ere.</p> <p>Badirudi gaur egunean sakabanatuta dagoen eta egitura sistemiko egokirik ez duen gazteriaren alorreko legeria osoa antolatzea dela Legearen benetako helburua eta, horrenbestez, gazteen eskubideei bigarren mailako garrantzia baino ez diela ematen.</p>	<p>Gazteen eskubideak, herritar diren aldetik, jada jasota daude lege sektorialetan.</p>
<p>Zioen azalpenean bertan, eta artikuluetan geroago ere behin eta berriz errepikatzen den bezala, adierazten da «ikuspuntu kulturalista hutsa – aisialdian oinarritua– gainditu» behar dela, «gazte-planen bitartez bultzatu» diren moduan; hala, tradizionalki haurtzaroa eta gazteria sustatzeko politiken parte izan diren ikuspegietakako bat gutxiesten da, hezkuntza ez-formala, eta ikuspegietakako beste bati balioa ematen zaio, beste sistema batzuekiko zeharkakotasunari, hain zuzen. Uste dugu bi ikuspegi horiek haurtzaroaren eta gazteriaren sustapenaren bereizgarriak direla, hau da, sustapeneko ikuspegi sektorial propio bat dela, beste sistema edo sail batzuekiko zeharkakotasuna barne hartzen duena.</p>	<p>Irizten da hezkuntza ez-formala behar bezala baloratuta dagoela aurreproiektuaren artikuluetan (haurren eta gazteen sustapenaren definizioan, Gazteriaren Euskal Sistemaren jardun-arloetan, Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartzeko ildoetan, eta gazteen prestakuntzaren arloko diplomak egitean).</p> <p>Beste sistema eta sail batzuekiko zeharkakotasunari dagokionez, irizten da jasota dagoela bai zeharkako politika espezifiko bultzatzeari eta sailarteko eta erakundearteko koordinazioari buruzko zatietan.</p>
<p>Iruditzen zaigu haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gazteriaren sustapena izan beharko litzatekeela Legearen helburua.</p> <p>Horrez gain, Sustapen Legeak ikuspegi bikoitza izango luke: ikuspegi sektorial eta espezifiko bat, beste sektore edo sistema batzuekiko koordinazioaren eta lankidetzaren bidez garatzekoa.</p> <p>Beraz, haurrek, nerabeek eta gazteek politika publikoa eskatzen duen biztanle-kolektibo edo arreta-sektore bat osatzen dutela deritzogu eta, horrenbestez, berezko sistema bat behar dutela eta premia hori justifikatuta dagoela.</p> <p>Horren osagarri gisa, haurtzaroa eta gazteria sustatzeko politikak zeharkako izaera izan behar du edo, beste modu batean esanda, haurtzaro, nerabezaro eta gazteriako prozesuetan eragina duten politika sektorialek barne hartu behar dute haurraren, nerabearen eta gaztearen kondizioaren aldeko ikuspegia, baita ikuspegi hori aplikatu ere.</p>	<p>Haurtzaroaren eta gazteriaren sustapenak jada biltzen du, inplizituki, nerabezaroa; alabaina, horrela argitu egiten da gazteria-politika zehazterakoan edo Gazteriaren Euskal Sistemaren helburuak ezartzerakoan.</p>
<p>Printzipioei dagokienez, hiru gidari eta hamasei orokor daude; ez datoz bat Legearen hurrengo kapituluekin, ez kopuruan ez garapenean. Printzipio horiek, zerrendatzeaz gain, honako hauen bitartez islatu eta garatu beharko liriateke: zerbitzuen konfigurazioa; zerbitzuen lurralde-banaketa; administrazioek zerbitzu horiek abiarazi beharra; beharrezko baliabide teknikoak izatea; arreta emateko langile kualifikatuak egotea; azpiegitura egokiak; eta gaur egungoa baino aurrekontu-eskuragarritasun handiagoa.</p>	<p>Aurrekontu-garapenaren edukiak legea onetsi ondoren arautu beharrekoak dira.</p>

<p>Egokitzat jotzen dugu Gazteriaren Euskal Sistema bat garatzeko helburua izatea, baina sistema horren definizioan zer administrazioak osatzen duten jaso beharko litzateke, baita koordinazio- eta lankidetzakoak zein izango lirartekeen ere.</p> <p>Halaber, aprobetxatu egin beharko litzateke Lege berri bat sortzeak ematen digun aukera argi zehazteko zeintzuk izan behar duten Sistemaren jardun-ildoak eta zer zerbitzuren bidez emango zaien arreta, Zerbitzu Katalogoa zehaztuko duen geroagoko erregelamendu-garapena edozein dela eta.</p> <p>Existitzen diren ekipamenduak ezin dira finkatu zerbitzuen abiapuntu gisa, hartzaileak izango diren pertsonen arabera eman nahi zaien eginkizunak izan behar du abiapuntua. Sistemari buruz ari bagara, eskaini beharko diren zerbitzuak eta zerbitzu horiek eman beharko dituzten administrazioak zehatzeko aukera izan beharko luke Lege honek; zerbitzu horiek ematea derrigorrezkoa izanik, horien finantzaketa ere aurreikusi egin beharko litzateke. Orain arte erakunde guztietako gazteria-sailen parte izan diren «zerbitzu», jarduketa eta ekipamenduak aztertzeke balio beharko luke Lege honen sorkuntzak, baita horiek guztiak haurrek, nerabeek eta gazteek gaur egunean dituzten premietara egokitzeko aukera ebaluatzeke ere.</p> <p>Beharrezkoa izango litzateke zehaztea Sistema osatuko duten gainerako eragileak nor diren: haurrak, nerabeak, gazteak eta administrazioetatik kanpoko bestelako erakundeak.</p> <p>Behin zerbitzuak zehaztu direla, eta Gazteriaren Euskal Sistemaren Zerbitzu-katalogoa sortu aurreko gisa, zerbitzu bakoitzaren egiturazko zuzkidura finkatu beharko litzateke, ekipamendu zehatzekin eta lanbide-figurekin batera, horietako bakoitzak izan beharko lukeen kualifikazioaz eta etengabeko prestakuntzaz gain.</p> <p>Beste lege batzuetan argiago zehazten da zeintzuk izan behar duten erakunde-maila bakoitzean zerbitzuak artatzeko, kudeatzeko eta emateko funtsezko unitateak, esku hartzeko prozedurak, tresna tekniko komunak, langileak, horien langile-profilak, eta zehaztutako eskumenak garatzeko kudeaketa-egitura.</p>	<p>Erregelamendu-garapenaren xede da. Zehaztasuna falta da.</p>
<p>Bai eman beharreko zerbitzuak bai gauzatu beharreko esku-hartzeak hautazkoak dira administrazio bakoitzerako; horrek esan nahi du haurrek, nerabeek eta gazteek ezin dituztela zerbitzu horiek eskatu eta, horrenbestez, haur, nerabe eta gazteak ez direla eskubideen agente eta subjektutzat jotzen.</p>	<p>Gazteen eskubideak, herritar diren aldetik, jada jasota daude dagozkien lege sektorialetan.</p>
<p>Argitasun handiagoz jaso beharko lirarteke EAeko erakunde-esparru bakoitzak izan beharreko eskumenak eta eginkizunak. Zerbitzuak eskaintzerakoan bikoiztasunik egon ez dadin saiatu beharko litzateke eta, horrenbestez, erabaki egin beharko litzateke nori dagokion gauza bakoitza egitea, derrigortuta eta horretarako baliabideak bermatuta.</p>	<p>Zehaztasuna falta da.</p>

<p>Gazteriaren Euskal Sistemaren, Erakundearteko Koordinazio Organoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordearen –EAEko administrazioaren Gazteria Sailari atxikitakoaren– antolamendua eta gobernantza nola gauzatu behar diren jasota dagoen bezala, antolamendua eta gobernantza lurralde- eta toki-esparruan nola gauzatu beharko diren zehaztea falta dela deritzogu. Horretarako, administrazio eskudunen iritzia jakin beharko litzateke.</p> <p>Gaur egun, gobernantzaz hitz egitean, haur, nerabe eta gazteen iritzia kontuan hartu beharko litzateke, dela Legea sortzerakoan dela geroago sortuko den kudeaketa-sarean.</p> <p>Horretaz gain, lurralde- eta toki-politiken esparruan haur, nerabe eta gazteei ahotsa emateko sistemak aurreikusitakoak beharko lirateke.</p> <p>Alde batera utzita Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari ahotsa ematen ote zaion EAEko gazteria-politikari dagokionez, berrikuntza txertatu beharko litzateke, baita haur, nerabe eta gazteen ahalik eta partaidetza zuzenena faboratzeko lan egin ere.</p>	<p>Alderdi horiek zehaztea erakunde bakoitzaren eskumena da.</p>
<p>Egokitzat jotzen dugu kudeaketaren eta etengabeko hobekuntzaren kalitatea bermatuko duten neurriak zehaztea, beste lege batzuetan egin izan den bezalaxe, informazio-sistema bat sustatzearen, ikerketaren, ezagutza kudeatzearen eta ebaluazioaren bitartez.</p>	<p>Zehaztasuna falta da eta, hein batean, erregelamendu bidez gara daitezke.</p>
<p>Orobat, ez genuke galdu beharko langileen hasierako eta etengabeko prestakuntza hobetzeko eta horien lanbide-kualifikazioa finkatzeko neurriak antolatzeak.</p> <p>Berdintasun Legean egiten den bezala, «lanpostuak beteko dituen pertsonal teknikoaren esperientzia eta berriazko gaitasuna bermatzea euskal administrazio publikoei» dagokiela jaso beharko litzateke, eta horretarako, egokitzat jotzen dugu Legeak jasotzea EAEko unibertsitateek haurtzaroaren eta gazteriaren sustapenaren alorreko teknikarientzako prestakuntza espezializatua eman dezatela sustatu behar duela Autonomia Erkidegoko administrazioak.</p>	<p>Partzialki onartzen da: jaso egingo da euskal administrazio publikoek bermatu egin behar dutela lanpostuak izango dituzten teknikarien esperientzia eta gaitasuna espezifikoa izatea.</p> <p>Euskal unibertsitateekin lotutako proposamenari gagozkiola, zehaztapen hori ez da Lege batean sartu beharreko edukia.</p>

EUDELEN kontsiderazioak, bere Batzorde Betearazleak adostuak, 2019ko maiatzaren 6koak

EUDELEN kontsiderazioak	Erantzuna
<p>Eskumenak: «Toki-administrazioei» dagozkienak harrigarriak dira, kontuan izanik lehenengo atalean adierazten dela eginkizunak «berez, lege hau indarrean jarri aurretik ere betetzen» zituztela jada.</p> <p>Horri dagokionez, gogoraraztekoa da udalei esleitutako eginkizunak ezin hobeki zehaztuta geratu behar dutela etorkizuneko Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen (ETEL) 14. artikulua agintzen duen bezala, eta finantza-nahikotasunaren, herritarrekiko hurbiltasunaren eta subsidiaritatearen printzipioen arabera betearazi behar direla eginkizun horiek, eta hala badagokio, baita diferentziazioaren printzipioaren arabera ere (ETELen 14.5 artikulua).</p>	<p>Partzialki onartzen da.</p> <p>Aurreproiektuaren 9. artikulua a) letran zehazten den bezala, toki-esparruko eskumenak 2. eta 3. artikuluetan (gazte-politikaren definizioa eta aplikazio-eremua, hurrenez hurren) zehaztuta daude, eta euskal administrazio publiko bakoitzak dagokion lurralde-eremuan gauzatzen ditu eskumen horiek.</p> <p>Nolanahi ere, eta gehiago zehaztu gabe, aurreproiektuaren 9. artikulua a) letra horretan 13. artikulua («Gazteriarren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa») erreferentzia bat sartzen da; gogorazi beharrekoa da katalogo hori dela euskal administrazio publikoek ematen dituzten jarduketak identifikatzeko erreminta dela eta, horrenbestez, izaera informatibo hutsa duenez, ez duela eskumen edo jarduketa berriak eskatzen dituen inolako betebeharririk eragiten.</p> <p>13. artikulua horretan seinalatutako jarduketaren artean, udaletan egin izan direnak daude, zehazki, «gazteentzako topaguneak eta gazteei jarduera soziokulturalak eta baliabideak eskaintzeko guneak» (hala nola gaztelekuak, gaztegunak eta antzekoak), eta «gazteentzako informazioa, dokumentazioa, orientabidea eta aholkularitza» (adibidez, gazteentzako informazio-bulegoak eta -puntuak, baita «gazte-informaziorako formatu digitaleko zerbitzu publikoak» ere, Bilboko Udalaren kasuan bezala).</p> <p>Bestalde, udal askok «gazte-politikaren sustapena eta koordinazioa» gauzatzeko lanak ere egin izan dituzte, tokiko edo eskualdeko gazte-planen bitartez edo zeharkako politika bultzatzeko antzeko beste erreminta batzuk direla medio.</p> <p>Bestalde, azpimarratzekoa da 14. artikuluan («gazte-politiken arloko profesionalak») bildutako edukia erregelamendu bidez garatu beharrekoa dela eta, horrenbestez, bere garaian helduko zaiola, hala badagokio.</p> <p>Laburbilduz, aurreproiektuaren eranskinean adierazten den bezalaxe, «lege hau onartzeak ez du berekin ekarriko jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berriak sortzea, lehendik daudenak sistematizatzen eta egituratzen baitira».</p>
<p>Lege-aurreproiektuaren 7. artikulua a) letran jasota dagoen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak «gazte-politikak ebaluatu behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, bai eta lege honen eta berau garatzen duten beste arau batzuen betetze-maila ere».</p> <p>Horri dagokionez, EAEko administrazioak ezin du beretzat hartu alor horretako araudiaren betearazpenaren bermatzaile izateko eskumena.</p>	<p>Ez dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumen esklusiboak.</p>

<p>7. artikulua k) letran EAEko administrazioari ematen zaio «entitate publiko» deritzenak ikuskatzeko ahalmena. Bertan, zehaztu egin behar da ahalmen hori EAEko administrazioaren mendeko zerbitzuetara mugatuta dagoela, 8. eta 9. artikuluek xedatzen dute foru-administrazioei eta toki-administrazioei dagokiela «gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak ikuskatzea eta kontrolatzea», hurrenez hurren.</p>	<p>Ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumen eksklusiboa, eta halaxe zehazten da proiektuaren 42. artikuluan: “1.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, ikuskaritza-ahal administratiboa erabiltzea, eta, horrekin, gazteen arloko lege-xedapenak betetzen direla zaindu, kontrolatu eta egiaztatuko da”.</p>
<p>Lege-zirriborroan diseinatuta dagoen Gazteriaren Euskal Sistemak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak finkaturiko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antzekoa izaten saiatu nahi du, baina desberdintasun handi bat dago bi sistema horien artean: gizarte-zerbitzuen sistemak bermatu egiten die pertsonen Legean bertan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako katalogoaren barneko zerbitzuetara sartzeko eskubide subjektiboa. GES deritzonak ez ditu eskubide subjektiboak bermatzen eta, honenbestez, ez da egokia etorkizuneko Legea sistema baten gainean egituratzea.</p>	<p>Edozein sistemak ez du zertan, definizioz, eskubide subjektiboak bermatu. Gazteriaren Euskal Sistemaren helburua zera da, gazteria-politikan eragina duen guztia biltzea, hala nola emantzipazioa, gazte-kondizioaren sustapena, eta gazteen partaidetza. Zenbait alderditan beste sistema batzuekin alderatu daiteke, hala nola Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin; esate baterako, hark ere kontuan hartzen ditu lagundu dezaketen toki-administrazioen, lurralde-administrazioen edo bestelako entitate edo erakundeen eskumenak.</p>
<p>Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa (13. artikulua): Azpimarratzekoa da xehetasun handiagoa behar dela horren inguruan, eta udalei esleitutako eskumenak Legearen testuan zehaztu beharko lirakeela (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen edo ETELen 18. artikulua); gainera, udalen finantza-nahikotasuna bermatzeko beharko lirakeen baliabideak ere bildu behar ditu Legeak eranskin espezifiko batean (ETELen 18.3 artikulua).</p>	<p>13. artikulua berak Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa definitzen du: EAEko administrazio publikoek egiten dituzten jardunak identifikatzeko balio duen tresna; hots, egiten diren jardunen identifikazio-tresna bat da eta, honenbestez, ez du eskumen berririk esleitzen.</p>
<p>Gazteriaren arloko Euskal Estrategia Horri buruz, eta aurreko paragrafoa adierazitakoa kontuan izanik, egungo 19. eta 20. artikuluen garapenaren bitartez udalek aukera izan beharko lukete berezko jarduketa-programak garatzeko, egokitzat joz gero, euren burua antolatzeke duten gaitasunari jarraikiz, programa horietan ebaluazio-formulak ezarrita, eta formula horiek ez daudela ezein arau-garapen autonomikoren bidez ezarrita.</p>	<p>19. eta 20. artikuluetan zehazten den gauza bakarra zera da, erakunde bakoitzak plangintza eta ebaluazio egoki eta koordinatuak gauzatu behar dituela bere lurralde-eremuan; hortik aurrera, nahi duten erakundeek euren jarduketa-programa propioak garatzeko aukera izango dute beren lurralde-eremuetan, ez baitago inolako mugarik horretarako.</p>
<p>Bigarren atalean, bestalde, zehazki gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu, ekipamendu, instalazio eta bestelakoak arautzen dira: Baliabideak gehiegi xehatzen dira atal horretan, erregelamendu arautzaile bati gehiago dagozkion betebeharrak material eta funtzionalak finkatzen baitira baliabide bakoitzerako. Hori dela-eta, proposatzen da Legearen testuak ezar ditzala tresna horien funtsezko alderdiak, eta horien xehetasuna erregelamendu-garapenaren esku utz dezala.</p>	<p>Onartu egiten da.</p>
<p>Testuaren 34. artikulua ekimen sozialarekin lankidetzan aritzeko formulak ezartzeko eskumena ematen die euskal administrazio publikoari, gazteentzako zerbitzuak, jarduerak eta ekipamenduak emate aldera. Horren ildotik, ez da beharrezkoa Lege honek horretarako ahalmena ematea toki-erakundeei; izan ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak (ETEL) jada aitortzen die ahalmen hori. Zehazki, 93. artikuluan xedatzen denez, tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak dagozkien toki-erakundeek zehaztuko dituzte, arautzeko eta euren burua antolatzeke dituzten botereei jarraikiz. Eta are bideragarritasun txikiagoa du, ETELen agindu horren arabera, EAEko administrazioak akordio horien ezarpenari aplikatu beharreko baldintzak eta betekizunak erregelamendu bidez finkatzeko aukera.</p>	<p>Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordearen Osoko Bilkurako apirilaren 5eko 6/2019 Txostenean egindako ekarpeni eman zaien erantzunaren ildo berean onartzen da.</p>

<p>Gazteriaren alorreko sailarteko koordinazio-organoa sortzen da Euskadin, euskal administrazio publikoek gazteria-politika integrala sustatuko dutela bermatzeko. 38.3 artikulua f) letran organo horrek izango dituen eginkizunak finkatzen dira, besteak beste, GESen zerbitzu-katalogoari buruzko nahitaezko txostena egitea; gainera, ezartzen da betebeharrak esleitzen zaizkion administrazio publikoak beto jartzeko aukera izango duela, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitakoaren antzera. Horri dagokionez, hirugarren kontsiderazioan zerbitzuen katalogoan aipaturikoa mahaigaineratu behar da.</p>	<p>Lehen ere adierazi dugun bezala, Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa egiten diren jardunen identifikazio-tresna bat da eta, honenbestez, lege-aurreproiektuak ez du eskumen berririk esleitzen.</p>
<p>38. artikulua 3. zenbakiaren d) letran barne hartzen da organo horren eginkizuna izango dela EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan egindako ekintzen betetze-mailari buruzko txostena ematea, nahiz eta fiskalizazio-rol hori ez dagokion organo horri.</p>	<p>Ez da fiskalizazio-lan bat, koordinazio-lan bat baizik.</p>
<p>Organoaren osaera ez da paritarioa, hamabi kide izango baititu, Eusko Jaurlaritzako sei kide, Foru Aldundietako hiru kide eta Udaletako hiru kide.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzako sei kidez eta Foru Aldundietako eta Udaletako beste sei kidez osatuta egongo da, antzeko beste arazo batzuetako erakundearteko koordinazio-organoekin gertatzen den bezala.</p>
<p>Aztertutik aurreproiektuan EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea organo horren saioetan gonbidatu gisa egongo dela ere bildu da. Erakundearteko organoa izango bada, ez da ulertzen zergatik txertatu den presentzia hori.</p>	<p>EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkaria ez da eskubide osoko kide bat, ez baitu izango botoa emateko eskubiderik; erakundearteko organo batean parte hartzeko aukera emango zaio, besterik gabe, euskal gazteen eta administrazioaren arteko solaskide gisa; hori zentzuzkoa da, batik bat, kontuan izanik «Euskadiko gazteen partaidetza- eta komunikazio-bideak zabaltzea» dela Gazteriaren Euskal Legearen helburuetako bat, Euskadiko Gaztediaren Kontseiluari buruzko maiatzaren 27ko 6/1986 Legearekin bat etorrira.</p>
<p>Testuan aurreikusi egiten da Goi-ikuskaritza sortuko duela EAEko administrazioak, gazteen eskubideak eta Legean jasotako printzipio orokorrak eraginkortasunez egikaritzen direla bermatzeko, bai eta aplikatu behar den ordenamendu juridikoa bete eta gordetzen dela bermatzeko ere.</p> <p>Erakunde hori Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean ere aurreikusita dago, baina ez du birtualtasunik etorkizuneko Gazteriaren Euskal Legean, ez baitu bermatzen zerbitzuetarako sarbidea izateko eskubide subjektiboa. Horrela, gazteek herritar gisa dituzten eskubideak babestu nahi ditu, baita ordenamendu juridikoa bete eta gordetzen dela bermatu ere, eginkizun hori berari ez badagokio ere, instantzia judizialari baizik.</p> <p>Horri buruz, eta erreferentzia gisa balio izan dezan, gizarte-zerbitzuetako Goi-ikuskaritzaren jarduketa nabarmen txikiagotu da, eta kontuan izanik gazteria-alorrean are izateko arrazoi gutxiago duela, testuaren azken bertsiotik kentzea proposatzen dugu.</p>	<p>Goi-ikuskaritza, definizioz, ez datza soili-soilik zerbitzuetarako sarbidea izateko eskubide subjektiboa bermatzean.</p> <p>Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 11. artikuluan zehazten da ikuskaritza gorenaren erregulazioa: «7garren ataleko c) lerroaldian esaten denez Kondaira-Lurraldeei dagozkien Eusko Jaurlaritzaren egiterapen-ekintzapideekiko goren-ikuskaritza, baita ahalmen hori Lege honetan berariaz aitortzen denetan ere, Eusko Legebiltzarraren Lege batek araupetuko du».</p>

Bilboko Udalaren alegazioak, 2019ko maiatzaren 10ekoak

Bilboko Udalaren alegazioak	Erantzuna
<p>2. artikulua.- Definizioak.</p> <p>Gazte-politikaren definizioa, a) letran bildua:</p> <p>Ez da ulertzen zer dela-eta bereizten diren, batetik, esklusiboki autonomia eta emantzipazioarekin lotutako gazteriaren arloko zeharkako politika (etxebizitza, prestakuntza eta enplegua, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planari jarraikiz) eta, bestetik, gazteriaren sustapena, kasu honetan, haurrei eta gazteei (0-30 urte) zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintzari buruzkoa, eta agidanez, aisialdi-esparruari dagokiona, aurreproiektuaren gainerako artikuluen arabera.</p> <p>Zeharkako ikuspegiak gazteria-politika guztietara zabaldua egon behar du (aurreproiektuaren 18. artikuluan hori ondoriozta daiteke), eta oinarrituta egon beharko luke, batetik, erakundeek benetako konpromisoa hartzean, eta bestetik, sektore anitzeko egiturak errealitate konplexuen arretara –dagokigun kasuan, nerabeei eta gazteei eman beharreko arretara– egokitzeko gaitasuna duten estrategiak eta erremintak –antolakuntzakoak eta kudeaketakoak– garatu nahi izatera.</p> <p>Zeharkako politika posible izan dadin eta, aurreproiektuaren 5. artikuluan c) letran ezarrita dagoen bezala, inolako bereizketarik egin ez dadin politika horretan, ezinbestekoa da esku-hartze publikoaren politika eta ekintza guztietan apurka-apurka ikuspegi gaztea sartzeko prozesuan aurrera egitea.</p> <p>Eta ez badagokio bereiztea gazteriaren arloko zeharkako politika eta gazteriaren sustapena, ez dagokio, ezta ere, adin-tartekako bereizketarik egitea, 3. artikuluan 3. eta 4. zenbakietan egiten den bezala; hala, Legeak bilduko dituen gazteria-politikak 13 urtetik (eta ez 12, adinari buruz hurrengo atalean argudiatzen den bezala) 30 urtera bitarteko gazteei zuzenduta egongo dira, alde batera utzi gabe arau-xedapen edo ekintza-lerro jakin batzuetan beste adin-muga batzuk zehazten direla.</p>	<p>18. artikuluan gazteen emantzipazioarekin eta autonomiarekin lotutako esku-hartze ildoak barne hartzen dira, lehentasunez, etxebizitzaren, prestakuntzaren eta enpleguaren arloetan, baina ez esklusiboki, bizi-kalitatearekin loturiko arloak ere biltzen baitira gazteen autonomiaren esparruaren barnean.</p> <p>Aitzitik, gazte-kondizioaren sustapena esparru sektorial espezifiko bat da, baina horrek ez du esan nahi ez dela beharrezkoa beste esparru, jarduketa, erakunde edo sistema batzuekin koordinatzea eta estrategia komunak finkatzea.</p> <p>Horrek guztiak, zeharkako politikak eta gazteriaren sustapenak, gazteria-politika integrala osatzen du, aurreproiektuaren 2. artikulua ageri diren definizioei jarraikiz.</p>
<p>Gaztearen definizioa, e) letran bildua:</p> <p>Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 2. artikuluan zehaztuta dago haurtzaroa izango dela pertsona jaiotzen denetik 12 urtera arteko aldia, eta nerabezaroa, berriz, 13 urtetik adin nagusira iritsi arteko aldia. Horregatik, eta araudi-koherenziari euste aldera, egokiagoa ematen du 13-30 urteko pertsonak gaztetzat jotzea eta kontzeptu horren barnean hartzea nerabeen eta gazteen taldeak, kontzeptu hori Europar Batasunaren esparruan erabili ohi den moduari jarraikiz.</p>	<p>Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legeak laguntza-izaera du, eta Gazteriaren Legeak, berriz, gazte-kondizioaren sustapena eta gazteen emantzipazioa ditu helburu.</p>
<p>3. artikulua.- Aplikazio-eremua.</p> <p>3. art., 1. zenbakia.- Pertsona edo entitate pribatuei buruz aldarrikatutako euspenari emandako idazketa irekiegia da eta segurtasun-gabeziako guneak – nahi ez direnak– eragin ditzake arau-xedapena aplikatzerakoan, bereziki, kontuan hartzen badugu 7. artikuluan g) eta h) letrek autonomia-erkidegoko administrazioarentzat gordetzen dituztela, batetik, gazteriaren alorrean zerbitzuak eman nahi ditueni eskatu beharreko gutxieneko baldintzak arautzeko eskumena eta bestetik, zerbitzuak eta ekipamenduak –13-30 urteko pertsoneni zuzendutako edozein zerbitzu eta ekipamendu?– antolatzeke eskumena; hala, araudi interbentzionista bat aurreratzen da eta, agian, araudi honek ekartzen ez duen lege-gaikuntza bat eskatzen du halako araudi batek.</p> <p>Desberdinak izango lirarteke entitate pribatuen erreferentzia mugatuta egongo balitz administrazioarekin kontratuak, hitzarmenak edo itunak sinatzen dituztenetara, eta betiere horien esparruan (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea). Kontsiderazio horiek 14. artikuluan gazteria-politiketako profesionalei buruz xedatutakora ere aplikatu behar dira.</p>	<p>Arauzko garapena egiteko egin behar den prozesuak erregulazio egokia bermatzen du.</p>

<p>3. art., 2. zenbakia.- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 1. artikuluan horri dagokionez adingabeei buruz ezarritakoa alde batera utzi gabe, administrazio publikoek aktibatzen dituzten jarduerak, programak eta zerbitzuak maiz zuzendu ohi dituzte dagokien lurralde-eremuko udalerriren batean errolatutako pertsonengana, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik. Dagokigun kasuan, inskripzioaren eraginpeko jarduerak, enplegu-planak, emantzipazio- eta etxebizitza-programak, sorkuntza babesteko programak, eta abar.</p>	<p>Gazteriaren Legearen helburua kontuan izanik (gazte-kondizioaren sustapena eta gazteen emantzipazioa), egokitzat jotzen da aurreproiektuan ezarritakoa, programa edo jarduketa bakoitzerako zehaztutakoaren kontura, egokitzat jotakoaren arabera.</p>
<p>3. art., 3. eta 4. zenbakiak.- Bi zenbaki horietarako balio dezatela 2. artikuluari buruzko iruzkinetan baliatutako arrazoiek. Horri buruz, honako testu alternatibo hau proposatzen da:</p> <p><i>3.- Lege honen aplikazio-eremuaren barruan geratzen dira EAeko edozein udalerritan bizi diren 13-30 urte bitarteko pertsonak, hargatik eragotzi gabe xedapen arauemaile, programa edo zerbitzu jakin batzuek beste adin-muga batzuk ezartzea, aldeztu aurretik errolatuta egoteko errekerimendutik salbuestea edo onuradun izateko betekizun espezifiko batzuk ezartzea.</i></p> <p>3. artikulua, 5. zenbakia.- Atal hori kentzea proposatzen da, 2. artikuluari buruzko iruzkinetan baliatutako arrazoiei jarraikiz.</p>	<p>Egokitzat jotzen da aurreproiektuan ezarritakoa, 2. artikuluari buruzko iruzkinei emandako erantzunen arabera.</p>
<p>5. artikulua. Printzipio orokorrak.</p> <p>5. art., g) letra («Erantzukizun publikoa»): idazketa horretan zuzeneko lotura ezartzen da erantzukizun publikoaren eta emaitzak bermatzearen artean («gazteen autonomia eta emantzipazioa bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatuko dira»), eta horrek sorturiko itxaropenak kudeatzea zaila izango litzateke dagozkien lege sektorialetan aitortutako eskubidea subjektiboak ez direnean (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea; Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea; Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea). Horri dagokionez, egokiagoa dirudi Valentziako Gazteria Politika Integralen azaroaren 10eko 15/2017 Legean ezartzen den estrategia; lege horren 5. artikuluan –administrazio-jarduketaren printzipio gidariei buruzkoan– esaera desberdinak erabiltzen dira (hala nola bermatzea, sustatzea, bultzatzea, etab.), dagokion jarduketa-eremuaren arabera eta, ondo ulertu badugu, ordenamendu juridikoak zer mailatako derrigortasun juridikoa eskatzen dion kontuan hartuz; hala, administrazioek bete beharreko derrigortasun-mailak zehazten dira.</p>	<p>Ekarpen hori aurreproiektuaren hirugarren zirriborroan sartu ez bazen ere, onartu egin zen, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenean horri buruz jasotako proposamena ikusita: “bermatzeko” eta “bermatuko da” esapideak ordeztu dira, hurrenez hurren, “bultzatzeko” eta “erraztuko da” esapideekin.</p>
<p>5.m) apartatua. Kalitatea, berrikuntza eta ikaskuntza soziala: apartatu hau irakurrita, interpreta daiteke lege-aurreproiektuak autonomia-administrazioaren esku uzten duela gutxieneko baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak arautzea, eta, zertan esaten ez badu ere, ondorioztatu beharko da administrazio publikoek ematen dituzten jarduera, zerbitzu eta ekipamendu guztiei buruzkoa dela. Ildo horretan, gure ustez, har daitekeen edozein autonomia-erkidegoko neurri toki-autonomiaren printzipioa ez ezik, toki-erakundeen finantza-nahikotasuneko eta kudeaketa-gaitasuneko printzipioak ere errespetatu beharko ditu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoaren arabera.</p> <p>Gogoeta bera egin daiteke 7. artikuluari dagokionez; izan ere, artikulua horrek autonomia-administrazioaren esku uzten du EAE osoan gazte-politikak ebaluatzeko eskumena, eta legearen betetze-maila ikuskatzeko eskumena (a apartatua), bai eta aitortzeko, ituntzeko eta ikuskatzeko arauak ezartzeko eskumena ere, goi-ikuskaritza barne (h apartatua).</p>	<p>Ekarpen hori ez zen aurreproiektuaren hirugarren zirriborroan sartu, baina onartu egin zen, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak horri buruz egindako proposamena ikusita, testu hau erantsita: “eta erabat bermatuta toki-autonomiaren printzipioa, finantza-nahikotasunaren printzipioa eta toki-erakundeen kudeaketa-ahalmenaren printzipioa (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera)”.</p>
<p>7. artikulua («Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eginkizunak»), e) letra, 2. zenbakia.- Gai horiei buruzko eskumena gainerako euskal administrazioekin aldebereotasun-erregimenean egiten dela ulertzen dugu; izan ere, gainerako administrazioek esparru horietan ere jarduerak garatzen dituzte.</p>	<p>Ekintza zuzena proiektuan bertan zehaztuta dago dagoeneko.</p>

<p>7. art., g) eta h) letrak.- Letra horietara ekartzen ditugu 3. artikulua 1. zenbakiari buruz egindako iruzkinak.</p> <p>Hala ere, gazteei eta, oro bereziki, nerabeei zuzendutako zerbitzuen eskaintza hobetzea bada helburua, batik bat, esparru publikotik emandako zerbitzuei dagokionez, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitakoa dirudi formularik egokiena; lege horren 5. artikulua 1. letran ezartzen denez, EAEko administrazioari dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eman nahi dituzten entitateak homologatzerakoan erabili beharko diren oinarritzko betekizun eta baldintza orokorrak ezartzea; baldintza horiek, gaur egun, ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren bidez aratzen dira.</p>	<p>3. artikulua 1. zenbakian jada erantzun zaio horri.</p>
<p>9. artikulua («Toki-administrazioaren eginkizunak»)</p> <p>Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua 36) zenbakian (18. artikuluaekin lotuta), gazteria-politikak planifikatzeko, antolatze eta kudeatzeko eskumena berezko gisa aitortzen zaie udalei; gai horretako zerbitzuak, jarduerak edo prestazioak garatzea, berriz, araudi sektorialari dagokio.</p> <p>Dirudenez, horixe da lege-aurreproiektuaren xedea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gazte-politika garatzeko arau- eta eskumen-esparrua ezartzea baita Legearen xedea, aurreproiektuaren 1. artikulua 1. zenbakiaren arabera.</p> <p>Eta hori hala bada, zehaztu behar da aurreproiektuak ez duela nahi duen xedea lortzen, toki-administrazioari dagokionez behinik behin; izan ere, Legea indarrean hasi aurretik jada toki-administrazioak gauzatzen zituen eginkizunak berezko gisa aitortzen ditu, besterik gabe. Baina zein dira eginkizun horiek? Udal guztiek eginkizun berberak gauzatu eta zerbitzu berberak eman izan al dituzte? Zer prestazio eta zerbitzuri buruz ari dira 9. artikuluko c) letran?</p> <p>Hala, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak ezartzen duenez, lurralde-izaerako toki-erakundeen eskumena da, legeetan edo foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera, toki-erakunde horiei esparru material jakin batean edo sektore edo erakunde berezi batean dagozkien ahalmen eta eginkizunen multzoa edo sorta (15.1 artikulua). Lurralde-izaerako toki-erakundeei eskumen propioak esleitzerakoan, kontuan izango dira finantza-nahikotasunaren printzipioa, herritarrekiko hurbiltasunaren printzipioa, subsidiarotasun-printzipioa eta, kasuaren arabera, diferentziazio-printzipioa (14.5 artikulua); udalei eskumen propioak esleitzen dizkien legeek eta foru-arauek, bai eta udalei propietzat izendatu zaizkien eskumenetatik eratorritako zerbitzu, jarduerak edo prestazioen zehaztapena dakarten lege sektorial edo foru-arauen erregelamenduzko garapenek, eranskin berezi batean bilduko dute zenbatekoa den udalerrien finantza-nahikotasuna bermatzeko behar den baliabide-zuzkidura (18.3 artikulua)</p>	<p>Ikus EUDELen ekarpenei emandako erantzuna.</p>

<p>10. artikulua.- Gazteriaren Euskal Sistemaren definizioa.</p> <p>Aurreproiektuak planteatzen duen (10. art.) Gazteriaren Euskal Sistema (GES), dirudienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak araututako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari (GZES) oinarrituta dago. Nolanahi ere, dagokigun kasuan aplikatzeko ez den premisa batean oinarrituta dago arau hori: katalogoan bildutako erantzukizun publikoko prestazio eta zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aitortzean, hain zuzen. Hori dela-eta, legeak euskal administrazio publikoaren maila bakoitzerako zehazten duen eskumen-oinarri zehatz eta berariazko baten gainean eratzten da GZESen egitura eta antolamendua; euskal administrazio publikoaren ardua, bestalde, eskubide horiek gauzatzen direla bermatzea da, ekipamendu eta zerbitzuen –titulartasun publikoaren edo itundutako titulartasun pribatukoaren– ekintza koordinatuaren bitartez. Sistemaren finantzaketa ere Lege honen erregulazio-xede da.</p> <p>Eta agian horregatik, gure ustez, etorkizuneko Gazteriaren Euskal Lege baterako erreferentziak ez luke izan behar Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, baizik eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea; izan ere, onetsi zenez – 2005az– geroztik hona, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea baliagarria dela frogatuta geratu da, aztergai dugun esparruan ere aplikatu daitezkeen bi helburu hauek lortze aldera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - gizarte-mugimenduen partaidetzan eta erakunde publikoaren ekintza koordinatu eta lankidetzakoan oinarritutako zeharkako politika bat garatzea, - erakundeek gizarte-eskariei eta -premiei eman beharreko erantzuna hobetzea. 	<p>Edozein sistemak ez du zertan, definizioz, eskubide subjektiboak bermatu.</p> <p>Hain zuzen ere, Gazteriaren Euskal Sistemaren xedea ez da eskubide subjektiborik bermatzea, bere jarduketaren eremua ez baita babesa, sustapena baizik; horrenbestez, alderdi zehatz horretan, sare hori ez da parekatu behar Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin.</p> <p>Etorkizuneko Gazteriaren Euskal Lege batek kontuan izan behar ditu, erreferente gisa, bai Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (zeharkako politika bat garatzeari eta erakundeek eskariei eta premiei eman beharreko erantzuna hobetzeari dagokionez) bai Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (euskal administrazio publikoaren artean aldi berean gerta litezkeen gazteentzako programa, zerbitzu eta ekipamendu zehatzak emateko modua arautzeari dagokionez).</p>
<p>13. artikulua.- Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa.</p> <p>Aurreko atalean azaldutakoaren ildo beretik, katalogo hori GZESen Prestazio- eta Zerbitzu-katalogoan inspiratuta dagoela ematen du, eta katalogo horrek, dirudienez, arauak aitortutako eskubideak «bermatzeko» izaera du. Baina aztergai dugun gaian ez bada existitzen eskubideen aurretiko aitortze hori, zer izaera du Katalogoak? Informatiboa, besterik gabe? Eta hala bada, ez al litzateke tratatu behar Euskadiko Gazte Informazio Sarearekin batera?</p>	<p>Katalogoak izaera informatiboa badu ere, bere ikuspegia eta helburuak ez datoz bat Gazte Informazio Sarearekin, baina zenbait kasutan estrategia berak izan ditzakete.</p>
<p>19. eta 20. artikulua: Planifikazioa, Plangintza eta Ebaluazioa</p> <p>Administrazio publikoaren jarduketaren koordinazioa kaltegarria izan daiteke toki-autonomiaren printzipiorako; izan ere, udal bakoitzari dagokio, azken batean, plangintza- eta kudeaketa-estrategia zehaztea, baita ebaluazio-irizpideak ezartzea ere.</p>	<p>Bi artikuluko horietan seinatzen da, hain zuzen ere, administrazio publiko bakoitzak zehaztuko duela bere plangintza- eta kudeaketa-estrategia, eta haren koordinazioa eta segimendua irizpide komun bidez egingo dela; irizpide komun horiek arau ezarriko dira, euskal administrazio publiko guztiaren lankidetzan.</p>
<p>21. artikulua: Gazteei zuzendutako jarduerak</p> <p>Artikuluaren izena alde batera utzita, normalean nerabeei –18 urtetik beherakoei– zuzendutako hezkuntza-aisialdiko programazioari burua ari zaiola soil-soilik. Horrelako jarduerak arautzea egokitzat jo behar ote den alde batera utzita, erregelamendu edo arau bat aproposagoa izango litzatekeela deritzogu, lege-xedapen baten ordez.</p>	<p>Onartu egiten da, antzeko beste ekarpen baten ildo beretik, zehazki Arabako Foru Aldundikoa.</p>
<p>24. artikulua.- Gazte Informazio eta Dokumentazioaren zerbitzuak</p> <p>Formatu digitaleko gazte-informazioarako zerbitzu publikoak ere badaudela alde batera utzita (adibidez, Bilboko Udalak halako zerbitzu bat du), eta zerbitzu horiek etorkizuneko Gazte Informazioarako Zerbitzu Sare baten parte izan daitezkeela kontuan izanik, horren eraketak Lege honen esparrua gaintzen duela deritzogu.</p>	<p>Onartu egiten da, antzeko beste ekarpen baten ildo beretik.</p>
<p>Balorazio berbera egin daiteke 25. eta 26. artikuluen edukiarri dagokionez.</p>	<p>Onartu egiten da, antzeko beste ekarpen baten ildo beretik.</p>

<p>29. artikulua.- Txartelak egitea</p> <p>Kontuan izanik Foru eta Toki Administrazioek ere euren lurralde-eremuan eraginkortasuna duten gazte-txartelak eman ditzaketela (Bilboko Udalaren kasuan bezala), artikuluko honek aukera hori aurreikusi beharko luke.</p>	<p>Izan ere, 29. artikulukoaren 1. zenbakiaren azken zatiak aukera hori biltzen du. «Txartel horiek ez dute ezertan eragotziko beste erakunde edo entitate batzuek beren lurralde-eremuetan beste txartel batzuk egitea».</p>
<p>34. artikulua.- Gizarte-ekimena</p> <p>3. zenbakia.- Esparru horretako edozein aurreikuspenek kontuan izan beharko lituzke, batetik, toki-autonomiaren printzipioa eta, bestetik, toki-erakundeek euren burua antolatzeke duten gaitasuna; toki-erakundeek, nolatan ere, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeko eta horiek garatzeko arauetako xedapenei jarraitu behar diete.</p>	<p>Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordearen Osoko Bilkurako apirilaren 5eko 6/2019 Txostenean egindako ekarpenei eman zaien erantzunaren ildo berean onartzen da.</p>
<p>34. art., 4. zenbakia.- Puntu honetan, gogorarazi egin behar da 3. artikuluko 1. zenbakiko iruzkinetan ekimen pribatuari buruz adierazitakoa.</p>	<p>Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordearen Osoko Bilkurako apirilaren 5eko 6/2019 Txostenean egindako ekarpenei eman zaien erantzunaren ildo berean onartzen da.</p>

Eusko Jaurlaritzako sailen alegazioak eta ekarpenak

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren alegazioak	Erantzuna
<p>16. artikulua.- Arau eta plan sektorialen eragina. Idazkuntza berrikus dadila eskatzen dugu, argi uzteko “gazteengan eragin zuzena” tartekiak zeri egiten dion erreferentzia: xedapen orokorrari ala Administrazioaren planari. Edonola ere, azpimarratu nahi dugu dagoeneko badaukagula xedapenak prestatzeko prozedura bat, oso luzea eta konplexua, eta, beraz, ez dela komeni prozedura hori zailtzea eta izapideetarako denbora-tarteak are gehiago luzatzea.</p>	<p>Aurreproiektuan argi geratzen da tartekiak biegi egiten diela erreferentzia: “Gobernu Kontseiluan onartu behar den izaera orokorreko xedapen bat edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren plan bat egitean [...]”.</p> <p>Gazteria Legearen helburuetako bat denez gazteriaren arloko zeharkako politika indartzea, uste dugu zeharkako edozein politika bultzatzeko eska daitekeen gutxienezkoa dela gazteengan izango duen eraginari buruzko gogoeta edo analisisia txertatzea justifikazio-memorian edo azalpen-memorian; ez dugu eskatuko, ordea, eraginaren aurretiazko ebaluazio sakonik edo nahitaezko txosten sektorial gehiagorik.</p>
<p>18. artikulua.- Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak. “o) Gazteak, landa-ingurunea eta itsas ingurunea”. “Itsas ingurunea” erreferentziaren ordean, “kostaldeko ingurunea” erabiltzea proposatzen dugu, horixe baita sail honetan erabiltzen dugun hitza.</p>	<p>Onartu da.</p> <p>Testu hau txertatzen da:</p> <p>«o) Gazteak eta landa- eta itsasertz-inguruneak</p> <p>1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteei landa- eta itsasertz-inguruneetan gelditu eta finkatzen lagunduko dieten neurriak planifikatu eta garatuko ditu. Horretarako, arreta berezia eskainiko zaio nekazari, abeltzain, akuikultura-hazle eta arrantzale gazteei, baita gazteen ekintzaitzari ere edozein sektoretan. Halaber, ingurune horietako gazteei baliabide sozial, ekonomiko, kultural eta prestakuntzakoak hirietako gazteen aukera berdinetan eskuratzeko bermea emango die EAEko administrazioak.</p> <p>2) Lege honen 2. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, landa- eta itsasertz-inguruneako programa eta planei dagokienez, landa- eta itsasertz-inguruneako programa eta planetan ezartzen diren adin-tarteetan kokatuta dauden pertsonak izango dira gazteak».</p>
<p>Bestalde, argi utzi nahi dugu oro har testuan zehar jasota dauden betebeharrak batzuek sail honen lan-karga areagotzea eragingo dutela. Esate baterako, 20. artikuluan (Urteko programazioa eta ebaluazioa) ezartzen da erkidego-, foru- eta toki-administrazioetako sail bakoitzak, urtero, banaka zein mankomunitateetan elkartzuta, bere jarduerak programak landuko dituela eta urtero programatzen dituen neurriak betetzeko erabiliko dituen diru-baliabideak zehaztuko dituela. Betebehar horiek eta sortuko diren kide anitzeko organoetan izan beharreko parte-hartzeak areagotu egingo dute lehendik geneukan lan-karga, eta behartuko gaituzte aurreproiektuan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren giza baliabideak berrantolatu eta birbanatzera. Hori dela eta, eskatzen dugu betebeharrak horiek ezartzea soilik premiazkoa denean helburuak lortzeko.</p>	<p>19. eta 20. artikuluetan esaten da erakunde bakoitzak plangintza eta ebaluazioa egin behar dituela, behar bezala koordinatuta. Eusko Jaurlaritzan hala egiten da 1999. urtetik, Gazte Planaren eta Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen bitartez, eta, beraz, ez da ezer berririk sortu edo eskatu, azken urteotan bultzatu den zeharkako politika indartu baizik.</p>

Segurtasun Sailaren oharrak	Erantzuna
<p>Sailak badaki gune tangential bat dagoela zioen azalpeneko testuaren eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen artean, baina irizten du ez dagoela inolako talkarik bien artean, lehenengoak sustapen-gaiak arautzen dituelako, eta ez laguntza-izaerakoak. Eta bi legetan aurreikusitako erakundearteko koordinazio-organoen esku uzten du horien aplikazioa koordinatzeko zeregina.</p> <p>Ez dirudi konponbide hori teknikoki zuzena denik. Bi legeen arteko erlazioaren arazoa konpontzeko gai izan beharko luke lege berriak, edo paraleloan funtzionatzen duten erakundearteko bi organoren erabakien araberakoa izan beharko luke.</p>	<p>Azken hamarkadetakako esperientziak erakusten digu, hain zuzen, bi legeek ez dutela talka egiten eta haien arteko harremana esku-hartze jakin batzuetan gauzatzen dela, zeinak, hala badagokio, egoki den koordinazio-organoren bidez koordinatzen baitira.</p>
<p>Gazteriaren Legeak sustapen-neurriak baino gehiago biltzen ditu; izan ere, bere esparruaren barnean hartutako pertsonen zuzendutako jarduerak eta establezimenduak ere arautzen ditu.</p> <p>Eta establezimendu horiek barnean hartzen dituzte, halaber, bi legeak parteka ditzaketen hartzaileak, eta inkongruentziak sor ditzake horrek, baina aurreproiektuaren 3.5 artikulua eragozpen hori gainditzen du: «Lege hau adingabe guztiei aplikatuko zaie, aisialdiaren erabilerari eta haur-sustapenaren eremuari dagokienez».</p> <p>Halere, planteatu egin beharko litzateke ez ote den egokiagoa Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen aldaketa gisa planteatzea; esate baterako, 24.3 eta 4 artikuluan jasotakoak adingabeentzako neurriak dira, eta 2005eko arauaren berezko xedea halako neurriak dira.</p>	<p>Ez dago babes-neurririk, ez aurreproiektuaren 24. artikuluan, ezta beste artikuluetan ere; sustapen-neurriak besterik ez daude: adibidez, adingabeek parte hartzen duten haur eta gazteen aisialdirako heziketa-jarduerak.</p>
<p>Beste arau batzuen joeraren araberakoa da: kolektibo jakin batzuen gaineko inpaktuari buruzko txostenak eta analisiak eskatzea edozein arauri, inolako diskriminaziorik gabe, alde batera utzita <i>prima facie</i> aurreikus daitekeen ondorioz izan dezakeen ala ez; oso erabilgarriak ez diren formalitatez kargatzeko baino ez du balio horrek, eta izapidetzea jada bada neketsua.</p> <p>Adibidez, funtzionario-lanpostuez hornitzeko erregelamendu batean, seismoen kontrako babes zibileko plan batean edo geriatrikoen instalazioa arautzeko Dekretu batean.</p> <p>Analisisa soil-soilik xedapen orokor jakin batzuetan –duten izaeragatik edo edukiagatik gazteen kolektiboan zuzeneko eragina izan dezaketenetan– aplikatzea iradokitzen da.</p>	<p>Gazteria Legearen helburuetako bat denez gazteriaren arloko zeharkako politika indartzea, uste dugu zeharkako edozein politika bultzatzeko eska daitekeen gutxienezko delata gazteengan izango duen eraginari buruzko gogoeta edo analisisa txertatzea justifikazio-memorian edo azalpen-memorian; ez dugu eskatuko, ordea, eraginaren aurretiazko ebaluazio sakonik edo nahitaezko txosten sektorial gehiagorik.</p>
<p>Gazteriaren arloko Euskal Estrategian bildutako esku-hartze ildoen artean, kultura, kirola, aisialdia eta denbora librekoa daude, besteak beste. Eta gero, gazte-politiken koordinazio-organoen osaera zehazten dute ildo horiek.</p> <p>Arazo horiei buruz, ulertu behar da Segurtasun Sailaren jarduketaren eremuan bildutako politika publiko jakin batzuetan –hala nola jolasari eta ikuskizunei eta aisialdiko jarduerari buruzkoetan– berehala eragiten dutela.</p> <p>Halere, ez da argi geratzen erakunde horietako parte-hartzea. Ez da argi geratzen, ezta ere, 20. artikuluari jarraikiz, sail guztiek euren jarduketa-programa propioak sortu behar ote dituzten edo, aitzitik, ildo estrategiko horiek garatzen dituzten sailek baino ez.</p>	<p>Hasiera batean behintzat, sail guztiek parte hartzen dute urteko programazioan eta ebaluazioan, baina, jakina, ekitaldiren batean gerta daiteke sail jakin batek ez programatzea gazteekin zerikusia duen ekimenik –hori ez da ohikoa izaten, ez Segurtasun Sailean, ezta beste sail batzuetan ere, kontuan hartzen badugu Gazte Planaren bidez azken hamarkadetan izandako esperientzia–.</p>
<p>Establezimenduei dagokienez, aurreproiektuak ez du halakoak martxan jartzeko betebeharrak edo obligazio zehatzik barne hartzen; horren ordez, Gazteriaren Euskal Sistemaren barneko gazteentzako zerbitzu eta ekipamendu gisako aitortzen ofizialaren borondatezko aukera baino ez du ezartzen.</p> <p>(22.1) [23.1] artikuluan aitortzen horretarako eskakizun bat biltzen da: betekizunak betetzen dituela dioen erantzukizun-adierazpen bat aurkeztu behar da. Aitortutako establezimenduak erregistro batean erregistratzen dira.</p> <p>Erantzukizun-adierazpen aipatzeak zalantzak sortzen ditu: beharbada, LCAPen 69. artikuluan erantzukizun-adierazpentzat hartzen denaz ari da; hala bada, hori aurkezte hutsak adierazpen hori sortzen du edo eskubide baten betearazpena edo jardueraren hasiera. Erantzukizun-adierazpenaz zentzu</p>	<p>Partzialki onartu da.</p> <p>23.1 artikuluan azken esaldia ezabatu da: “Eskaera horrekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da [...]”.</p> <p>Bestalde, aurreproiektuan ageri den establezimendu-tipologia zabala ikusita, erregelamendu bidezko garapenean zehaztuko da haietako bakoitza.</p>

<p>zorrotzean ari bagara, ez dago, berez, eskabiderik; aitorpenak adierazpena bera sortuko luke, eta erregistroa ofizioz gauzatzea baino ez litzateke geratuko egiteke. Aitorpen hori eskabide baten ondoren eman beharreko administrazio-ebazpen bat izanez gero, ordea, horrekin doan dokumentua ez da erantzukizun-adierazpen bat, berez.</p> <p>23.2 artikuluan eskatzen da aitortutako establezimenduek larrialdi-plan bat eta erantzukizun zibileko aseguru bat izan behar dutela. Gauza bera 24.2 artikuluan, jardueri buruz. Autobabes-araudian larrialdi-planak eskatzea hainbat parametroren arabera dago zehatuta; gazteentzako ekipamendu guztiek ez dute zertan plan bat izan; plan bat duten establezimenduak termino berberetan egongo dira derrigortuta, eta planik ez dutenak, berriz, derrigortuta egongo dira, baina plan horretarako betebeharrak eta formalitateak zehaztuta egon gabe.</p>	
<p>24.3 artikulua: Emantzipatutako adingabearen guraso-ahala edo tutoretza duten pertsonen berariazko idatzizko baimena izan beharra. Idazketa zuzendu egin beharko litzateke, argitu dezan baimena pertsonari dagokiola eta ez jarduerari. Kontzeptu hartan adingabeen zuzendutako aisialdi-jarduera guztiak barne hartzen direla iritziz gero, ulertu beharko genuke 18 urtetik beherako nerabeei, guraso edo tutoreekin ez badaude, horien berariazko idatzizko baimena beharko dutela zinemara joateko edo gazteentzako diskoteka-saioretan sartzeko, baita beste pertsona heldu batzuekin joaten direnean ere. Eta gauza bera liburutegietara edo ludoteketara joateari dagokionez.</p>	<p>Artikuluaren 3b) letra ezabatu da, hau da, erreferentzia egiten ziona emantzipatu gabeko adingabeen berariazko idatzizko baimenari; izan ere, alderdi hori erregelamendu bidez garatu beharrekoa da, bat etorritik horri buruzko beste ekarpen batzuei emandako erantzunarekin.</p>
<p>24.4 artikulua: Agintaritzaren eskudunari 30 egun lehenago eman beharra segidako 3 gautatik gorako aisialdi-jardueren berri. Ez da zehazten zein den agintaritzaren eskuduna.</p>	<p>Horretarako emandako araudi espezifikoan zehazten da agintari eskuduna nor izango den; kasu honetan, ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuan, zeinak arautzen baitu neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea.</p>
<p>Azkenik, aurreproiektuak hainbat koordinazio-organo sortzen ditu: a) erakundeartekoa; b) sailartekoa; c) sailekoa. Gobernantza Sailak kide anitzeko organoei buruz egindako txostenaren ildotik, administrazio-egitura horiek sinplifikatzeko aukera iradokitzen da.</p> <p>Halaber, eta arrazoi beragatik, sail bakoitzak gazteriaren alorreko solaskide eta koordinatzaile politiko eta teknikoak izendatzeko betebeharra aurreproiektutik kentzea iradokitzen da.</p>	<p>Aurreproiektuan aipatzen diren koordinazio-organoak ez dira mugatzen gazteriaren arloko politika integralarekin zerikusia duten erakundeen edo sailen arteko aldebiko lankidetzara edo koordinazio hutsera, batez ere kontuan hartuta Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen esperientzia 1999. urtean eratu zenetik hona. Harago joanik, helburua da erakunde edo sail bakoitzarekin banan-banan egiaztatzea proposamenak eta ekimenak, eta erakundeen eta sailen artean harremanak, sinergiak eta zuzeneko egiaztatzeak bultzatzea.</p>

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren alegazioak.	Erantzuna
<p>Aurreproiektuaren 16. artikuluari buruz:</p> <p>Artikulu horrekin lotuta, esan behar dugu, xedapen orokorrak sustatzean, hiriek egiteko gazteenganako eragina aztertzea bide nekezaren beste traba bat baino ez dela.</p> <p>Izan ere, gure aburuz, xedapen orokorrak egiteko prozedura nahiko luzea eta nekeza da jada, gobernu-ekintza garatzen den esparru sektorial bakoitzean – kasu honetan, gazterian – araudi eragin-azterketa sartzeko.</p>	<p>Gazteria Legearen helburuetako bat denez gazteriaren arloko zeharkako politika indartzea, uste dugu zeharkako edozein politika bultzatzeko eska daitekeen gutxienezko delata gazteengan izango duen eraginari buruzko gogoeta edo analisisa txertatzea justifikazio-memorian edo azalpen-memorian; ez dugu eskatuko, ordea, eraginaren aurreiazko ebaluazio sakonik edo nahitaezko txosten sektorial gehiagorik.</p>

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren oharrak.	Erantzuna
<p>Arauketa horretatik ulertzen dena da gazteriaren arloko politikara ekarri nahi dela Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legean ezarritako funtzionamendu-dinamika, zeinak genero-ikuspuntua barne hartzen duten neurriak ezartzen baititu EAEko botere eta administrazio publikoen jardunean; zehazki, Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko eta planifikatzeko neurriak zehazten ditu.</p> <p>Azpimarratu nahi dugu horrelako planteamenduen kontra gaudela; izan ere, praktikan, berekin dakarte sail sektorialek beren gain hartu behar izatea zinez gazteriaren arloko sail eskudunari dagozkion eskumenak eta erantzukizunak exekutatze eta betetzeko eginkizuna.</p> <p>Gainera, ezin justifika daitekeen gehiegizko esfortzua eskatzen dute lehendik ere nahikoa konplexua den administrazio-izapidetzean, aintzat hartuta Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakia – xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeari buruzko jarraibideak onartzen dituen, zeinak prestatu baitira halako prozeduren izapideak erraztu eta bateratzeko gogoeta-prozesuaren eremuan-. Orobat, ez dugu ahaztu behar Gobernu Kontseiluaren 2010eko otsailaren 9ko Erabakia – dekretu mailako xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeari buruzko jarraibideak eta antolamenduko beste neurri batzuk onartzen dituen (Legesarea), Gobernuko sailek berehala eta batera izan dezaten batzuen eta besteen ekimene berri-. Horrenbestez, politika sektorialen gaineko ardura duten sailek edo administrazio-unitateek beren gain har dezakete –eta hala egin behar dute– ekimenei jarraipena egiteko lana, eta haiek aldatzeko proposamenak egin edo neurri berriak bultzatuko dituzte, kontuan hartuta ekimene zer-nolako eragina sortzen duten bakoitzaren eskumen-eremuan.</p>	<p>Gazteria Legearen helburuetako bat denez gazteriaren arloko zeharkako politika indartzea, uste dugu zeharkako edozein politika bultzatzeko eska daitekeen gutxienezkoa dela gazteengan izango duen eraginari buruzko gogoeta edo analisisa txertatzea justifikazio-memorian edo azalpen-memorian; ez dugu eskatuko, ordea, eraginaren aurreiazko ebaluazio sakonik edo nahitaezko txosten sektorial gehiagorik.</p>

Ogasun eta Ekonomia Sailaren oharrak. Erantzunak:

Ogasun eta Ekonomia Sailak egindako ohar guztiak onartu dira, eta, araugintzako teknikari eragiten diotenez, proposatutako idazkuntzak txertatu dira aurreproiektuaren testuan.

3. artikuluari buruzko zehaztasunei dagokienez, hala da: gazteriaren arloko politikak haur-sustapena barne hartzen du, nahiz eta aurreproiektuaren izenburuan (“Gazteria Legea”) ez den esplizituki agertzen, besteak beste, haur-sustapena eta gazte-sustapena *continuum* batean lotuta daudelako, bai eta nerabe-sustapena ere, beste autonomia-erkidegoetako gazteria-legeetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Edonola ere, lege-proiektuaren xedea «Gazteriaren arloko politika» denez eta haren definizioan «gazteak», «haurrak» eta «nerabeak» bereizten direnez, «Gazte-sustapena»ren definizioa osatu eta berriazko aipamena egingo zaie nerabeei.

Ildo beretik, lege-proiektuaren eremua legean bertan ezarrita badago ere, sail jakin batzuek bultzatutako zenbait jarduera sektorial edo programa zehatz 30 urtetik gorako pertsonen zuzenduta egoteko aukera ere jasota dago.

Eranskina aurreproiektu-testuaren amaieran txertatu bada, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 18.3 artikulua betetzeko izan da.

Erantzuna, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak egindako oharrei

Lehenik eta behin, osorik onartzen da Batzordeak 6. artikuluari (euskal udalerriek gazteriaren arloko arauak antolatzeke eginkizuna izango dute), 19. artikuluari eta 20. artikuluari (administrazio publiko bakoitzak planifikatu, programatu eta ebaluatzea, bere burua antolatzeke dituen ahalak erabiliz) emandako idazketa berria.

Era berean, proposatutako xedapen iragankorra gehitu da, diferentziazio-printzipioa aitortzeko, biztanleria-atalase baxuak dituzten udalerriekin zerikusia duten alderdi zehatzetan Legea aplikatzerakoan.

Ekarpen horiek onartu ondoren, ez da beharrezkotzat jotzen ETELen 90. artikuluan ezarritako Aldebiko Batzordearen deialdia egitea, Batzordeak berak txostenean adierazten duen bezala.

Bestalde, aurreproiektuaren eranskina osatzeko, etorkizuneko erregelamendu-arauak aipatzen dira. Arau horiek bere garaian aztertu beharko dira, haien finantza-eragina kuantifikatzeko, eta, hala badagokio, euskal udalerriei finantza-nahikotasuna bermatzeko, ETELen 18. artikuluko 1., 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edonola ere, Tokiko Gobernuen Batzordeak, bere garaian, erregelamendu-proiektuak aztertuko ditu dagokion txostenaren bidez, toki-autonomian, eskumen propioetan eta finantza-nahikotasunean izan dezaketen eraginaz ohartarazteko, hala badagokio.

Gainera, aintzat hartu dira Batzordearen proposamenak, jarraian adierazten direnak.

Onartu egin dira Bilboko Udalak bere garaian 5. artikuluari buruz egin zituen ekarpenak, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak aurkeztutako proposamen zehatzak ikusita:

- 5 g) artikuluan, "bermatzeko" eta "bermatuko da" esapideak ordeztzen dira, hurrenez hurren, "bultzatzeko" eta "erraztuko da" esapideekin.
- 5 m) artikuluan, 7 a) eta 7g) artikuluetan bezala, honako testu hau jasotzen da: "eta erabat bermatuta toki-autonomiaren printzipioa, finantza-nahikotasunaren printzipioa eta toki-erakundearen kudeaketa-ahalmenaren printzipioa (Euskadiko Toki Erakundearen buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen ezarritakoaren arabera)".

Euskal administrazio publikoen "eginkizunak" esapidearen ordeztu, "eskudantziak" jarri da.

14. artikuluan (Gazte-politiken arloko profesionalak), gehitzen da hori arautuko dela "beti EAEko erakunde publiko bakoitzaren autoantolaketa-ahalak errespetatuz".

18. artikuluan, "Gazteak eta Enplegua" atalean, "gauzatuko dituzte" esapidearen ordeztu, "sustatuko dituzte" esapidea jarri da. Halaber, "Gazteak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna" atalean, 1. eta 2. zenbakiko "bermatuko dute" esapidearen ordeztu, "sustatuko dute" esapidea jarri da, eta 3. zenbakiko "hartuko dituzte" esapidearen ordeztu, "bultzatuko dituzte" esapidea.

Legearen xedea aldatzeko proposamenari dagokionez, egokiagoztat jotzen da aurreproiektuaren zirriborroan jasotako helburuari eustea; izan ere, Batzordeak proposatutakoa baino zabalagoa da, eta, beraz, beste helburu berezi batzuk ere hartzen ditu, gobernu-maila desberdinen eskumenak arautu eta zehazteaz gain, hala nola gazteriaren arloan zeharkako politika bultzatzea, gazte-ikuspegia politika publikoetan sartzea edo gazteek parte hartzeko eta hitz egiteko bideak zabaltzea.

Azkenik, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenean behin eta berriz aipatzen da Sailaren beraren Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoan nabarmentzen zela Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuaren lehen zirriborroak ez zuela ezartzen arlo horretako eskumenen zehaztapenik, eta, beraz, ez zituela aurreikusten eskumen horiek toki-ogasunetan izango lituzketen finantza-inpaktuak. Horri dagokionez, gogorarazi behar da Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridiko hori aurreproiektuaren lehen zirriborroaren gainean egin zela. Txosten horretan egin beharreko oharra eta proposamenak aurreproiektuaren bigarren zirriborroaren testuan sartu ziren, "Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuari buruzko sailaren txosten juridikoa ikusita egindako memoria osagarrian" zehazten den bezala (espedientearen dokumentazioan kontsulta daiteke). Horrez gain, hirugarren zirriborroan Eudelen zein Bilboko Udalaren ekarpenak ere sartu dituzte, besteak beste. Horrekin guztiarekin, arlo horretako eskumenak zehazten joan dira pixkanaka, eta, bereziki, lehen zirriborroan jasotzen ez ziren gazte-jarduerak, -zerbitzuak edo -ekipamenduak definitzen joan dira.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 15/19 Irizpenari emandako erantzuna

Lehenik eta behin, zioen azalpenaren egitura berrantolatzen da, eta, horretarako, Euskadin 80ko hamarkadaz geroztik gazteriari buruz garatu diren politika publikoen historia aurreratzen da, eta araudiaren zerrenda berriz biltzen da, batetik, eta legearen xedea eta helburuak, bestetik.

Zioen azalpenean, Euskadin euskal instituzioak eta administrazioak egiten ari diren lan eskergaren balioa azpimarratu da, bai eta gazteriari eragiten dioten politika publikoen garapenean inplikaturako gainerako eragile eta entitateek egiten dutena ere, besteak beste, lanbide-heziketan, hezkuntzan eta hizkuntza-politikan, familia-politikan, enplegu-politikan eta abarretan.

Halaber, zioen azalpenean jasotzen da gazteek euskal gizartearen etorkizunean egin dezaketean eta egin lezaketean ekarpenaren balioa; izan ere, gazteek, politikan, ekonomian, kulturean, kirolean edo, besteak beste, elkarteetan duten parte-hartze aktiboa, funtsezkoa da Euskadi eraikitzeko, eta, horrela, gazteen eginkizun aktiboari balioa ematen zaio, arauaren artikuluekin bat etorrita.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko otsailaren 18ko 3/2005 Legearekin lotzeari dagokionez, zioen azalpenean jasotzen da, halaber, bi lege horietako bakoitzean horretarako sortutako organoen bidezko koordinazioa bi legeak aplikatzean ez ezik, haurren eta nerabeen arloko jarduketetan ere egingo dela.

Zioen azalpenean ere, gazterian mendekotasun egoera bat antzematen dela dioen esaldian, "Ekonomikoa eta familiarra" gehitzen zaio. "Desgaitasun" terminoa soilik uzten da "fisiko edo psikikoa" ezabatuta. Emakume gazteen desberdintasuna aipatzean, "Ordainsarrietan" ere osatzen da. Azkenik, desgaitasunen bat duten pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa gehitu da gazteen eskubide, betebeharrak eta askatasunen atalean.

1. artikuluan, "ezarri" aditzaren ordez "artikulatu" jarri da.

3. artikuluari dagokionez, aurreproiektuaren idazketa zabalagoa eta integratzaileagoa dela uste da.

5. artikuluan, a) apartatuan, "lan-arloko" eskubideak jasotzen dira. Aitzitik, "aniztasun funtzionala" terminoari eusten zaio proposaturako "desgaitasuna" terminoaren ordez, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere txostenean egindako ekarpenaren ildotik. Aurreproiektuaren definizioak bere osotasunean mantentzen dira, proposaturako sinplifikazioek mantendu beharreko ñabardurak galarazten baitituzte, bereziki aurreko txostenetan egindako proposamenak kontuan hartuta.

5. artikuluan horretan, l) eta n) apartatuetan ez da informazio bera helarazten saiatzen, bigarren kasuan, aurrekoan ez bezala, EAEko administrazio publikoekiko "harremanak" jorratzen baitira.

Proposatu legeaz, "Kalitateko gazte-enplegua sustatzea" 7. artikuluko d) apartatuari gehitzea 18. artikuluan (Estrategiaren esku-hartze ildoak) jasota dago, a) 1) apartatuan, erakunde eskudunek aurrera eramanean dezaten.

7. artikuluan i) apartatuan, kasu honetan, egokiagozat jotzen da "elkartek" terminoari eustea, "erakundeak" terminoaren ordez, nahiz eta integratzaileagoa izan daitekeen, segurtasun juridikoagatik, Kultura eta Turismo Sailaren 1986ko urtarrilaren 15eko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-elkarteen eta gazteentzako zerbitzuak ematen dituzten erakundeen errolda sortzen duena, eta Elkarteen Legea, besteak beste, kontuan hartuta.

10. artikuluan 1. apartatua aldatzen da proposaturako zentzuan: "1. Gazteriaren Euskal Sistema erantzukizun publikoko jarduketan eta egituren multzo artikulatu eta egonkorra da, gizartearen partaidetza izan dezaketena eta titulartasun publiko edo pribatukoak izan daitezkeenak ...".

14. artikulua (gazte-politiken profesionalak) erregelamendu bidez garatzen da, aurreproiektuaren 2. eta 3. atalean zehazten den bezala.

16. artikuluan bertan, 1. apartatuaren bigarren zatian, "zuzeneko eragina" zer den definitzen da: gazteen autonomia eta emantzipazioa bultzatzeko helburuari dagokionez gerta daitezkeen ondorio positiboak edo negatiboak, 18. artikuluan eta haren garapenean jasotako parametroen arabera.

17. artikuluan gehitu da proposaturako paragrafo berria: «3. Gazteen Euskal Estrategiak gazteen emantzipazioa errazteko neurri eta helburu zehatzak jasoko ditu, 18. artikuluan jasotako esku-hartze ildoen arabera».

18. artikuluan (Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak), a) apartatuan (Gazteria eta enplegua), 1. azpiapartatuan, hau gehitzen da: Orobat, gazteek lehenengo lanpostua lortzea eta lan-erperientzia hartzea sustatuko dute. 2. azpiapartatuan praktikaldiko kontratazioa ezabatzen da, kontratazio orokorra aipatuz. 3. azpiapartatua osatuko da (etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza sustatuko da), emandako erreferentziarekin: bereziki hezkuntza-gabeziaren bat duten edo ikasketak utzi dituzten gazteentzat, prestakuntza erraztuko duten neurriak bultzatuko dira, lan egokia egin ahal izateko. 4. azpiapartatua (gazteen ekintzailtza) azalpen gisa osatzen da: autoenplegua eta gazteen enpresa-ekimena. Azkenik, uste da artikulua honen xedea ez dela lan-merkatua eta beste klausula orokor batzuk ezagutzera ematearen garrantzia adieraztea.

18. artikulua horretako b) apartatuari (Gazteria eta hezkuntza) eta c) apartatuari (Gazteria eta etxebizitza) buruz proposatutako zehaztapenak, hala badagokio, plan sektorial edo estrategikoen xede izango dira –eta, nolana ere, esku hartzeko ildoak garatu edo aplikatzeko balioko dute–, eta ez artikulua honenak. Bestalde, g) azpiapartaturako (Gazteria eta kultura) proposatzen den "sorkuntza" terminoa kultura terminoaren barruan dagoela uste da.

18. artikulua h) apartatuan (Gazteria eta kirola) proposatutako testua zati batean gehitu da: "baliokak sustatzen laguntzen duena"; izan ere, "osasuna hobetzea" jasota baiago jada, eta, beraz, erredundantea da. Era berean, i) apartatuan (Gazteria, aisia eta denbora libre) proposatutako testua: "bai eta horren erabilera osasungarria ere" erredundantetzat jotzen da.

18. artikulua j atalari (Gazteria, osasuna eta prebentzioa) proposatutako zehaztapena, 1. puntuan, plan sektorial edo estrategikoen xede dela jotzen da, eta, nolana ere, esku-hartze ildoaren garapen edo aplikazioa, eta ez artikulua honena.

Halaber, 18. artikuluko j apartatuan (Gazteria, osasuna eta prebentzioa), 2. puntuan (laneko ezbeharrak saihestea, bai eta laneko osasuna babestea eta hobetzea ere), genero-ikuspegia txertatzeari buruzko testua proposatutako testuarekin ordeztu da: "Gainera, lan osasunaren zaintza hori genero ikuspegi batetik egingo da".

18. artikulua s) apartatuaren tituluaren ordeiz, proposatutakoa jarriko da: "Euskal gazteak kanpoan".

24. artikulua proposatutako definizioa gehitu da: "1.- Gazteentzako informazio- eta dokumentazio-zerbitzuak dira gazteentzako informazio-, hedapen- eta aholkularitza-jarduerak egitea helburu duten eta ofizialki onartuta dauden zentro publiko edo pribatuak".

27. artikulua (Gazte Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorra), 2. apartatuan, gazte-zerbitzu eta ekipamenduei buruz Erregistro Orokorrean jaso behar den informazioari buruzkoan, jardueraren deskribapen xehatua jasotzen da.

35. artikulua (Gazteen boluntarioritza) 2. apartatuan gehitzeko proposamenari dagokionez, hori politika sektorialaren xedea dela uste da ("boluntarioritzaren baldintzak zaintzea eta lanpostuak ez ordezkatzeko bermatzea").

44. artikulua (Ikuskapen-jarduera arrunta) f) apartatuan sartu nahi den "segurtasuna" kontzeptua ez da behar bezain espezifikoa.

44. artikuluko (Ikuskapen-jarduera arrunta) j) atalerako proposamena (Langileek jardueraren zehazterako duten gaitasuna egiaztatzea) artikulua bereko a) apartatuan jasota dago, 14.2 artikuluari dagokionez.

Ikuskapen-aktari buruzko artikulua bat sartzeko proposamenari dagokionez, esan behar da erregelamenduzko igorpena egitea erabaki dela, aurreproiektuaren 42. artikulua 4. apartatuan jasota dagoen bezala.

45. artikulua egindako proposamenak (Erantzukizuna) ziurgabetasun juridikoa sor omen dezake; izan ere, arau-hausteak egiteagatiko administrazio-erantzukizuna pertsona fisikoari edo juridikoari egotz dakioke, hau da, bati, beste bati edo biei; beraz, aurreproiektuaren idazketa egokitzen da.

48. artikulua 2 g) apartatuan zehazten da arau-hauste larria dela gazte-jardueraren arloan segurtasunaren arloan indarrean dauden arauak ez betetzea, "horrek parte-hartzaileei kalte fisiko edo psikiko larria eragiten dienean".

54. artikuluan (Preskripzioen araubidea), arau-hauste arinak preskribatzeko epea sei hilabetetik bederatzira luzatzen da, kontuan hartuta, EGABen irizpenean justifikatzen denaren arabera, sei hilabeteko epea oso laburra dela; izan ere, litekeena da sei hilabeteen arau-hauste horietako gehienak ez detektatzea.

57. artikuluari dagokionez (Zehapenen erregistroa), ez da egokia zehaztea ebazpen irmoak "bide judizialean" bakarrik direla, ebazpenak administrazio-bidean ere eman baitaitezke.

58. artikuluko (Kautelazko neurriak) 4. apartatuari dagokionez (zehapen-prozeduraren hasiera), aurreproiektuaren idazketa bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorretako Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoarekin. Bestalde, artikuluko horretan bertan ez da beharrezkoa zehapen-prozeduraren gehieneko iraupena adieraztea, dagokion zehapen-araudian araututa baitago.

Hirugarren Xedapen Gehigarrian (Datu pertsonalak) ez da beharrezkoa datuak babesteari buruzko araudi aplikatzekoa zorrotz bete behar denik adieraztea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hirugarren Xedapen Gehigarri horri buruz egindako txostenean adierazten den bezala.

Gazteei lege honen eta eskaintzen dien guztiaren berri ematea errazteari dagokionez, uste da aurreproiektuan jada jasotzen direla helburu hori lortze aldera gazteen informazio-, komunikazio- eta partaidetza-bide nahikoak, eta horiek jada erabili direla, adibidez, aurreproiektua bera egiteko prozesuan, aurretiazko jendaurreko kontsultaren fasean herritarrentzat aurreikusitako bitarteko orokorretatik harago, hala nola Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko iragarkian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Jaurlaritzaren Irekia plataforman. Zehazki, berariaz gazteei zuzendutako beste bide batzuk ere erabili izan dira, memoria honetan jada adierazitakoak, hala nola Gazteak ataria sare sozialen bidez zabaltzea. Halaber, informazio-esteka duten mezuak bidali zaizkie Euskadiko Gazteria Kontseiluari (EGK), udaletako 220 teknikariri, hiru foru-aldundietako 26 teknikariri, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-informazioko eta gazteentzako beste zerbitzu batzuetako 82ri, bai eta 301 gizarte-eragileri ere (gazteentzako eta astialdiko zerbitzuak ematen dituzten erakundeak). Gainera, Gazteen Legearen zirriborroaren edukari buruzko partaidetza-prozesu bat bultzatu zen euskal gazteen artean, Euskal Herriko Unibertsitateko hiru campusetan partaidetza-saioak eginez.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Irizpenean jasotako erreferentzia batzuetan alderdi jakin batzuk sustatzeko jarduketak falta dira, baina argitu behar da, oro har, lege-mailako araudietan ez direla sartzen mota horretako jarduketak.

Irizpenean garapenerako lankidetzaren esparruari buruz jaso nahi diren ekimenei dagokienez, hala nola Garapen Iraunkorraren Agenda 2030 edo Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia (H)ABIAN 2030, ekimen horiek EAEko administrazio publikoen jarduera osoa gidatzen dutela jotzen da, eta, beraz, ez da beharrezkotzat jotzen gazteriari buruzko lege batean errepikatzea.

Argitu behar da aurreproiektuan zehaztuta daudela jada udalekuak eta gainerako jarduerak (21.1 artikulua), bai eta gazte-aterpeak ere (25.1 artikulua). Definizio horiek dagozkien erregelamenduei egiten diete erreferentzia (170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, kanpamenduen, kolonien, udaleku irekien, auzolandegien eta haur eta gazteentzako ibilaldien araubidea arautzen duena, eta 1997ko azaroaren 12ko Agindua, Kultura sailburuarena, Haur eta gazte taldeen egonaldi eta ostaturako aterpetxeak eta instalazioak antolatzeari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen duena).

Era berean, argitu behar da ez dela organo eta erregistro berririk sortzen gazteria-politikaren arloko garapena, koordinazioa eta zaintza gauzatzeko; aitzitik, lehendik daudenei ematen zaie estaldura; zehazki, Gazte Elkarteak eta Gazteriari Zerbitzuak eskaintzen dizkieten Entitateen Zentsu Nagusia jada sortuta dago Kultura eta Turismo Sailaren 1986ko urtarrilaren 15eko Aginduaren bidez. Agindu horren bidez, gazte-elkarteak eta zerbitzuak ematen dituzten erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko errolda sortu zen; bestalde, Zerbitzuen eta Ekipamenduen Erregistroa lehendik dauden zerbitzuen erregistroen sistematizazioa baino ez da. Erregistro horiek hauen bidez sortu ziren: Gazte Informazioko Zerbitzuen onarpen ofiziala arautzen duen uztailaren 20ko 211/1993 Dekretua, Kultura sailburuarena, Haur eta gazte taldeen egonaldi eta ostaturako aterpetxeak eta instalazioak antolatzeari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretua eta azaroaren 2ko 419/1994 Dekretua, Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena. Azkenik, Erakundearteko

Koordinazio Organoak eta Sailarteko Batzordeak Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea ordezkatu dute, azken urteotan sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioaren funtzionamenduaren ondorioz lortutako esperientziaren arabera. Horretarako, ekainaren 2ko 239/1999 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen osakerari eta funtzionamendu-araubideari buruzkoa, indargabetzea aurreikusten da. Gainera, Estrategiaren gobernantza-organo bat aurreikusten da, sistemaren zeharkako politiken koordinazio eraginkorra ahalbidetuko duena, hori baita erakundeen arteko koordinazio-organoak berak duen zereginetako bat.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2019ko azaroaren 13an egindako txosteneko gogoetei erantzuteko agiria

Aipatu txosteneko ondorioetako lehenari dagokionez, zeinean adierazten baita lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoak aurreikusita dauden edukien azterketa zehatzagoa izan beharko zukeela, nabarmendu behar da lege hau onartzeak ez duela jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berririk jasotzen, eta egungoak sistematizatu eta egituratu egiten direla.

Izan ere, justifikazio-memorian azaldu bezala, gazteengan eragin zuzena duten politika sektorialen koordinazio-lanean urteetan egindako ahalegin handia finkatu nahi du etorkizuneko Gazteriaren Euskal Legeak, eta, beraz, EAEko erakunde guztiek baliozkotutako ibilbide bat amaitu. EAEko eragile politikoek gazteei buruzko politika integralei dagokienez hartutako konpromisoari sendotasun handiena emango dion tresna da. Legeak babesa eta egonkortasuna emango dizkio instituzioek luzaro erabili, bereganatu eta sustatu duten jardunbide bati.

Horrenbestez, ikuspegi ekonomikotik, asmoa da gastuaren tipologia finkatzea, EAEko administrazio publikoek Gazteria-arloan egindako lanaren ardatza izan ohi diren esku-hartze ildoetatik abiatuta. Eta hala, gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikokoak garatzearekin batera, jarduteko estrategia orokorrak ezarri dira, EAEko gazteen emantzipazioaren, berdintasunaren eta bizi-kalitatearen arloan ekimenak sustatzeko.

Horretarako, aurreproiektuaren zioen azalpenean laburtzen den bezala, abiapuntutzat hartu dira gazte-politikan zeharka egin diren ahalegin ugariak, Euskal Autonomia Erkidegoan 1999. urtetik hona elkarren segidan egin diren gazte-planak batez ere, eta EAEko zenbait erakunde publikok legegintzaldi bakoitzerako taxutu dituzten gazte-planak, *Euskadiko III. Gazte Plana 2020ren Marko Orokorra. Gazteriaren arloko Euskal Estrategia* lanean jasotako orientazioei jarraituz. Bestalde, memoria ekonomikoan jada adierazi da ezen, autonomia-erkidegoko aurrekontu orokorren memorian jaso bezala, gazte-politika integralaren lehen helburu handia politika transbertsala sustatzea dela, gazteen emantzipazio-prozesua bultzatzeko. Hori guztia justifikazio-memorian zehaztuta dago, 1.-4. orrialdeetan, eta ez da beharrezkotzat jotzen hemen berriz azaltzea.

Ikuspuntu ekonomikotik, memoria ekonomikoan azaldu bezala, aurreproiektua Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren «3222 Gazteria» aurrekontu-programan txertatzen da, autonomia-erkidegoko aurrekontu orokorren barruan. Eta hala, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenean bertan adierazten da 2020ko ekitaldirako 3222 aurrekontu-programa horretako zenbait aurrekontu-partidaren xedea dela aurre egitea txostenak berak 35., 43. eta 44. orrialdeetan aipatzen dituen Gazteria Zuzendaritzaren jarduketan kostuei.

Era berean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenean aitortzen da EAEko Administrazio Orokorreko beste sail batzuek ere sustapen-programak garatu dituztela, bai zuzenean biztanleria sektore gaztearentzat, bai gazteria, onuradun potentzial moduan, aldagaitzat hartuta (nekazari gazteentzako sustapen-programak, ohiko etxebizitza alokatzen laguntzeko «Gaztelagun» programak, kontratazioarako edo autoenplegurako programak, unibertsitete-trukeetarako laguntzen eta beken programak, graduondoko ikasketak eta abar). Horren guztiaren xehetasuna kasuan kasuko gazte-planen ebaluazioan jasota dago ekitaldi bakoitzean, eta dokumentazio hori eskuragarri dago bai EAEko administrazio publikoentzat, bai herritarrentzat. Denboran hurbilena den erreferentzia moduan, honela zehazten da 2019ko ekitaldi honetarako Eusko Jaurlaritzaren Planeko ekintzen programazioaren laburpena:

<i>Arloak</i>	<i>Programatutako ekintza kopurua</i>	<i>Aurrekontua</i>
Enplegua	71	67.476.718 €
Etxebizitza	4	26.720.000 €
Hezkuntza	49	56.761.270 €
Osasuna	23	2.657.756 €
Gizarte-ekintza eta berdintasuna	20	92.948.714 €
Parte-hartzea	12	1.643.690 €
Kontsumoa	4	98.288 €
Kultura	11	853.296 €
Kirola	7	1.175.160 €
Aisia	11	1.949.035 €

Hortaz, 212 ekintza dira guztira, eta 252.283.927 euroko aurrekontua aurreikusi da ekintza horietara bideratzeko. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak berak adierazi bezala, jarduketa horiek, ekintza zuzenekoak barne, ekintzen ardura duten sailek ordaintzen dituzte. 212 ekintzen xehetasunak, aurrekontu-partidak barne hartuta, jasota daude bai dagokien kontabilitate-erregistro egokietan, bai ekitaldi honetarako Gazte Planeko programazio-txostenean.

Era berean, esan behar da ez dagoela aurreikusita aurrekontu-sarrera berririk sortzea etorkizuneko Gazteriaren EAEko Legea indarrean jartzearen ondorioz. Hala egokituz gero, kasuan kasuko erregelamenduzko garapenak lantzeko prozesuan baloratu beharko dira zehapen-ahalmena erabiltzearen ondoriozko diru-sarrera posible berriak. Bestalde, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenean aipatzen denez, baliteke tasa eta prezio publikoei buruzko legea aldatzea eta salbuetsita geratzea gazteria-programaren tasak; bada, horren gainean, esan behar da aldatetaren tramitazioak ez duela zerikusirik Gazteriaren Legea onartzearekin, eta, horregatik, ez da egokituz jotzen memoria ekonomikoan sartzea, memoria horretan Gazteriaren EAEko Legea indarrean sartzeak eragingo lituzkeen aurrekontu-gastu eta -sarreraren kuantifikazioa jasotzen delako, baina hori ez da kasua.

Hitz batean, berretsi behar zer aurreikusten den azken azterketan: etorkizuneko Gazteriaren EAEko Legearen aplikazioak ez du berehalako eragin ekonomiko zuzena izango, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorarentzat, ez EAEko foru- eta toki-administrazioentzat, memoria ekonomikoa eginda dagoen azterketaren arabera.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenean ondorioztatzen da etorkizuneko araudiei sistematikoki heltzea ere ez dela aski aurrekontu-eraginaren oinarritzko zenbatespen-ariketa alde batera uzteko, eta, ondorio horri dagokionez, esan behar da ezen, organo sustatzaileak, neurri horien oinarritzko aurrekontu-eragin ekonomikoa bereiztearren, erregelamenduz garatzeko igorritako gaiez izan lezakeen etorkizuneko ikuspegiak une honetan proiektzio-ahalegin bat egin nahi izateak ez duela batere bermatzen etorkizuneko benetako eraginera hurbiltzea, ez dagoelako inolako aurreikuspenik ez legea onartuko den egunari buruz, ez erregelamenduzko garapenen egutegi posibleari buruz, ez eta etorkizuneko arau posibleetako bakoitzean bildu beharreko eduki posibleei buruz ere. Nolanahi ere, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenean bertan adierazten den bezala, beharrezko gauzatze zehatza erregelamenduzko arau egokiak sustatzeko unean egingo da.

Aipatu txosteneko hurrengo ondorioan, langileen kostua (adibidez, aurreikusitako ikuskapenena edo erregistroa eramatearena) eta baliabide materialena (sortzen diren erlazio guztietan izapidetze elektronikoa eskaintzeko betebeharra bermatzeko aplikazio informatikoen kostua handia baita) zenbatestez hitz egiten da.

Adierazi bezala, ikuskapen-lanak egiteko, lehenago erregelamenduzko garapena gauzatu behar da, eta orduan zehaztu beharko da gastua handitu behar den langile gehiago behar izanez gero, eta hori, esleituta dauden edo bere garaian Gazteriako Zuzendaritzako langileei esleki dakizkiekeen eginkizunen arabera, kontuan hartu beharreko aukera posibleetako bat baino ez da.

Adierazgarria da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenean Funtzio Publikoari buruzko Txostenaren aipamen partziala egitea, indarreko lanpostu-zerrendak Gazteria Zuzendaritzan ikuskapen-zereginak dituen posturik ez duela aurreikusten esaten duenean, eta soil-soilik adieraztea oharatarazpen horrek ez duela berekin ekarri memoria ekonomikoa horri dagokionez birplanteatzea; aitzitik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txosten horrek ez du jasotzen Funtzio Publikoari buruzko Txostenean esaten dela, halaber, geroago proposatu beharko dela lanpostu-zerrenda egokia; hori da, hain zuzen ere, organo sustatzaileak ere jarraitutako irizpidea, ez baita egokia prozesu honetan edukia eta gauzatzeko data zehaztearen zain dauden erregelamenduzko garapen jakin batzuen kuantifikazio ekonomikoa aurreikustea, lehenago justifikatu den bezala, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak oro har aldeztu duen irizpidearen aurka.

Erregistro orokorra eramateari dagokionez, memoria ekonomikoa adierazi bezala, Gazteriako Zuzendaritzako langileen ardura izango da, ez baita zeregin berri bat, eta egungo erregistroak sistematizatu nahi baitira, besteak beste aisialdiko eskolena, gazte-aterpetxeena eta gazteentzako bulego eta informazio-guneena, honako dekretu hauetan araututakoaren arabera: 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena; 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen ostatu eta egonaldietarako aterpetxe- eta instalazio-antolaketa buruzkoa; 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena. Arrazoi beragatik, Gazteria Zuzendaritzak badauzka jada behar diren aplikazio informatikoak, Gazteria Zuzendaritzaren aurrekontu-hornidura arruntaren bidez mantenduta eta, behar izanez gero, eguneratuta.

Onartzen da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak artikuluko batzuk bestela idazteaz egindako gomendioa, zehazki, 18. artikulua (txostenean 17.a dela esaten da) 2. apartatuan eta 36. artikuluko (gazte-boluntariotzaren sustapenari buruzkoa berau) b) letran, horretarako arlo espezifikoaren sustapenari buruzko adierazpide orokor bat erabiliz dirulaguntza-programa jakin batzuk berariaz aipatzearen orde.

Legeak zerbitzu-jarduerak libreki eskuratu eta baliatzeari dagokionez duen eraginaz den bezainbatean, bai eta Merkatu Batasuna Bermatzeko Legearen eraginari dagokionez ere, esan behar da gaia Gazteriaren Lurraldearteko Batzordean lantzen ari direla (autonomia-erkidegoetako gazteria-erakundearen ordezkariak biltzen ditu batzorde horrek). Joera da jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak erantzukizunpeko adierazpen bidez aitortzea, eta ez aurretiazko baimen bidez. Horregatik, 29. artikuluan (Identifikazio-sistemak), zehazki 2. apartatuan, eta 48. artikuluan (Arauhauste larriak gazteentzat identifikazio fisikoa edo birtuala egiteko mekanismoen sustapen-arloan), zehazki, 6. apartatuan, «baimena» terminoaren orde «aitorpena» erabili da. Ildo beretik, «baimena» kendu da 53. artikuluan (Zehapenen aplikazioa), 2 a) letran.

Bestalde, ondorioen atalari dagozkion gogoeta jada aztertuez gain, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aipatu txostenean zehaztapen batzuk egin beharreko kontu batzuk ere aipatzen dira.

Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena hizpide hartuta gazteentzako oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak zein diren argitzeko ezer ez esateaz egindako aipamenari dagokionez, memoria honetan jasotako beste erantzun batzuk gogoratu behar dira. Hartara, aurreproiektuaren 9. artikuluko a) letran zehaztu bezala, toki-esparruko eskumenak 2. eta 3. artikuluetan azalduta daude (gazte-politika eta aplikazio-esparrua), eta 13. artikuluan aipatutako jarduketetan zehaztuta. 13. artikuluko horretan, berariaz jasotzen dira honako hauek: gazteentzako jarduera soziokulturalak eta baliabideak eskaintzeko guneak eta elkarguneak (adibidez, gaztelekuak eta gaztegunek, beste zenbait izenen artean), eta gazteentzako informazioa, dokumentazioa, orientazioa eta aholkularitza (adibidez, gazteentzako informazio-guneak eta bulegoak).

Ekintza zuzeneko eskumenari dagokionez, zeina EAEko Administrazioari baitagokio, eta *“Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen*

arteko harremani buruzkoa” den azaroaren 25eko 27/1983 Legean eskumenen barne-banaketaz bildutako arauan aurreikusitako eskumena denez, gogoraz daiteke azterketaren funtsa jasota dagoela, aurreproiektuaren edukiaz den bezainbatean, justifikazio-memorian, 6.-10. orrialdeetan.

7. artikuluan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenari burukoa bera), «Gazte-prestakuntza» kontzeptua egokitzea onartzen da d) letrako 3. zenbakian, , eta «gazteekin zerikusia duten gaitan prestatzea» jartzea aurreko horren orde. Era berean, d) letran, gazteen egoerari buruzko azterketak eta ikerketak Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkiola zehazten da.

19. eta 20. artikulua (plangintza, programazioa eta ebaluazioa buruzkoak) egokitu egiten dira, eta zehaztu autonomia-, foru- eta toki-administrazioei dagozkiela, administrazio publiko bakoitzari izan beharrean.

Zehazten da EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa kide anitzeko organo moduan sortzen dela, eta organo horretako kide izateak ordainsaririk jasotzeko eskubidea ez ematea bereizten da organo horrek Administrazioaren egitura hierarkikoan ez egotetik, eta, horren ondorioz, 38. artikuluan 5. apartatua gehitzen da, eta hurrengoak berriz zenbakitzen.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren legezko arauketan sakontzeko aukerari dagokionez, ados egon arren maiatzaren 27ko 6/1986 Legean eduki batzuk eguneratzea komenigarria delako ustearekin, organo sustatzaileak egokiagotzat jotzen du eguneratze handiago bat egitea, 6/1986 Legea bera aldatuta.

12. artikuluan (Gazteriaren Euskal Sistemaren jarduera-arloei buruzkoa bera), b) letrako 5. zenbakia aldatu, eta «Baliabideen transferentzia» dagoen lekuan «Laguntzeko bitartekoak» aipatzen dira orokorki, ez baita zeregin zehatz bat, zerbitzu bat baizik.

Aurreproiektuaren 32. artikuluan (Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera) «sortzea» hitza kentzen da, gaur egun badaudelako webgune jakin batzuk.

21. artikuluan (Gazteentzako jardueri buruzkoa), 4. apartatuan, lurraldetasun-irizpidea zehazten da (jarduerak aurrez jakinarazi beharko zaizkio egingo diren lurraldeari dagokion foru-aldundiari, edo, bestela, lurralde batean baino gehiagotan eginez gero, Eusko Jaurlaritzan gazteria-arloan eskumena duen sailari). Era berean, 30 eguneko gutxieneko epea kentzen da, eta erregelamenduzko garapenera igortzen. Ildo beretik, 47. artikuluan (Arau-hauste arinei buruzkoa) b) letra kentzen da, hurrengo artikuluan errepikatuta dagoelako, eta berriz zenbakitzen dira hurrengo letrak.

24. artikuluan (gazteentzako informazio-guneei buruzkoa), baldintza moduan berridazten da 3. apartatuan (gutxienez, gune propio bereizi bat izatea bete beharko dute).

29. artikuluan (Identifikazio-sistemei buruzkoa), 4. apartatua kentzen da, «Gazte-txartela» zerbitzua baino ez duelako aipatzen (3. apartatuan jaso) , eta zerbitzu horren txartelak bere araua duelako nola kudeatu zehazteko.

Aldaketak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak Gazteriaren EAEko Legearen aurreproiektuari buruz 2020ko urtarrilaren 15ean eman zuten 6/2020 irizpena dela-eta

Ikusita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 2020ko urtarrilaren 15eko 6/2020 irizpena, Gazteriaren EAEko Legearen aurreproiektuari buruzkoa, aldaketa hauek egin zaizkio lege-aurreproiektuaren testuari.

6. artikuluan (eskumenen banaketa), homogeneousatu egin da Eusko Jaurlaritzaren / foru-aldundien / tokiko administrazioaren gaineko terminologia. Horretaz gain, 1. paragrafoan zehaztu da Eusko Jaurlaritzaren esku daudela legegintza-ekimena eta erregelamenduak emateko ahala, eta EAEko Administrazio Orokorren esku dagoela zuzeneko akzioa. Halaber, 4. apartatua sinplifikatu da, argiro zehazteko Lurralde Historikoen Legearen banaketak bere horretan diruela.

8. artikuluan (foru-administrazioen eginkizunak), d) apartatuan, gehitu da diplomak ematea ere haien esku dagoela, betiere diplomak lurraldeaz gaindikoak ez badira.

9. artikuluan (tokiko administrazioaren eskudantziak), Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean zerrendatutako eskudantziak zehazten dira, eta, horretaz gain, gehitzen da gazteriari buruzko politika definitzen deneko testuaren 2. eta 3. paragrafoei egindako erreferentziaz gain, eskudantziak hurrengo apartatuetan zedarrizten direla. Horretarako, gazteriaren arloko arau-antolaketa gehitu da, eta b) apartatuan jarri; horren ondorioz, jarraian berrantolatu dira kudeatze-eskudantziak, eta, halaber, beste apartatu bat gehitu da, d) apartatua, zeinak honela baitio: «berariaz gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak sortzea, mantentzea eta kudeatzea beren esparruan, baldin eta kudeaketa hori ez bazaio esleitu EAEko Administrazioari edo foru-administrazioei lege honen bidez edo berau garatzeko beste arau batzuen bidez»; apartatu hori kudeaketaren barnean dago, 8.e artikulurekin bat etorrita, eta zehaztu da «beren esparruan».

13. artikuluan, Gazteriaren EAEko Sistemaren zerbitzu-katalogoa definitzean, zehaztu da 12. artikuluan zerrendatutakoak direla horiek. 2. apartatuan esanbidez aipatzen da zein diren sartu beharreko jarduketak, hala nola informazioa, dokumentazioa, orientabidea eta gazteei lagun egitea, 12. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

14. artikuluan (Gazteria-politiken arloko profesionalak) testua sinplifikatzen da, sektore publikoko profesionalen buruzko aipamenak kenduz, sektore gisa araututa baitago jada.

16. artikuluan (Arau eta plan sektorialen eragina), 1. apartatua zehaztu eta sinplifikatu egiten da, eta erreferentzia egiten zaie gazteen kolektiboan eragin zuzena duten Eusko Jaurlaritzaren lege aurreproiektuekin, erregelamendu-proiektuekin eta planekin batera aurkeztu behar diren memoriei, xedapen orokorrak egiteari buruz indarrean dagoen araudira egokitzeke.

Ildo berean, exigentzia hau kendu da: ikusten bada xedapenak edo planak eragin negatiboak izango dituela, organo sustatzaileak haiek neutralizatzeko neurriak sartu beharko ditu xedapenaren edo planaren proiektuan.

Jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak aitortzeari edo onesteari dagokionez, bere horretan jarraitzen du komunikazio-araubideak 18 urtetik beherako pertsonen parte hartzen duten jardueretan, baldin eta familiaren etxetik kanpo gaua ematea badakarte —araubide hori jasota zegoen *Neska-mutikoen eta gazteen kanpamentuen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duen ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuan*—, jarduera horietan parte hartzen duten pertsonen eta jarduera horiek garatu behar direneko instalazioen edo azpiegitura fisikoen ezaugarriak direla-eta.

Halaber, 21. artikuluan eta zigor-araubidean, izendapen doiagoa ematen zaie gazteentzako jardueri: «haurrentzako eta gazteentzako aisialdi-jarduerak». Aurreko 2. paragrafoko jardueraren definizioa kendu da, dagoeneko 1. paragrafoan baitago, eta agintari taldeari buruzko exijentzia zedarritu da gutxieneko kopuruari eta titulazioari dagokienez, erregelamendu bidez arautuko denaren arabera. Jardueraren arduradunaren zuzeneko betebeharren gaineko paragrafoa era irekian idatzi da, edukia erregelamenduak garatzearen bidez osatu beharko balitz ere. Beste paragrafo bat gehitu da (3. zenbakia hartu du, eta, horrenbestez, ondorengoak berriro zenbakitu behar izan dira); horren bidez sartu da pertsoneri eragindako kalteak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia eduki beharra. Lehen 4. paragrafoa zena eta orain 7. dena (gaua ematea dakarten jarduerak), era irekian idatzi da. 5. paragrafoan, aurreikusitako diplomak zehaztu dira jarduera mailaraino. Lehengo 6. apartatua (diplomak) kendu da, aurreko paragrafo batean eta hurrengo artikuluetan jasota baitago.

22. artikuluko 4. apartatua (gazteentzako ekipamenduen eta zerbitzuen arloko diplomak) kendu da, 28. artikuluan araututa baitago.

Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta horiei dagozkien prestakuntza moduluak aitortzeari dagokionez (26. artikulua), eutsi egiten zaio azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuak ezarritako baimen-araubideari, horren bidez arautzen baitira, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua. Beharrezkotzat jotzen da eskolak eta prestakuntza-moduluak aldeztu aurretik baimentzea; izan ere, eman beharreko prestakuntza adingabeak aisialdian artatzen bideratuta dago, eta haiei arreta berezia eskaini behar zaie, bereziki haien guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonarik ez dutenean. Horri dagokionez, aipatu behar da ezen, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenean bertan adierazten denez, aurreproiektuaren edukia, haurrei dagokienez, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dagoela. Aurreikusitako betekizunei dagokienez, eskolen funtzionamenduan eta prestakuntza-moduluen baliozkotzean kontuan hartu beharreko oinarritzko baldintzak berak dira, aipatutako azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuan eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko urriaren 27ko Aginduan zehaztutakoaren arabera. Agindu horren bidez eguneratzen dira haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak.

Bestalde, gainerako zerbitzuak eta ekipamenduak aitortzea edo onestea erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen mende geratzen da, 23. artikuluan zehaztu bezala eta aurreko dekretuetan xedatutakoaz bestera, horietan aldeztu aurretik baimena behar baitzen. Ondorioz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenean bertan adierazi bezala, xedapen indargabetzailerak aldatzen da xedapen iragankorraren edukia.

23. Artikulu horretan bertan (gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduen onespina), «ofizial» kalifikatzailea gehitu da, eta 1. apartatutik kendu da «Gazteriaren EAEko Sistemaren sartze aldera», aitortzak duen izaera orokorraren ondorioz. Halaber, «zerbitzu eta ekipamenduak» terminologia homogeneizatu da testu osoan.

Mota bakoitzari dagokionez, osatu da zer esparrutan zehaztu beharko diren betekizunak erregelamendu-arauei bidez. Orobat, esanbidez adierazi da pertsoneri eragindako kalteengatik erantzukizun zibila estaltzeko aseguru bat edukitzeko betekizuna.

27. artikuluan (Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorra), ofiziozko inskripzioa hobesten da, aitortu ondoren, ez baitago esku-hartze bikoitza egiterik (aitortu edo onetsi eta inskripzioa).

35. artikuluan (gazteen boluntariotza), 1. apartatua kendu da, boluntariotzaren definizioa jasota baitago dagokion sektore-araudian; orobat, 2. apartatua sinplifikatu zaio 37. artikuluari (garapenerako lankidetzeta), ez errepikatuzko beharrik gabe beste arau batzuetan xedatutakoa.

38. artikuluan (Erakundearteko koordinazio organoa) eta 39. artikuluan (Eusko Jaurlaritzaren sailarteko Batzordea) funtzionamendu «erregelamendua» terminoaren ordez, «araua» jarri da. Artikulu berean (39.a) zehazten da zer arlotako sailburuordeak parte hartuko duen Eusko Jaurlaritzaren sailarteko batzordean, kontuan hartuta zer arlo jaso diren 18. artikuluan eta gaur egungo gazte planaren gaineko esperientzia.

Araubide zehatzailea eguneratu da, aintzat harturik gorago adierazitako aldaketak, jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen onespenerako betekizunen gainekoak; horretarako, 47., 48. eta 49. artikulua (arau-hauste arinak, astunak eta oso astunak, hurrenez hurren) egokitu dira 21. artikuluan eta hurrengo idazketa berriaren arabera. Era berean, 47., 48. eta 49. artikuluen gainerako edukia ere aldatu da, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpen prozedurari egokitzeko (baimena ordeztu baitu).

48.1.d artikuluan idazketa ere aldatu da, eta zehazten da huts nabarmenek erabiltzaileen heren bati baino gehiagori eragin behar dietela, jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen prestazioari dagokionez. 48.3.e) artikuluan, zehazten da dolozko aldaketa hauei buruzkoa dela: zerbitzua hasteko erantzukizunpeko adierazpenean jasotako baldintzei. 49.1 artikuluko c) apartatua kendu da, dagoeneko jasota baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean.

50. artikuluko berrerortzearen definizioa egokitu da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 29.3.d) artikuluan azarritako definizioarekin bat etortzeko.

51.7 artikuluan hau zehaztu da: arduradunei eragiten diela gazteentzako jarduerak egiteko aldi baterako desgaitzak.

52. artikuluko 1.b) apartatua kendu da, errepikatuta baitago 2. apartatuan.

53. artikuluko 2. apartatua (arau-hauste astunen zehapenak) sartu da jarduerak egiteko hiru urte arteko desgaitzaren aldia. 2.a) atalean kendu egin da «beste jarduera, zerbitzu edo ekipamendu baterako onspena eskuratzetik ez izatea». 3. apartatuan, «neurri osagarriak» eta «agintaritzaren zehatzaile eskudunak» terminoak kendu dira, eta «zerbitzu publikoak» terminoaren ordez «gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak». 3.a) atalean, aldatu da zer epetarako itxiko den zerbitzua edo ekipamendua aldi baterako, guztiz edo zati batean; 12 hilabetera artekoa izan daiteke epea, gehienez ere.

54. artikuluan, arau-hausteen preskripzio-eparen hasiera zenbatzeko modua aldatu da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 30.2 artikuluko irizpideari egokitzeko.

Lehenengo xedapen gehigarria (sailek izendatzea) kendu da, eta gainerakoak berrantolatu dira.

Araugintza-teknikako jarraibideak

Beharrik gabeko letra larrien ordez, letra xeheak jarri dira.

Euskal Autonomia Erkidegoari izendapen homogeneoa eman zaio.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari egiten zaizkion erreferentziak homogeneizatu dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoa erabiliz, 17. artikuluan «Orokor» terminoa kenduta, aurreproiektuaren gainerako testuarekin bat etortzeko.

Gazteriaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren izendapen homoginoa erabili da.

Etxebizitzaren Legearen, Berdintasunaren Legearen eta EAEko Autonomia Estatutuaren erreferentziak osatu dira.

8. artikuluan d) apartatua, hezitzaileak gaztelaniaz aipatzeko, «educadores y educadoras» idatzi da, hizkera ez-sexista erabiltzeko.

14.2 artikuluan, «eta» erabili da, «eta/edo» barik.

7.d), 12., 18. eta 47.etik 49.era bitartekoetan, koskak sartu dira paragrafoetan, testua errazago irakurtzeko.

10.etik 14.era bitarteko artikulua atal edo sekzio batean (1. atala) batu dira; II. tituluko I. kapituluko gainerako bi atalen zenbakitzea aldatu da, eta ordinal arabiarrez zenbakitu dira.

7.d) artikuluan, «apartatua» terminoaren ordez, «paragrafoa» erabili da, testuaren gainerakoarekin bat etortzeko.

Gramatika-zuzenketak, eta bestelako iruzkinak eta iradokizunak proiektuaren testuaren gainean.

Irizpenaren azken apartatuko iradokizun guztiei jarraitu zaie, salbu eta adinari buruzko iruzkinen zati bati. Hala, 3. artikuluko 4. paragrafoan «gazteak» termino kendu da, nerabeak ere har ditzan, baina ez dira aldatu artikuluko bereko etxebizitzarako sarbideari buruzko argibideak eta 30 urtetik gorakoentzako nekazaritza-ustiatzeari buruzkoak, adibidez; izan ere, legearen aplikazio-eremurako artikulua hobeto ulertzeko balio duela iritzi baitzaio, hargatik eragotzi gabe 18. artikuluan zehatzago azaltzea.

Azkenik, nabarmendu beharra dago iradokizunen atal honetako aldaketek berekin dakartzatela aurreproiektuaren testuaren ordenaren aldaketak ere. 7. artikuluko apartatuak ordenatu dira (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskudantziak) euren sailkapen juridikoaren arabera (plangintza-jarduera, erregelamendu-arauak ematea, eta egikaritze-jarduerak eta jarduera teknikoak). Horretaz gain, aurreko a) apartatuaren bigarren zatia (gazteriari buruzko politikak eta legearen eta haren garapen-araudiaren ebaluazioa) apartatu autonomo batean formulatu da, zeina orain b) apartatua izango baita. Xedapen iragankorraren edukia (indarrean dauden dekretuen eta aginduen zerrenda) xedapen indargabetzailerara aldatu da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 5a

Beatriz Artolazabal Albeniz
Berdintasun, Justizia eta Gizarte-Politiketako sailburua
(Sinadura elektronikoa)